


Tabakoaren arloko politikak eta legeria

Observatorio VASCO *de drogodependencias*

Droga-Menpekotasunen Euskal Behatokia



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES



Informe / Txostena

20

Tabakoaren arloko politikak eta legeria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

Zuzendariak: José Luís de la Cuesta Arzamendi
Ignacio Muñagorri Laguía

Ikertzaileak: Xabier Arana Berastegi
Isabel Germán Mancebo

Ikerketa Taldea: Xabier Arana Berastegui
Isabel Germán Mancebo
José Luís de la Cuesta Arzamendi
Ignacio Muñagorri Laguía
Aitzol Azpiroz Arrue

Argitaraldia: 1.a, 2009ko uztaila
Ale kopurura: 1.000
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila
Internet: www.euskadi.net
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Fotokonposaketa: Composiciones RALI, S.A.
Particular de Costa, 8-10, 7.^a - 48010 Bilbao
Inprimaketa: Estudios Gráficos ZURE, S.A.
Carretera Lutxana-Asua, 24-A
48950 Erandio-Goikoa (Bizkaia)
ISBN: 978-84-457-2991-5
L.G.: BI 2337-2009

INFORME/TXOSTENA BILDUMAN ARGITARATUTAKO TITULUAK

1. Estudio referente a conceptos y terminología en reducción de la demanda.
2. Las drogas de síntesis en Bizkaia: un estudio exploratorio de las pautas de consumo.
3. Sintesi-Drogak.
4. Drogodependencias: reducción de daños y riesgos.
5. Guraso-eskolak: jarduera proposamenak.
Escuela de padres y madres: propuestas de actuación.
6. Cannabis: de la salud y del derecho: acerca de los usos, normativas, estudios e iniciativas para su normalización.
7. Los medios de comunicación social ante el fenómeno de las drogas: un análisis crítico.
8. Drogas ilícitas, vida recreativa y gestión de riesgos: estudio-diagnóstico de necesidades de intervención en prevención de riesgos en ámbitos lúdico-festivos de la CAPV.
9. Situación psicosocial de consumidores de heroína no adscritos a tratamiento en el País Vasco.
10. Drogas: Exclusión o Integración Social.
11. Delimitación del «status» jurídico del ciudadano «consumidor de drogas».
12. El uso de ketamina en el País Vasco: de fármaco anestésico a droga de fiesta.
13. Droga-kontsumitzaileen zigorrak eta espetxeko egonaldiak betetzea: jarduera-protokoloak.
Cumplimiento penal y penitenciario de personas consumidoras de drogas: protocolo de actuación.
14. Factores de riesgo y de protección frente al consumo de drogas: hacia un modelo explicativo del consumo de drogas en jóvenes de la CAPV.
15. El alumnado y las drogas desde la perspectiva del profesorado: ¿qué opina el personal docente vasco?
16. Drogas de ocio y perspectiva de género de la CAPV.
17. Documento técnico para un debate social sobre el uso normalizado del cannabis.
18. Estudio documental sobre drogas y violencia de género.
19. Las atribuciones simbólicas de la cocaína en la población joven consumidora.

Aurkibidea

Sarrera. <i>Xabier Arana</i>	9
1. Tabakoa: osasunaren eta ekonomiaren arloko alderdi batzuk. <i>Xabier Arana</i>	11
1.1. Tabakoa eta osasuna	13
1.2. Tabakoarekin erlazionatutako gai ekonomikoak	14
2. Tabakoaren arloko politikak. <i>Xabier Arana</i>	17
2.1. Nazioarteko erakundeak	19
2.2. Europar Batasuna	37
2.3. Estatu espainola	43
2.4. Euskal Autonomia Erkidegoa	50
2.5. Tabakoari buruzko politiketan jarduteko ildoak	58
2.5.1. Eskariaren murrizketa	59
2.5.1.1. Prezioekin eta zergekin erlazionatutako neurriak	59
2.5.1.2. Prezioekin erlazioa ez duten neurriak	60
2.5.2. Eskaintzaren murrizketa	68
2.5.2.1. Tabakoaren produktuen legez kontrako merkataritza	68
2.5.2.2. Adingabeei eta adingabeek egindako salmenta	68
2.5.2.3. Ekonomikoki bideragarriak diren jarduera alternati- boak bultzatzea	69
3. Tabakoarekin erlazionatutako legeriaren azterketa. Inplikazio praktikoak legeriaren aplikazioan. <i>Isabel Germán</i>	71
3.1. Tabakoaren arloko Autonomia Erkidegoko Legeria. 18/1998 Le- gea, ekainaren 25ekoa, droga-mendetasunaren arloko preben- tziari, laguntzari eta gizarteratzeari buruzkoa	74
3.1.1. Tabakoaren erregulazioa 18/1998 Legean	75

3.1.2. Tabakoarekin erlazionatutako arau-hausteak eta zigorrak Droga-mendetasunari buruzko euskal Legean	83
3.2. 28/2005 Legea, abenduaren 26koa, tabakismoaren aurkako osasun-neurriei buruzkoa, eta tabakoaren produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituena	96
3.2.1. Legearen helburua, justifikazioa eta izaera	97
3.2.2. Legearen edukia	102
3.2.2.1. Tabakoaren kontsumoa, salmenta eta hornidura . .	103
3.2.2.2. Tabakoaren produktuen publizitatea, sustapena eta babesa	114
3.2.2.3. Tabakismoa prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta tabakoa erretzeari uztea errazteko neurriak	117
3.2.3. Arau-hausteen eta zehapenen erregimena	124
3.3. Autonomiako eta estatuko tabako-arloari buruzko legediaren konparazio-azterketa	135
3.3.1. Tabakoaren kontsumoaren publizitatea eta sustapena	136
3.3.2. Tabakoa saltzea eta hornitzea	138
3.3.3. Tabakoa kontsumoa	140
3.3.4. Tabakoarekin lotura duten arau-hauste eta zehapenen erregimena	143
3.3.4.1. Zehatzeko eskumena	146
3.3.5. Tabakismoa prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta tabakoa erretzeari uztea errazteko neurriak	149
Ondorioak. <i>Isabel Germán, Xabier Arana</i>	153
Bibliografia.	159

Sarrera

Azkeneko urteetan, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) eta Europar Batasunak tabakismoaren fenomenoari aurre egiteko politikak eta legeriak jarri dituzte martxan, politika eta lege horien osasun- eta prebentzio-alderdia nabarmenduz. Tabakoaren enprekin zuzenean edo zeharka lotutako hainbat esparruk gogor kritikatu dituzte gertatzen ari diren aldaketak, segurtasunik eza juridiko indartsu bat sortzen dutelakoan eta ekonomiaren hainbat alderdiri (lanpostuak tabako-industrian, publizitatean, ostalaritzako negozioetan) kalteak eragiten dizkiotelakoan. Aitzitik, osasunaren esparruko sektoreek politika eta legeria berriak goraipatu dituzte, neurri handi batean gaur egungo tabakoren kontsumoa geldiarazten lagun baitezakete.

Euskal Autonomia Erkidegoan Autonomia Erkidegoko Legeria dago indarrean 1988. urtetik droga-mendetasunen arloan eta bertan, tabakoaren salmentarekin, sustapenarekin eta kontsumoarekin erlazionatutako gaiak azaltzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Droga-mendetasunari buruzko V. Planeko eskaintza kontrolatzeko eremuko jarraibide nagusia honako hau da: «indarreko legeria modu eraginkorrean eta koordinatuan aplikatzea, batik bat 18/1998 Legea, aditzera emanez eta betearaziz, erakundeen artean izan daitezkeen inkoherentziak saihestuta; Lege horretatik sortu dira eskaintza kontrolatzearen inguruko gainerako jardun-ildoak». Ikerketa honen helburua tabakoaren arloko gaur egungo politikak eta legeriak aztertzea da, kalteak eta arriskuak murrizteko ikuspegia kontuan hartuz.

XABIER ARANA

tx
i

o
n

s
f

t
o

e
r

n
m

a
e

1. Tabakoa: osasunaren eta ekonomiaren arloko alderdi batzuk

XABIER ARANA

1.1. TABAKOA ETA OSASUNA

Tabakismoaren Prebentzioko Batzorde Nazionalak dioenez, tabako-enpresek izan ezik, inork ez daki zein den zigarro baten benetako osaera (Pérez 2007). Egile horrek berak jakinarazi duenez, Harvard Unibertsitateko ikerketa batek egiaztatu zuen 1997. urtetik 2005. urtera bitartean tabako-enpresek beren zigarroen nikotinaren kopurua handiagotu zutela ezkutuan % 11raino.

Egiaztatu denez, zigarro baten % 90 tabakoz osatuta dago –substantzia berez mendetasun-sortzailea eta kantzerigenoa– baina gainerako % 10ari buruz ez da osagai guztien berri ematen. Altadis fundazioak onartu du bere marka guztietan 289 sustantzia erabiltzen dituela, eta Estatu Batuetan, tabakoaren industriak adierazi du 599 substantzia erabiltzen dituela, eta horietatik 100 substantzia baino gehiagok jarduera farmakologikoa dute. Andaluziako Juntako Nekazaritzako Elikagaien Laborategiko aditu batek –zigarroen kearen eta alkaternaren osaera aztertu ditu tabako-enpresen aurka demanda jartzeko–, honako hau adierazi zuen: «Zigarroak ingeniartzako obra dira mendetasuna handiagotzeko. Tabako-enpresek urteetako alde kentzen digute eta nahiz eta konposatuen gehiengoa lurrina dela baieztatu, egia esan, beste zeregin batzuk dituzte, eta horietako asko ezezagunak dira guretzat». Tabakoa erretzailea erakartzeko ingeniartzak kimikoko tresna oso sofistikatu dela erakusten duen proba aipatzekoa da hirurogeita hamarrek hamarkadan *Philip Morris* gehigarriak erabiltzen hasi zela eta Marlbororen salmentak izugarri igo zirela. Ondoren, beste tabako-enpresa batzuek estrategia berdinak erabili zituzten (Méndez 2007).

Zigarroetan aurki daitezkeen osagaien artean, nikotina (mendetasunaren arrazoi nagusia), alkaterna, karbono monoxidoa eta beste substantzia batzuk daude. Substantzia horiek, kasu gehienetan, mendetasuna handiagotzeko (Pérez 2007) eta tabakoaren ondorio gogaikarriak murrizteko balio dute. Egile horrek biltzen dituen gehigarrien artean, honako hauek nabarmentzen dira: amoniako likidoa, begiak eta goiko arnasbideak narritatzen dituzten toxikoak, azetona, akro-

leina (bronkio-narritagarri indartsua eta enfisema eragilea), hidrogeno zianuroa (normalean arratoi-hiltzaile gisa erabiltzen den pozioa), metanola (misilen erregai gisa erabiltzen da), toluenoa (disolbatzaile oso toxikoa), DDT (intsektizida). Berziki aintzat hartu behar dira honako osagai hauek biltzen dituzten gehigarri kancerigenoak: alkaterna (errepideak asfaltatzeko erabiltzen da), artsenikoa (pozioa), kadmioa eta nikela (bateriek izaten dituzte), binil kloruroa (kancerigenoa), formaldehidoa (auzitegi-laboregietan erabiltzen den kontserbagarri organikoa), uretanoa (bilgarrietan erabiltzen da) eta 210 polonioa (erradioaktiboa). Era berean, beste substantzia mota batzuk aurki daitezke, adibidez: menda, egurra, frutak, baratxuria, lore-esentziak, kakaoa, erregaliza, etab.

Tabakoak eta tabakoaren keak kontsumitzaileen osasunean dituzten ondorioei buruzko datuak bistakoak dira: bost milioi pertsona inguru hiltzen dira urtean munduan tabakoaren kontsumoek eragindako gaixotasunen ondorio gisa. Europako Parlamentuaren arabera, Europar Batasunean urtero 650.000 pertsona hiltzen dira erretzeagatik eta 80.000 pertsona tabakismo pasiboaren ondorio gisa¹. Estatu espainolean 50.000 pertsona hiltzen dira arrazoi horrengatik. Tabakismoa da arrisku- eta hilkortasun-faktore nagusia herrialde garatuetan.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskadi eta Drogak (2008) seriean biltzen denaren arabera, tabakoa da Euskadin gehien zabaldua dagoen droga, alkoholaren ondoren (gutxi gorabehera 15-74 urteko hamar pertsonatik seik erre du noizbait). Tabakoaren kontsumoetan egonkortasun bat ikus daiteke. Aurretik adierazitako adin-tarteko 600.000 pertsona inguruk erretzen dute tabakoa. Horietako gehienek –bostetik lau baino gehiago–, ohiko erretzailetzat hartzen dute beren burua. Gainerakoek aldian-aldian kontsumitzen dutela esaten dute.

1.2. TABAKOAREKIN ERLAZIONATUTAKO GAI EKONOMIKOAK

Tabakoa negozio handi bat da eta izaten jarraitzen du. Laborea herrialde periferikoetan egiten dela du ezaugarritzat, eta herrialde horietan erosten da hostoa kostu txikian, eta dagokion industria-manipulazioaren ondoren, sektoreko multinazionalak mozkin handiak lortzen dituzte (Martí 1980). Estatu espainolean, duela mende bat baino gehiago, tabakoaren produktuen fabrikazioaren eta salmentaren monopolioa Estatuaren esku egon zen, eta 1887. urtean, Estatuak *Compañía Arrendataria de Tabacos* deituriko konpainia mistoari errentan eman

¹ *Europa al Día* buletina, 2007. urteko urria, 238. zenbakia.

zion. *Tabacalera S.A., Compañía Gestora de Monopolio de Tabacos y Servicios Anejos* izena 1945. urtekoa da (Arana y Vega 1998).

Zenbait lanek agerian utzi dute tabakoarekin erlazionatutako alderdi ekonomikoaren garrantzia: Duela lau urte jada, Pascualek eta Vicések (2004:24) honako hau ondorioztatu zuten: «Mendeak igaro dira eta tabakoa gaur egungo negozio boteretsuenetariko batean bilakatu da. Tabakoak gizartean eragin handia du; izan ere, tabakoaren kontsumoak sortzen dituen ondorio negatiboez gain, gobernuetako erakundeen erreakzioek ahulak izaten jarraitzen dute, gobernuen ardura beren biztanleen osasuna babestea bada ere. Elkarren aurka dauden interesak dira eta horiek uztartzea badirudi zaila, konplexua eta luzerakoa izango dela. Oraingoz, herrialde batzuk gaitz horrekiko kontziente dira eta herrialde horietako kontabilitateak ahultzen doaz, eta, bestetik, tabakoaren industria lurralde «birjinak» bilatzen ari da, bertan instalatu eta beren mozkin handiak sortzeko; bide batez esan beharra dago ez dagoela inbertitzaile edo onuradun pribatu edo publikorik horri uko egiteko prest.

Era berean, Salvador-Llivinak (2004:27) azaldu du tabakoaren industriak nola mantendu duen borroka politiko irmoa bere interesak babesteko, sortutako ustezko mozkin ekonomikoetan zentratutako diskurtso baten arabera: «Espainiako demokraziaren berrezarkuntzatik, Osasun Ministerioak produktuaren, merkaturatze-bidearen, tabakoaren kontsumo publikoaren edo tabakoaren sustapenaren mugei buruzko lege-proposamen baten zirriborroa garatu duen bakoitzean, tabakoaren industriak gogor egin die aurre adierazitako proposamenei, herrialdearentzako galera ekonomiko gogorrak iragarritz». Erabilitako argudio garrantzitsuenak tabakoaren produktuei buruzko zergen bitartez eta produkzioak eta merkaturatzeak sortutako enpleguaren bitartez Estatuak lortzen zituen dirukopuruak ziren. Salvador-Llivinak argudio horiei aurka egiten die, eta adierazten duenez, bi alderdiek geroz eta pisu gutxiago dute gaur egungo egoera ekonomikoan.

Tabakoaren ikuspegi ekonomikoak laborantzaren industria pribatuaren eremuarekin, fabrikazioarekin, banaketarekin eta tabakoaren produktuen salmentarekin, baita publizitate-enpresekin eta komunikabideekin ere, erlazionatutako gaiak bere baitan hartzen ditu. Era berean, adierazi den moduan, Estatuak euro ugari biltzen ditu tabakoaren zergen bitartez. Are gehiago, menpeko pertsonen ematen zaizkien laguntzak tabakotik eta alkoholetik datozen zergekin ordaintzea planteatu dute hainbat adituk (Morán 2005).

Ez dira ahaztu behar tabakoaren ekonomian eragina duten beste alderdi garrantzitsu batzuk: tabakoaren kontrabandoa eta tabakoaren kontsumoetatik

eta tabakoaren ketik eratorritako osasun-gastuak. Urte askoan, tabakoaren kontrabandoak eragin handia izan zuen Estatu espainolean². Azken hamar urteetan, fenomeno horren pisua geroz eta ahulagoa da. Aitzitik, tabakismoaren prebentzioari eta laguntzari aurre egiteko osasun-gastuak geroz eta handiagoak dira.

Estatu espainolean, 1996. urtetik 2006. urtera bitarte, 3.583 milioi tabako-pakete saltzetik 4.504 milioi tabako-pakete saltzera igaro dira, hau da % 25,7ko igoera. Era berean, tabakoaren diru-sarrerengatik diruaren igoera esanguratsua izan da: 1996. urtean 4.698 milioi euro sartu ziren, eta 2006. urtean 19.764 milioi euro, hau da, % 129 gehiago (DEB, 2007. urteko Txostena).

Estatu Batuetan eskumena duen auzitegi batek tabako-enpresen artxiboak jendaurrean jartzea eskatu ondoren, tabakoaren enpresa multinazionalak beren mozkin finantzieroak lortzeko erabilitako estrategietako batzuk ezagutu ahal izan dira:

- Philip Morrisek amoniakoa erabili zuen nikotinaren adikzio-ondorioak indartzeko (Villarbí 2004).
- Enpresa horrek, Europar Batasunak kontrabandoan aritzeagatik salatua izan ondoren, 1.250 milioi dolar ordaintzea itundu zuen. Akordioak ez zekarren inolako erantzukizunik Philip Morrisentzat iruzurrezko jokabideetan, eta tabakoaren nazioarteko kontrabandoaren (faltsifikatua edo ez) aurkako borrokaren aldeko enpresaren ekarpen gisa aurkeztu zen.

² 90. hamarkadaren erdialdean, Tabakoaren Espainiako Elkarrekin sentsibilizazio-kanpaina bat egin zuen, eta bertan gogorarazten zenez, tabako-paketeen zigiluak tabakoa freskoa eta kalitatezkoa zela adierazten zuen. Kanpainaren leloa honako hau izan zen: «KONTRABANDOZKO TABAKOA: Zure aurka. Guztion aurka». (*El Semanal*, 1995/11/12).

tx
i

o
n

s
f

t
o

e
r

n
m

a
e

2. Tabakoaren arloko politikak

XABIER ARANA

2.1. NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK

Duela berrogeita hamar urte baino gehiago, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) lehenengo aldiz adierazi zuen tabakismoa dela aurreikus daitekeen heriotza goiztiarraren lehenengo arrazoia¹. OMEren gaur egungo Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmena urtetako lanaren ondorioa da, eta urte horiek adierazitako Hitzarmenaren 2. Eranskinean bilduta azaltzen dira. 1995. urteko maiatzean², tabakismoaren aurka borrokatzeko nazioarteko tresna bat egiteko bideragarritasunaren berri emateko eskatu zitzaion zuzendari nagusiari. Ondoren, zuzendari nagusiak azterketa bat aurkeztu zion Kontseilu Betearazleari, eta horrek EB97.R8 erabakia hartu zuen, «tabakoaren aurkako borrokarako nazioarteko esparru hitzarmen» bati buruzkoa. Eskatutako protokoloarekin bat etorritik, Osasunaren Munduko 49. Batzarrak WHA49.17 erabakia hartu zuen, adierazitako Hitzarmenari buruzkoa, eta Hitzarmena egiteko beharrezkoak diren gestioak egiteko eskatu zion zuzendari nagusiari. Horrela, OMEk itunak egiteko lehenengo ekimenari ofizialki hasiera eman zion.

OMETik, 1998. urtean, *Liberarse del tabaco (Tabakotik askatu)* ekimena sortzeaz gain –arreta, ekintza eta nazioarteko baliabideak tabakismoaren munduko epidemian zentratzeko helburuarekin–, era berean, Esparru Hitzarmenarekin eta iritzi publikoaren eta politikoaren sentsibilizazioa bezalako gaiei aurre egitearekin erlazionatutako negoziazio-mandatu bat ezarri zen, tabakoaren kontrolari buruzko nazioarteko arauak martxan jartzeko. Urtebete geroago, Osasunaren Munduko 52. Batzarrak oinarriak finkatu zituen Tabakoaren Kontrolerako eta egon daitezkeen lotutako protokoloetarako OMEren Esparru Hitzarmenaren alde askotariko negoziazioa egiteko.

Bi organo, lan teknikoko talde bat (Esparru Hitzarmenaren elementuen proiektuak prestatzeko arduraduna) eta gobernu arteko negoziazio-organoa bat (proiektua eta egon daitezkeen eranskinak idatzi eta negoziatzeko ahalmena du) sortu zi-

¹ Zehazki 1956. urtean. Ikus: <http://www.jamillan.com/histoint.htm>:

² WHA48.11. ebazpenaren bitartez.

ren, Esparru Hitzarmena idazteko, negoziazioak azkentzeko eta Osasunaren Munduko 56. Batzarrak testua onartzeko helburuarekin. Bi organoak Estatu Kideen eta eskualdeko integrazio ekonomikoko erakundeen (Estatuek eskumena esleitu zieten erakunde horiei tabakoaren kontrolaren arloan) partaidetzarekin ados zeuden. Hainbat bilera egin ondoren (horietako batzuetan inplikaturako alderdiei –osasan publikoko, tabakoaren industriako eta nekazarien taldeko ordezkariak– entzun zitzaizkien beren ikuspuntuak azaltzeko), Osasunaren Munduko 56. Batzarrak aho batez onartu zuen OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmena. Hitzarmenak ibilbide motza izan du, baina munduko osasan publikoko erreferente batean bilakatu da, nazioarteko eremuko tabakoaren arloko politiketan ondorio argiekin. Eranskin honek biltzen duen moduan, Hitzarmena «gertakari garrantzitsua da osasan publikoaren sustapenean eta osasan publikoaren arloko lankidetzan dimentsio juridiko berri bat gehitzen du».

OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmena tabakismoaren epidemiaren globalizazioaren fenomenoari erantzun bat emateko sortu zen, merkataritzaren liberalizazioa eta zuzeneko atzerriko inbertsioa bezalako hain gai konplexuei esker. Era berean, beste alderdi batzuk, besteak beste mundu osoko merkaturatzeak, sustapenak eta babesak, baita zigarroen legez kontrako trafikoak ere (kontrabandoa eta faltsutzeak), tabakismoaren ikaragarriko igoerari laguntza eman diote. Hitzarmenak tabakismoaren kontrolaren politikekin erlazionaturako hitzaurre bat, sarrera bat, hainbat zati³ eta bi eranskin ditu⁴. Hitzaurrean OMEren babespean negoziaturako lehenengoa eta Nazio Batuen historia guztian zehar gehien babestutako ituna dela adierazten da. Proba zientifikoetan oinarritzen da eta lor dezaketean gehienezko osasan-maila gozatzeko gizaki guztien eskubidea biltzen du.

Osasan publikoa babesteko eskubideari lehentasuna emateko laguntza-esketik abiatzen da sarrera⁵, eta tabakismoaren epidemiak osasan, gizarte-

³ I. zatia: sarrera; II. zatia: Helburuak, oinarriko printzipioak eta obligazio orokorrak; III. zatia: Tabakoaren eskariaren murrizketarekin erlazionaturako neurriak; IV. zatia: Tabakoaren eskaintzaren murrizketarekin erlazionaturako neurriak; V. zatia: Ingurumenaren babesa; VI. zatia: Erantzukizunarekin erlazionaturako alderdiak; VII. zatia: Laguntza teknikoak eta zientifikoak eta informazioaren komunikazioa; VIII. zatia: Erakunde-moldaketak eta finantza-baliabideak; IX. zatia: Desadostasunak konpontzea; X. zatia: Hitzarmenaren garapena; XI. zatia: Azken xedapenak.

⁴ I. Eranskina: WHA Ebazpena 56.1 – OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmena; II. Eranskina: OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren negoziazio-prozesuaren historia.

⁵ Sarreran hainbat erreferentzia egiten zaizkio osasunerako eskubideari: Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 12. artikulua, «persona orok du ahalik eta osasan fisiko eta mentalki handiena izateko eskubidea»; OMEren Konstituzioaren sarrera, «lor daitekeen gehienezko osasunaren gozamina gizaki guztien oinarriko eskubideetako bat da, eta ez da inor

ekonomia- eta ingurumen-arloko ondorio larriak dituen mundu osoko arazoa dela onartzen da. Horregatik guztiagatik, nazioarteko lankidetzaz handi baten premia aldarrikatzen du, erantzun eraginkor, egoki eta integral bat emateko. Nabaritasun zientifikoen arabera, tabakoaren kontsumoak nahiz tabakoaren kearen eraginpean egoteak heriotzaren, gaixotasunen eta ezintasunen kausak direla adierazten du. Zigarroak, tabakoaren beste produktu batzuekin batera, oso modu sofistikatuan sortzen dituztela adierazi du, mendetasuna sortzeko eta mantentzeko helburuarekin⁶ eta, horrez gain, bere osagaien zati handi bat, tabakoaren kearekin batera, ikuspegi farmakologikotik, aktiboak, toxikoak, mutagenoak eta kantzerigenoak dira. Adingabeek –horietako asko oso goiz hasten dira tabakoa kontsumitzen–, emakumeek eta komunitate indigenek egindako kontsumoen igoera adierazgarriagatik kezka adierazi da.

Horregatik guztiagatik, alderdi sinatzaileek ohar zientifikoetan, teknikoetan eta ekonomikoetan oinarritutako tabakoaren kontrolerako neurriak sustatzeko konpromisoa hartzen dute. Horien artean honako hauek nabarmentzen dira: lankidetzaz-ekintza bat zigarroen eta tabakoaren beste produktuen (kontrabandoa, legez kontrako fabrikazioa eta faltsutzea barne) legez kontrako trafikoa⁷ desagerrarazteko, eta horrez gain, tabakoaren industriaren edozein saioaren aurrean zaintza mantentzeko beharra⁸ tabakoa kontrolatzeko ekintzak ahuldu edo indargabetzeko, eta tabakoa kontrolatzeko jarduerari modu negatiboan eragiten dieten tabakoaren industriaren ekintzen berri edukitzeko beharra (besteak beste, publizitatearen, sustapenenaren⁹ eta babesaren¹⁰ modu guztien inpaktuen aurkako borrokari buruzko alderdiak, tabakoaren kontsumoa sustatzeko

bereziko arrazagatik, erlijioagatik, ideologia politikoagatik edo egoera ekonomiko edo sozialagatik»; Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioan, Estatu Kideek «umeak ahalik eta osasun-maila altuenaz gozatzeko duen eskubidea» onartzen dute.

⁶ Honako hau adierazten da: tabakoaren mendetasuna nazioarteko gaixotasunen sailkapen nagusietan bilduta ez dagoen osasun-arazotzat hartzen da.

⁷ OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 1. a) artikulua honako modu honetan definitzen du *legez kanpoko merkataritza*: «legez debekatutako praktika edo jokabide oro, produkzioari, bidalketari, jasotzeari, edukitzeari, banaketari, salmentari edo erosteari dagokionez, baita jarduera hori erraztera bideratutako praktika edo jokabide oro ere».

⁸ OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 1. e) artikulua arabera, *tabako-industriak* «tabakoaren produktuen fabrikatzaileak, banatzaileak, handizkako merkatariek eta inportatzaileak hartzen ditu barnean».

⁹ Honako hau hartzen da *tabakoaren publizitatetat eta sustapentzat* (OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 1. c) artikulua): «merkataritza-komunikazio, -gomendio edo -ekintza oro, tabakoaren produktu bat edo tabakoaren erabilera zuzenean edo zeharka sustatzeko helburuarekin, efektuarekin edo izan dezakeen efektuarekin».

¹⁰ Honako hau hartzen da *tabakoaren babestzat*: «edozein ekitaldira, jarduerari edo indibiduoari egindako lankidetzaz modu oro, tabakoaren produktu bat edo tabakoaren erabilera zuzenean edo zeharka sustatzeko helburuarekin, efektuarekin edo izan dezakeen efektuarekin» [OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 1. g) artikulua].

helburuarekin). Hitzarmen honek aitortzen du tabakoaren kontrol hori burutzeko beharrezkoa dela beharrezko baliabide tekniko eta ekonomikoak edukitzea, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeetan eta trantsizio-egoeran dauden ekonomia duten herrialdeetan. Era berean, OMEk tabakoaren kontrolean eta Nazio Batuetako hainbat erakundetatik egindako borroka zabalduan eta Gobernu Kanpoko Erakundeen eta gizarte zibileko beste eragileen (tabakoaren industriarekin ez dute erlaziorik) lankidetzaz berezian lidergoa goraipatzen da. Gizarte zibileko beste eragileen artean honako hauek nabarmentzen dira: osasun-arloko profesionalak, emakume- eta gazte-elkarteak, ingurumenaren eta kontsumitzaileen defendatzaileak, etab.

OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren eta haren protokoloen helburua (3. artikulua) honako hau da: gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldiak tabakoaren kontsumoaren eta tabakoaren kearen eraginpean egotearen ondorio lazgarrietatik (osasun-, gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-arlokoak) babestea, Alderdi bakoitzak tabakoaren kontrolerako aplikatuko dituen neurri-esparru bat ematearen bitartez, tabakoaren kontsumoak eta tabakoaren kearen eraginpean egoteak modu jarraituan eta substantzialean irauteko helburuarekin. Adierazitako jomuga lortzeko helburuarekin, Alderdiak, besteak beste, honako printzipio hauen arabera gidatuko dira (OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 4. artikulua):

- Tabakoaren kontsumoaren eta tabakoaren kearen eraginpean egotearen osasun-ondorioei, izaera adiktiboari eta heriotza-mehatxuari buruzko *informazioa*, eta horrenbestez, hainbat neurri aplikatu behar dira (lege-gileak, exekutiboak, administratiboak edo beste batzuk) pertsona guztiei tabakoaren ketik babesteko.
- *Konpromiso politiko irmoa* arlo guztietan (nazioarteko, estatuko eta eskualdeko eremuan) sektore askotariko neurri integralei eta erantzun koordinatuei babesa emateko, honako hauetarako:
 - a) pertsona guztiak tabakoaren kearen eraginpean egotetik babesteko;
 - b) erretzen hastea aurreikusteko, erretzen uztea sustatzeko eta bultzatzeko eta tabakoaren kontsumoaren murrizketa lortzeko;
 - c) tabakoaren kontrolerako programak egiteko, abian jartzeko eta ebaluatzeko pertsona eta komunitate indigenen partaidetza sustatzeko neurriak hartzeko, betiere pertsona eta komunitate horien berezitasun sozialak eta kulturalak kontuan hartuz;
 - d) tabakoaren kontrolerako estrategiak egiten direnean, espezifikoki generoarekin erlazionatutako arriskuak kontuan hartzeko.

- *Nazioarteko lankidetz*a, bereziki *teknologien, ezagutzen eta finantza-arloko laguntzen transferentziarako, baita laguntza espezializatua emateko ere*, tabakoaren kontrolerako programa eraginkorrak ezarri eta aplikatzeko helburuarekin, tokiko alderdi kulturalak, sozialak, ekonomikoak, politikoak eta juridikoak kontuan hartuz.
- *Neurriak hartzea* (nazioarteko, nazioko eta eskualdeko eremuan), *tabakoaren produktuen kontsumoa murrizteko*, osasun publikoaren printzipioen arabera, tabakoa kontsumitzeagatik eta substantzia horren kearen eraginpean egoteagatik gaixotasunen, minusbaliotasun goiztiarraren eta heriotza-tasaren eragina aurreikusteko helburuarekin.
- *Erantzukizunarekin erlacionatutako alderdiak*¹¹, Alderdi bakoitzaren barneko legeriaren arabera.
- *Laguntza teknikoaren eta finantza-arloko laguntzaren garrantzia*, pertsonen (kultibadoreak, langileak) trantsizio ekonomikoari aurre egiten laguntzeko. Pertsona horien bizibideak eragin handia jasaten ari dira tabakoaren kontrolerako programen ondorioz garapen-bidean edo trantsizioan dauden ekonomiak dituzten herrialdeetan; hori guztia garapen iraunkorreko estrategia nazionalen testuinguru batean egin beharko litzateke.
- *Gizarte zibilaren partaidetza*, proposatutako helburua lotzeko funtsezko elementu gisa.

Hitzarmena sinatu duten Estatuak, Hitzarmenaren bitartez tabakoaren kontrolerako estatu osoko sektore askotariko plan eta programa integralak azaltzeko, aplikatzeko, aldian-aldian eguneratzeko eta berraztertzeko beharra dute, Hitzarmenaren xedapenekin eta atxiki diren protokoloekin bat etorritik (OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 5.1 artikulua).

Helburu horrekin, Alderdi bakoitzak, duen gaitasunaren arabera, baliabide ekonomikoak sortu edo indartu eta jarriko ditu tabakoa kontrolatzeko mekanismo koordinatzaile baterako, eta horrez gain, legegintza-arloko neurriak, neurri exekutiboak, administratiboak edota beste neurri eraginkor batzuk hartu eta aplikatuko ditu eta beste Alderdi batzuekin lankidetzan jardungo da tabakoaren kontsumoa, nikotinen adikzioa eta tabakoaren kearen eraginpean egotea prebenitu eta murrizteko politika egokiak egiteko (OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 5.2 artikulua). Estatuak, tabakoaren kontrolari buruzko

¹¹ Oso alderdi garrantzitsua da tabakismoaren aurkako borrokan. Geroago jorratuko da gai hori, 19. artikulua aipatzen denean.

beren politika publikoak aplikatzerakoan, adierazitako politikak babesteari ekingo diote, merkataritza-interesen edo tabako-industriak ezarritako beste interes mota batzuen aurka (OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 5.3 artikulua). Era berean, Alderdiek honako gai hauetan lankidetzan jarduteko konpromisoa hartu dute: a) neurriei, prozedurei eta arauetarako buruzko proposamenak egitea Hitzarmena aplikatzeko (OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 5.4 artikulua); b) gobernuen arteko nazioarteko eta eskualdeko erakundeekin lan egitea proposatutako jomugak lortzeko helburuarekin (OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 5.5 artikulua); c) finantza-baliabideak eskuratzea (OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 5.6 artikulua).

OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren estrategia ohiko eskema batean oinarritzen da: eskaria eta eskaintza murriztean eragitea. Eskaintza murrizteari dagokionez, batetik, prezio eta zergekin zerikusia duten neurriak daude, eta, bestetik, horiekin zerikusirik ez duten beste neurri txiki batzuk: tabakoaren kearen eraginpean egotearen aurkako babesa, tabakoaren produktuen edukia arautzea, tabakoaren produktuei buruzko informazioaren hedapena arautzea, tabakoaren produktuen paketatzea eta etiketatzea arautzea, jendearen hezkuntza, komunikazioa, prestakuntza eta kontzientziazioa, tabakoaren sustapena eta babesa, eta, azkenik, eskaria murrizteko neurriak, tabakoaren mendetasunarekin eta tabakoa uztearekin zerikusia dutenak. Eskaintza murrizteak, berriz, honako hauei heltzen die: tabakoaren produktuen legez kontrako merkataritza, adingabeei eta adingabeek egindako salmenta, eta, azkenik, ekonomikoki bideragarriak diren jarduera alternatiboak bultzatzea. Jarraian eskariaren eta eskaintzaren murrizketari buruzko neurrien azterketa bat burutuko dugu.

2.1.1. ESKARIAREN MURRIZKETA

2.1.1.1. Prezioekin eta zergekin erlazionatutako neurriak (OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 6. artikulua)

Alderdiak ados daude prezioekin eta zergekin erlazionatutako neurrien eraginkortasunean, biztanleriaren sektore batek (batez ere gazteak) tabakoaren kontsumoa murrizteko neurri gisa. Tabakoaren kontsumoarekin lotutako osasun-helburuak lortzeko, Alderdiek honako neurri hauek hartu edo mantenduko dituzte: a) tabakoaren produktuei tributu-politikak aplikatzea eta, hala badagokio,

prezio-politikak; b) nazioarteko bidaiengatik zergarik gabeko edo aduana-eskubiderik gabeko tabakoaren produktuen salmenta edo inportazioa debekatu edo murriztea. Era berean, Alderdiek, Alderdien Konferentziari aldizkako txostenak egiterako garaian¹² aplikatutako zerga-tasen eta tabakoaren kontsumoen joeren berri emateko konpromisoa hartu dute.

2.1.1.2. Prezioekin erlazioa ez duten neurriak (OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 7. artikulua)

Alderdi sinatzaileak ados daude prezioekin erlazioa ez duten neurri integralen egokitasunaren inguruan, tabakoaren kontsumoen murrizketarako bitarteko eraginkor eta garrantzitsu gisa. Horregatik, legegintza-arloko neurriak, neurri exekutiboak, neurri administratiboak edo beste neurri eraginkor batzuk hartzeko eta aplikatzeko konpromisoa hartu dute, hurrengo idatz-zatietan aurre egiten zaien alderdiei dagokienez. Aldi berean, beste Alderdiekin lankidetzat sustatzen da –zuzenean edota nazioarteko erakunde eskudunen bitartez–, tabakoaren eskaria murrizteko prezioekin erlazioa ez duten neurrien inguruko helburuak betetzeko. Azkenik, Alderdien Konferentziari eskumena ematen zaio tabakoaren eskaria murrizteko eremuan arau egokiak proposatzeko.

a) Tabakoaren kearen eraginpean egotearen aurkako babesak (OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 8. artikulua)

OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenak argi eta garbi baieztatzen duenez, zientziak zalantzarik gabe egiaztatu du tabakoaren kearen eraginpean egotea heriotza-, gaixotasun- eta ezintasun-kausa dela. Horregatik, Alderdiek tabakoaren kearen eraginpean egotearen aurkako babesarentzat legegintza-arloko neurriak, neurri exekutiboak, neurri administratiboak edo beste neurri eraginkor batzuk honako espazio hauetan hartzeko eta aplikatzeko –barneko jurisdikzioaren eremuan, Estatuko legeriaren arabera– konpromisoa hartu dute: barneko lantokietan, garraio publikoetan, toki publiko itxietan eta beste toki publiko batzuetan. Horrez gain, neurri horiek beste maila jurisdikzionaletan aktiboki hartzeari eta aplikatzeari ekingo zaio.

¹² Hitzarmenaren aplikazioa aldi behin aztertzeke arduraren duen estamentua da. Estamentuaren zereginak OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 23. artikuluan azaltzen dira.

b) *Tabakoaren produktuen edukiaren araudia (OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 9. artikulua)*

Alderdien Konferentziak, nazioarteko erakunde eskudunekin kontsultatu ondoren, tabakoaren produktuen edukiaren eta emisioen azterketarekin eta neurketarekin erlazionatutako arauak eta eduki eta emisio horiek arautzeari buruzko ildoak planteatuko ditu. Helburu horrekin, Alderdi bakoitzak eskumeneko agintari nazionalak onartutako neurriak (legegintza-arloko neurriak, neurri exekutiboak, neurri administratiboak eta beste neurri eraginkor batzuk) hartu eta aplikatuko ditu, adierazitako azterketa eta neurketa horiek eta arautze hori gauzatzeko.

c) *Tabakoaren produktuei buruzko informazioaren hedapena arautzea (OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 10. artikulua)*

Alderdi bakoitzak aldeztu aurretik adierazitako neurriak hartu eta aplikatuko ditu, beren barneko legeriaren arabera, tabakoaren produktuen fabrikatzaileei eta inportatzaileei agintari eskudunek tabakoaren produktuen edukiaren eta emisioen berri ematea eskatzeko. Alderdiek tabakoaren produktuen osagai toxikoen inguruan eta tabakoak sor ditzakeen emisioen inguruan modu eraginkorrean jendea informatzeko konpromisoa hartu dute.

d) *Tabakoaren produktuen paketatzea eta etiketatzea (OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 11. artikulua)*

Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmena indarrean hasi zen unetik, Alderdi bakoitzak, herrialdeko barneko legeriaren arabera, hiru urteko denboraldia eduki du neurri eraginkorrak hartzeko eta aplikatzeko, honako helburu hauek lortze aldera:

- tabakoaren produktuen pakete eta etiketetan produktu mota horiek modu faltsuan, nahasian edo engainagarrian edo zalantza sortzeko moduan ez sustatzea, tabakoaren ezaugarriei, osasunaren gaineko ondorioei, arriskuei edo emisioei dagokienez, eta tabakoaren produktu batek besteak baino kalte gutxiago eragiten duenaren uste zalantzarria sortuz zuzenean edo zeharka ondorio bat izatea lortzen duten terminologia, elementu deskribatzaileak, markak eta ikurrak ez erabiltzea¹³;

¹³ Adibidez, honako esapide hauek: alkaterna-eduki txikia, edo arinak, edo ultrarinak, edo sua-beak.

- tabakoaren pakete eta ontzi guztietan, eta tabako-pakete eta -ontzien kanpoko paketatzean eta etiketatzean produktu horien kontsumoaren ondorio kaltegarriak deskribatzen dituzten ohar sanitarioak azaltzea¹⁴.

Tabakoaren produktuen pakete eta ontzi guztiak, aurreko paragrafoan azaldutako oharrez gain, tabakoaren produktuei eta emisioei dagozkien osagaiei buruzko informazioa edukiko dute, agintaritza nazionalak ezarritakoaren arabera.

e) *Jendearen hezkuntza, komunikazioa, prestakuntza eta kontzientziakuntza (OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 12. artikulua)*

Horretarako, ahalik eta komunikazioko tresna guztiak modu egokian erabilitea proposatu du Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenak. Legegintzarloko neurriak, neurri exekutiboak, neurri administratiboak eta beste edozein neurri eraginkor hartuta eta aplikatuta, honako hau sustatu nahi da:

- tabakoaren kontsumotik eta tabakoaren kearen eraginpean egotetik eratorritako osasunerako arriskuei buruzko –mendetasuna sortzeko duen gaitasuna barne– hezkuntza- eta kontzientziakuntza-programa integraletarako eta eraginkorretarako sarbide zabala;
- tabakoaren kontsumotik eta tabakoaren kearen eraginpean egotetik eratorritako osasunerako arriskuen kontzientziakuntza, baita kontsumoa uzteagatik eta tabakorik gabeko bizimoduengatik onuren kontzientziakuntza ere;
- tabako-industriari buruzko informaziorako sarbidea, Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren helburuarekin zerikusia duten gaiei dagokienez;
- beste gizakientzako erreferente bat izan daitezkeen pertsonen zuzendutako tabakoaren kontrolari buruzko prestakuntza- edo sentsibilizazio- eta kontzientziakuntza-programak¹⁵;
- sektore publikoaren eta pribatuaren eta tabakoaren industriarekin erlaziorik ez duten GKEen kontzientziakuntza eta partaidetza, tabakoaren kontrolerako programa eta estrategia intersektorialak egiterakoan eta aplikatzerakoan; eta
- tabakoaren produkzioaren eta kontsumoaren arloko aurkako ondorioei buruzko informazioa eskuratzea eta ezagutzera ematea.

¹⁴ 11. artikuluan biltzen denaren arabera, oharrak eta mezuak eskumenerako agintariek onartuko dituzte, txandakakoak, handiak, argiak, ikusgaiak eta irakurgarriak izango dira, eta irudiak edo piktogramak izan daitezke. Horrez gain, ikusgai dagoen azalera nagusiaren % 50 edo gehiago okupatu beharko dute (inolaz ere % 30 baino gutxiago).

¹⁵ Adibidez, osasun-eremuko profesionalak, gizarte-lanaren profesionalak, komunikazioko profesionalak, hezitzaileak, politiketako arduradunak, etab.

f) *Tabakoaren publizitatea, sustapena eta babesa (OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 13. artikulua)*

Tabakoaren produktuen kontsumoa murrizteko funtsezko estrategia bat tabakoarekin erlazionatutako publizitatea, sustapena eta babesa erabat debekatzea da. Horregatik, Alderdi bakoitzak, bere konstituzioaren arabera, tabakoaren publizitatea, sustapena eta babesa erabat debekatzeko konpromisoa hartu du. Alderdiek, era berean, legediaren eta eskuragarri dauden baliabide teknikoaren arabera, beren lurraldeetan sortutako mugaz bestaldeko publizitatea, sustapena eta babesa erabat debekatzeko konpromisoa hartu dute. Horrez gain, Alderdi bakoitzak bost urteko epea du Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmena indarrean hasten denetik legegintza-arloko neurriak, neurri exekutiboak, neurri administratiboak eta beste motako neurriak hartzeko, eta alderdi horiei buruzko aldizkako txostenak egingo dizkio Alderdien Konferentziari (Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 21.1, e) artikulua).

Hala ere, murrizketak praktikan jartzeko ahalmena ematen dio Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 13.3 artikulua erabat debekatzeko egoeran ez dagoen Alderdiari¹⁶ tabakoaren publizitatearen, sustapenaren eta babesaren arloan. Edonola ere, bere konstituzioaren eta printzipioen arabera, Alderdi bakoitzak gutxienez honako alderdi hauek betetzeko konpromisoa hartzen du:

- tabakoaren produktu bat modu faltsuan, nahasian edo engainagarrian edo tabakoaren ezaugarriari, osasunaren gaineko ondorioei, arriskuei edo emisioei dagokienez, zalantza sortzeko moduan sustatzen duen edozein publizitate, sustapen edo babes mota debekatzea;
- osasunaren arloko edo beste mota bateko ohar edo mezu bat egotea tabakoaren publizitatean, sustapenean edo babesean;
- tabakoaren produktuen erosketa sustatzeko gai diren zuzeneko edo zeharkako pizgarrien erabilera murriztea;
- dagokien agintariei tabakoaren industriari, oraindik debekatu ez den publizitatean, sustapenean eta babesean egin dituen gastuen berri eman dezala eskatzea;
- bost urteko epean erabateko debekua ezartzea eta, Alderdiak ezin badu helburu hori lortu arrazoi konstituzionalengatik, tabakoaren publizitatea,

¹⁶ Xedapen konstituzionalengatik edota konstituzioaren printzipioengatik.

sustapena eta babesa murrizteari ekingo dio irratia- ren, telebista- ren, baliabi- de inprimatu- en eta beste baliabide- en bitartez (Internet, etab.);

- arrazoi konstituzionalengatik ezin baditu tabakoarekin erlazio- natutako al- derdi horiek debekatu, nazioarte- ko ekitaldi- en eta jardueren edo parte- har- tzaile- en babesa murrizteari ekingo dio tabako- enpresei dagokienez. Obli- gazio horiek gainditzeko neurriak praktikan jartzera bultzatzen du Alderdi bakoitza Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenak.

Artikulu honetan aipatutako alderdi garrantzitsuetako bat tabakoaren pro- duktuen mugaz bestaldeko publizitatearekin erlazio- natuta dago. Publizitate horri aurre egiteko, Alderdi- ek teknologien eta beste baliabide batzuen garape- nean lankidetzan jarduteko konpromisoa hartu dute, publizitate hori desager- tzea errazteko helburuarekin. Era berean, Alderdi- ek beren herrialdean sartzen diren tabakoaren produktuen mugaz bestaldeko publizitatearen, sustapenaren eta babesaren hainbat modu debekatzeko eta zigortzeko eskumena dute. Azkenik, Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenak aurreikusi du Alder- diek nazioarte- ko lankidetzaren eskatzen duten neurri egokiak ezartzeko gai den protokolo bat egitea, mugaz bestaldeko publizitatea, sustapena eta babesa erabat debekatzeko.

g) *Tabakoaren mendetasunarekin eta tabakoa uztearekin zerikusia duten neurriak (OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 14. artikulua)*

Alderdi guztiek neurri eraginkorrak praktikan jartzeko konpromisoa hartu dute, tabakoaren kontsumoa uztea eta tabakoaren mendetasunarentzako trata- mendu egoki bat sustatzeko helburuarekin. Horretarako, zientzia- probetan eta praktika onenetan oinarritutako ildo egokiak, erabatekoak eta integralak egin eta hedatuko dituzte, estatu osoko zirkunstantziak eta lehen- tasunak kontuan hartuko diren testuinguru batean. Alderdi bakoitzak honako puntu hauei ekin beharko die:

- programa eraginkorrak diseinatu eta aplikatzea tabakoaren kontsumoaren uztea sustatzeko honako toki hauetan: irakaskuntza-erakundeak, osasun- zentroak, lantokiak eta kirol-inguruneak;
- tabakoaren mendetasunari buruzko diagnostikoa eta tratamendua eta ta- bakoa uzteari buruzko laguntza-zerbitzuak osasun- programetan, -planetan eta -estrategia nazionaletan sartzea;

- osasun- eta birgaitze-zentroetan tabakoaren mendetasunari buruzko diagnostiko-, laguntza-, prebentzio- eta tratamendu-programak edukitzea;
- beste Alderdiekin lan egitea tabakoaren mendetasunaren tratamenduen irisgarritasuna eta eskuragarritasuna errazteko helburuarekin (farmazia-produktuak barne).

2.1.2. ESKAINTZAREN MURRIZKETA

2.1.2.1. Tabakoaren produktuen legez kontrako merkataritza (OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Programaren 15. artikulua)

Tabakoaren kontsumoen aurka modu eraginkorrean borrokatzeko, Alderdiak kontziente dira tabakoaren produktuen legez kontrako merkataritza modu guztiak (kontrabandoa, legezko kontrako fabrikazioa eta faltsutzea) desagerrarazi behar direla. Horregatik, fenomeno horiei aurre egiteko joera izango duen legeria egiteko eta aplikatzeko konpromisoa hartu dute. Era berean, Alderdiek neurriak hartu eta aplikatuko dituzte (legegintza-arlokoak, exekutiboak, administratiboak edo beste neurri eraginkor batzuk) tabakoaren produktuen pakete edo ontzi guztiak eta produktu horien kanpoko paketatze guztiek ohar motaren bat eraman dezaten, Alderdiek produktuaren jatorria zehazteko aukera izateko eta horrenbestez, desbideratze mota horiek kontrolatzeko neurriak jartzen laguntzeko. Horrez gain, Alderdi bakoitzak honako alderdi hauek betetzeko konpromisoa hartu du:

- alderdiaren lurraldearen barruan tabakoaren produktu mota guztiek helmuga azaltzen den edota eskumeneko agintariei produktuen salmenta baimenduta dagoen edo ez jakiten lagunduko dien deklarazio bat¹⁷ edo bestelako jarraibide baliagarriren bat eraman dezatela eskatzea;
- banaketa-sistemari berme gehiago emango dizkion eta legez kontrako merkataritzaren azterketan lagunduko duen jarraipen- eta kokapen-erregimen praktiko bat egiteko aukera aztertzea.

Alderdiek beste gai batzuekiko konpromisoa hartu dute legez kontrako merkataritza mota hori ezabatzeko helburuarekin. Honela labur daitezke:

¹⁷ Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenak honako deklarazio hau proposatzen du: «Baimendutako salmenta bakarrik (herrialdearen edo unitate azpinazionalaren, eskualdeko unitatearen edo unitate federalaren izena sartu)».

- tabakoaren produktuen mugaz bestaldeko merkataritzaren jarraipena egi-tea, baita legez kontrako merkataritzaren jarraipena ere, datuak lortzeko eta erakundeen artean informazioa trukatzeko;
- legez kontrako merkataritza horren aurkako legeria aldarrikatu edo indar-tzea;
- produktu horiek guztiak konfiskatzen direnean suntsitu egiten dituztela ziurtatzeko neurriak hartzea;
- zergak eta eskubideak eteteko erregimenean beren jurisdizkioan dauden edo lekualdatzen diren tabakoaren produktuen biltegiratzea eta banaketa zaindu, dokumentatu eta kontrolatzeko neurriak hartu eta aplikatzea;
- legez kontrako merkataritza honetatik eratorritako onurak konfiskatzea ahalbidetzeko neurriak hartzea.

Aldi berean, Alderdi bakoitzak, dagokion barneko legeriaren arabera, nazioarteko erakundeen arteko eta dagozkion gobernuen arteko erakundeen (eskualdekoak eta nazioartekoak) arteko lankidetzeta sustatuko du, azterketei, auziperatzeei eta prozedura judizialei dagokienez, tabakoaren produktuen legez kontrako merkataritza ezabatzeko helburuarekin. Horrez gain, Alderdi bakoitzak neurri gehigarriak praktikan jarri ahal izateko aukera aurreikusten du Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenak, produktu horien produkzioa eta banaketa kontrolatzeko edo arautzeko, produktu horien legez kontrako merkataritza sai-hestea aldera.

2.1.2.2. Adingabeei eta adingabeek egindako salmenta (OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 16. artikulua)

Alderdiek neurriak (legegintza-arlokoak, exekutiboak, administratiboak, eta beste neurri eraginkor batzuk) praktikan jartzeko konpromisoa hartu dute, beren legeriak ezartzen dituen adingabeei edota 18 urte baino gutxiagokoei produktu horien salmenta debekatzeko. Alderdi horri dagokionez, Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenak honako neurri hauek zehaztu ditu:

- tabakoa saltzen duenari iragarki argi eta nabarmen batean –lokalaren ba-rruan– tabakoaren produktuak adingabeei saltzeko debekua adieraz deza-la eskatzea¹⁸;

¹⁸ Eroslearen adinari buruzko zalantzarik badago, erosleak adin-nagusitasuna frogatzea proposatzen da.

- salgai dauden produktu horiek zuzenean eskuragarri egoteko debekua;
- tabakoaren produktuen forma duen eta adingabeentzat erakargarria izan daitekeen edozein gozoki, mokadu, jostailu edo objekturen fabrikazioa eta salmenta debekatzea;
- tabakoa saltzeko makinak adingabeentzat eskuragarri egon ez daitezela bermatzea eta makina horiek adingabeei adierazitako produktuen salmenta susta ez dezatela.

Ilido beretik, Alderdi bakoitzak hartutako betebeharra dago biztanleriari oro har eta bereziki, adingabeei tabakoaren produktuen doako banaketa debekatzeko edo debekua sustatzeko. Era berean, Alderdi bakoitzak zigarro solteen edota pakete txikietako zigarroen salmenta debekatzen saiatzeko konpromisoa hartu du, bide horiei esker errazagoa baita adingabeei produktu horiek saltzea. Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmena sinatu duten Alderdiek, adingabeei tabakoaren produktuen salmenta galarazteari begira eraginkorragoak izateko, Hitzarmeneko beste xedapenekin batera neurriak praktikan jarri behar direla onartzen dute, hala badagokio. Era berean, Hitzarmen honetan neurriak hartzea eta aplikatzea aurreikusita dago. Neurri horien artean salmenta eta banaketako lanetan ari diren pertsonen zigorra jartzeko aukera sartzen da, baldin eta artikulua honetan hartutako obligazioak urratu badituzte.

Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenak, 16. artikuluan bertan, Alderdi bakoitzari edozein momentutan, deklarazio idatziaren bitartez, bere jurisdikzioaren barruan tabakoa saltzeko makinak sartzeari debekatzeko edo, hala badagokio, makina horiek erabat debekatzeko konpromisoa hartzeko aukera ematen dio.

Azkenik, Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 16. artikulua adierazten du Alderdi bakoitzak dagozkion neurriak hartu eta aplikatu beharko lituzkeela, barneko legerian edo estatu osoko legerian ezarritako adina baino gutxiago duten pertsonen edota 18 urte baino gutxiagoko pertsonen produktu horiek saltzea debekatzeko.

2.1.2.3. Ekonomikoki bideragarriak diren jarduera alternatiboak bultzatzea (OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 17. artikulua)

Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenak eskaintzaren murrizketaren arloan proposatutako azkeneko puntua honako hau da: Alderdiek beren artean eta gobernuen arteko erakundeekin lankidetzan jarduteko konpromisoa hartu dute,

langileentzat, kultibadoreentzat eta, noizean behin, tabako-saltzaile txikientzat ekonomikoki bideragarriak diren alternatibak sustatzeko helburuarekin.

Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmen honek, tabakoarekin erlazionatutako eskariaren eta eskaintzaren murrizketaren inguruan aipatu diren gaiak azpimarratzeaz gain, garrantzi handiko beste alderdi batzuk ere aipatzen ditu, besteak beste, ingurumenaren babesari, erantzukizuna, lankidetzaren teknikoak eta zientifikoa, eta finantza-baliabideak. Ingurumenaren babesari dagokionez (OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 18. artikulua), alderdiek beren herrialdeetan ingurumenaren babesari eta pertsonen osasunari behar bezalako arreta jartzeko konpromisoa hartzen dute, tabako-laboreari eta tabakoaren produktuen fabrikazioari buruzko ingurumenari dagokionez.

Erantzukizunarekin erlazionatutako gaiak «tabakoaren erabateko kontrolerako alderdi garrantzitsutzat» hartzen dira (OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 4.5 artikulua). Helburu hori lortzeko, Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 19. artikulua Alderdiei eskumena ematen die beren indarreko legeen legegintza-arloko edo sustapeneko neurriak hartzeko aukera kontuan har dezaten, behar izanez gero, erantzukizun penalaz eta zibilaz arduratzeko, konpentsazioa barne, hala badagokio. Alderdiei laguntza eskatzen zaie tabakoaren kontsumoak eta tabakoaren kearen eraginpean egoteak osasunean eragin ditzakeen ondorioei buruzko eta dagokien legeriari eta jurisprudentziari buruzko informazioaren trukean lankidetzan jarduteko. Aldi berean, Alderdiek, hitzartu dutenarekin bat etorriz eta Alderdiei dagokien legerien, praktika juridikoen eta indarreko itun aplikagarrien eremuan, elkarri lagunduko diote erantzukizun zibilari eta penalari buruzko prozedura judizialetan, Hitzarmen honen arabera. Era berean, aitortzen da Hitzarmenak ez duela inolako ondoriorik izango edozein Alderdi beste Alderdiaren Epaimahaietara sartzeko dituen eskubideetan, eskubide horiek dauden tokian, eta ez ditu eskubide horiek inolaz ere mugatuko. Azkenik, Alderdiaren Konferentziari erantzukizunarekin erlazionatutako alderdiak kontuan hartzeko duen gaitasuna onartzen zaio, horiek adierazitako alderdietara eta baliabide eraginkorretara egokitutako nazioarteko ikuspegiaren testuinguruan jarri Alderdiei laguntza emateko –hala eskatzen dutenean–, legegintza-arloan edo bestelako arlo batean, artikulua honekin bat etorriz (Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 19. artikulua).

Laguntza teknikoak eta zientifikoa, informazioaren komunikazioarekin batera Hitzarmenean bilduta azaltzen diren beste oinarritzko alderdietako batzuk dira. Informazioaren azterketari, zaintzari eta trukeari begira (Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 20. artikulua), Alderdiek honako konpromiso hauek hartu dituzte:

- estatuko ikerketak egitea eta sustatzea eta tabakoaren kontrolari buruzko ikerketa-programak koordinatzea;¹⁹
- tabakoaren kearen eta tabakoaren kearen eraginpean egotearen garrantziari, jarraibideei, baldintzei eta ondorioei buruzko zaintza-programak ezartzea;
- nazioarteko eta eskualdeetako gobernuen arteko erakundeen eta beste organo batzuen finantza-arloko laguntzaren eta laguntza teknikoaren garrantzia onartzea;²⁰
- jabari publikoko informazio zientifikoaren, teknikoaren, sozioekonomikoaren, komertzialaren eta juridikoaren trukea sustatzea eta erraztea, baita tabakoaren industriaren praktikei buruzko eta tabakoaren laboreari buruzko informazioa ere;²¹
- gobernuen arteko erakundeetan eta finantza- eta garapen-erakundeetan lankidetzan jardutea, Hitzarmeneko Idazkaritzari baliabide teknikoen eta finantza-baliabideen hornidura sustatzeko eta indartzeko helburuarekin, garapen-bidean edo trantsizioan dauden ekonomiak dituzten herrialdeetako Alderdiei laguntza emate aldera, informazioa zaintzeko, ikertzeko eta trukatzeko konpromisoak betearazteko.

Hitzarmena sinatu duten alderdiek honako gai hauei buruzko txostenak eta informazioaren trukea (Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 21. artikulua) aurkezteko konpromisoa hartu dute:

- legegintza-arloko neurriak, neurri exekutiboak, neurri administratiboak edo Hitzarmena aplikatzeko hartutako beste neurri batzuk;

¹⁹ Helburu hori dela-eta, Alderdi bakoitzak ikerketa eta ebaluazio zientifikoak bultzatuko ditu, horiekin lan egingo du eta tabakoaren kontsumoaren eta tabakoaren kearen eraginpean egotearen faktore determinatzaileak eta ondoriok biltzen dituzten azterketak eta labore alternatiboak identifikatzera jotzen duten azterketak bultzatuko ditu. Horrez gain, tabakoaren kontrolaren jardueretan parte hartzen duten pertsona guztiei bideratutako trebakuntza eta laguntza sustatu eta indartuko du, baita ikerketa, gauzatzea eta ebaluazioa ere.

²⁰ Horretarako, Alderdi bakoitzak tabakoaren kontsumoaren zaintza epidemiologikoaren eta lotutako gizarte-, ekonomia- eta osasun-adierazleen sistema bat ezarriko du. Era berean, gobernuen arteko erakundeekin lankidetzan jardungo da tabakoaren eskualdeko eta munduko zaintzan eta gizarte-, ekonomia- eta osasun-adierazleei buruzko informazioaren trukean. Era berean OME-rekin lankidetzan jardungo da tabakoarekin erlazionatutako datuen bilketa, azterketa eta hedapena definitzeko ildoan eta prozeduren elaborazioan.

²¹ Legeriaren eta legeria tabakoaren arloan aplikatzearen inguruan eguneratutako datu-base baten ezarpenaren eta mantentzearen bitartez, zaintza-sistema nazionalen eguneraketaren bitartez eta era berean, eskumeneko nazioarteko erakundeekin lankidetzan jardutearen bitartez munduko sistema bat ezarri eta mantentzeko, tabakoaren produkzioarekin eta fabrikazioarekin erlazionatutako informazioa eskuratu eta hedatzeko helburuarekin, Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren zat edota tabakoaren kontrolerako estatu-mailako jarduerentzat ondorioak dituzten bitartean.

- hitzarmenaren aplikazioan eta zailtasunak gainditzeko hartutako neurrien inguruan sortutako mugak eta oztopoak;
- tabakoaren kontrolerako jardueretarako emandako edo jasotako finantza-laguntza edo laguntza teknikoa;
- zaintza eta ikerketa, Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 20. artikuluan bilduta²² eta,
- beste alderdi garrantzitsu batzuk, besteak beste, zerga-tasak eta tabakoaren kontsumoen joerak (Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 6.3 artikulua), tabakoaren publizitatea egiteko, tabakoa sustatzeko edo babesteko modu guztien erabateko debekua edo murrizketa (Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 13.2 13.3 eta 13.4 d) artikulua), tabakoaren produktuen legez kontrako merkataritza deuseztatzea (Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 15.5 artikulua) eta azkenik, tabakoaren kontsumoak eta tabakoaren kearen eraginpean egoteak osasunean eragin ditzakeen ondorioei buruzko gaiak nahiz tabakoarekin erlazionatutako legegintza- eta jurisprudentzia-arloetako gaiak. Alderdiak legeria nazionalaren eraginpean jarriko dira txostenek eta informazioaren trukeak konfidentzialtasunaren eta pribatutasunaren arloan eskatutako baldintzak bete ditzaten.

Lankidetzeta zientifikoaren, teknikoaren eta juridikoaren helburua, baita *laguntza espezializatua ematearena* ere, Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 22. artikulua arabera, Hitzarmenetik eratorritako obligazioa betetzeko gaitasuna indartzea da. Hortaz, garapen-bidean edo trantsizioan dauden ekonomiak dituzten herrialdeen beharrak errespetatuz, jakintzen (tekniko, zientifiko eta juridiko espezializatuak eta teknologikoak) transferentzia sustatuko da, tabakoaren kontrolerako estrategia, plan eta programa nazionalak ezartzeko eta indartzeko helburuarekin, Hitzarmenaren testuan adierazitako irizpideen arabera.

Alderdiek jakin badakite finantza-baliabideen beharra dagoela (Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren 26. artikulua) Hitzarmenaren helburuak lortzeko. Horregatik, Alderdi bakoitzak Hitzarmenaren erronkak lortzera bideratutako beren barneko jarduerak finantzatuko ditu, bere planen, lehentasunen eta programa nazionalen arabera. Aldi berean, Alderdiek hainbat bide sustatzeko konpromisoa hartzen dute, garapen-bidean edo trantsizioan dauden ekonomiak dituzten herrialdeak diren Alderdien tabakoaren kontrolerako programa integral multisektorialen egitea eta indartzea finantzatzeko. Horretarako, alternatiba

²² Horiek aurreko paragrafoan aipatzen dira.

bideragarriak bildu eta lagundu beharko dira –ikuspegi ekonomikotik– garapen iraunkorreko estrategia nazionalen barruan, eta horien artean laboreen dibertsifikazioa dago. Azkenik, Alderdiek ordezkariak duten hainbat erakunde –eskaldeko eta nazioarteko gobernuen arteko erakundeak, baita finantza– eta garapen-erakundeak ere- bultzatuko dituzte garapen-bidean edo trantsizioan dauden ekonomiak dituzten Alderdiei finantziarioa emateko, Hitzarmenaren helburuak lortzeko laguntza emate aldera.

Laburbilduz, OMEren arabera negoziatutako lehenengo itun honek, Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren hitzaurrean adierazten den moduan, «aldaketa eredugarri bat adierazten du» eta «munduko joera bat markatzen du». Ebidentzia zientifikotik, tabakismoaren epidemiaren globalizazioari erantzuna eman nahi dio. Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren sarreran, tabakoaren fenomenoarekin erlazionatutako gaur egungo munduko egoera egoki laburtzen du: osasun publikoa lehentasunez babesteko eskubidetik, Alderdiek jakin badakite zeintzuk diren tabakoaren kontsumoaren eta tabakoaren kearen eraginpean egotearen osasun-, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-ondorioak eta ondorio horien inguruko kezka azaltzen dute garapen-bidean dauden herrialdeetan, adingabeetan, emakumeetan eta herri indigenetako kideetan. Hitzarmenean azaltzen den genero-ikuspegia ez da emakumeen, nerabeen eta neskatilen tabakoaren kontsumoen igoeragatik kezka adieraztera mugatzen, eta horrez gain, Hitzarmenak honako hau eskatzen du: «emakumeen partaide-tza osoa politikak formulatzeko eta aplikatzeko maila guztietan, baita generoaren araberrako tabakoaren kontrolerako estrategia espezifikoen beharra ere». Publizitatearen, sustapenaren eta babesaren modu guztien inpaktuaren aurka borroka egiteko beharra onartzen da. Era berean, Alderdiek jakin badakite tabakoaren multinazionalen Hitzarmen honen helburuak ahultzeko edo indargabetzeko presioa egin dezaketela. Horregatik, zentzu horretan edozein saiakuntza zaintzeko beharra onartzen dute.

Zalantzarik gabe, Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmena erreferente batean bilakatu da. Bertan honako hauek topa ditzakegu: erantzukizun-klausula (bertan legezko neurriak har daitezke erantzukizun penalaz edo zibilaz arduratzeko), ingurumenaren eta pertsonen babeserako ikuspegi ekologiko bat (tabakoaren laboreari eta produktu horien fabrikazioari dagokionez), lankidetzazientifikoko eta teknikoko mekanismoak, informazioaren trukea eta lortu nahi diren helburuetara iristeko baliabide ekonomikoak jartzeko beharrari buruzko erreferentziak.

Testuinguru positibo baten barruan, aproposa izango litzateke Tabakoren Kontrolerako Esparru Hitzarmenetik tabakoaren industriei beren produktuen

osagaien konposaketa zehatza adierazteko beharra eskatzea. Ez dago zalan-zarik maila horretako obligazio batek tabakoaren multinazionalen eta antzeko sektoreen kritika gogorrek ekarriko lituzkeela, besteak beste formularen zabal-tzeak beren merkataritza-interesak kalte ditzakeela arrazoituz. Villarbi-rekin (2004:386) bat gatoz honako hau adierazten duenean: «ezin da onartu zigarroetan ezkutuko osagaiak egotea». Nahiz eta tabakoa legez onartutako produktu bat izan, ezin da konparatu zigarroen ezkutuko formula eta *Coca Cola*-ren ezkutuko formula parekatzen dituen argumentazioa. Lehenengo kasuan, osasun-agintarien eta tabakoaren kea arnasten duten pertsonen (borondatez kontsumitzen dutenak edo ez –erretzaile pasiboak–) ezagutzarik gabe manipulatuak diren substantzien aurrean gaude, baina ondorio kaltegarri larriekin –osasunaren, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren eremuan–, ebidentzia zientifikotik azaldu den moduan. Horregatik, ezin da zeregin hori enpresa pribatuen esku utzi, esperientziak frogatu baitu enpresa pribatuek beren interes ekonomiko partikularrak biztanleriaren osasunaren gainetik jartzen dituztela. Osasun publikoan ondorioak dituzten substantzia jakin batzuei (adibidez medikamentuak) merkatura irten aurretik alde aurreko kontrol bat ezartzen bazaie, era berean, protokolo bat burutzeko aukera egongo litzateke tabakoaren produktu baten konposaketak pertsonen osasunean izan ditzakeen ondorioak ebaluatzeko.

Beren produktuen konposaketa zehatzaren berri emateko obligazioa, ondoren aipatuko dugun «Tabakoaren produktuak» *Zuzentaraua* berraztertzeari buruzko Europako Parlamentuaren proposamenarekin bat dator. Proposamen horren helburuetako bat mendetasuna sustatzen duten gehigarriak edo «be-rezko erreproduktzioarako edo pirolisi-kasuetan kartzinogenoak, mutagenoak edo toxikoak» direnak berehala debekatzea da.

Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmena arriskuak murrizteko eta kalteak saihesteko politiken barruan koka daiteke argi eta garbi, tabakismoaren fenomenoari aurre egiteko orduan eskaintzaren eta eskariaren eremutik.

2.2. EUOPAR BATASUNA

Hirurogeiko hamarkadaren erdialdetik aurrera, gaur egun Europar Batasuna osatzen duten hainbat Estatuk tabakismoa prebenitzeko neurriak hartu zituzten, tabakoak kontsumitzaileen osasunean sortzen zituen ondorioak argi eta garbi nabarmentzen hasi baitziren. Hala ere, esfortzu handienak isolatuak izan ziren, alderdien arteko gehiegizko koordinaziorik gabe eta horrenbestez, arrakasta oso mugatuak lortu ziren. 1985. urteko ekainaren amaieran, Milanen egin zen

Europako Kontseiluak, Italiako eta Frantziako presidentetek proposatuta –Craxi eta Miterrand–, minbiziaren aurkako borrokaren europar programa bat sortzeko premia aitortu zuen eta aldi berean, Europako Batzordeari minbiziaren aurkako Ekintza Plan bat elaboratzeko bidezko diren zereginak egiteko agindu zion. Calveteren ustez (2005:79), «hori da Erkidegoak hartu zuen lehenengo neurri garrantzitsua osasun publikoaren arloan eta bertan tabakismoaren aurkako ekintzak proposatu ziren». Testuinguru horretan, neurri indibidualak eta kolektiboak koordinatzeko gai den tabakoari buruzko politika bat hartzeko beharra nabarmendu zen, estatu-eremuan nahiz erkidego-eremuan. Hiru urte geroago, 1998. urteko azaroaren 7tik 11ra, *Tabakoaren politikari buruzko Europako I Konferentzia* egin zen Madrilan. Foro horrek mundu osoko adituak bildu zituen eta adituek tabakismoaren inguruan kontzientzia sortzeko eta tabakoaren kontsumoak murrizteko behar diren baliabideak jartzeko gai den politika bat zehazteko esperientziak eta baliabideak trukatu zituzten.

Tabakoa arnasten zutenen osasunarekiko tabakoak sortzen zituen ondorioak oso adierazgarriak ziren: Osasun eta Kontsumo Ministerioaren arabera, tabakoarekin erlazionatutako heriotzak 40.000 inguru dira. OMEko Lurralde Zuzendaritzaren Komunikazioko zuzendari Michel Danzon-ek Konferentzia aurkeztu zuenean honako hau adierazi zuen: «tabakoa biriketako minbizien % 90en, maskuriko minbizien % 30en eta ahoko eta goiko arnasbideetako minbizien ehuneko garrantzitsu baten arduraduna da; baita bronkitis kronikoen % 75en, birika-enfisemen eta miokardio-infartuen % 25en arduraduna ere»²³. Horregatik guztiagatik, OMEk Europan saihets daitekeen gaixotasunaren eta heriotza goiztiarraren kausa nagusizat hartzen zuen tabakoaren kontsumoa. Nahiz eta datu horiek aspalditik ezagunak izan, Danzon-ek bere kezka azaldu zuen, «oraindik ez baitago tabakoak eragiten duen kaltearen neurrigabetasunari buruzko kontzientzia osoa, erkidegoaren zati txiki batean izan ezik»²⁴. Konferentzia aurkeztu zen prentsaurrekoan bertan, Osasun eta Kontsumo Ministerioaren Osasun Plangintzaren zuzendari nagusiak tabakoaren kontsumoak emakumeengan izan duen igoera garrantzitsuari buruzko datuak eta adierazitako kontsumoetara geroz eta pertsona gazteagoen sartzeari buruzko datuak eman zituen.

1988. urtean Espainiako Gobernuko Osasun ministro zen Julián García Vargasek onartu zuen Estatu espainolean «toki publikoetan erretzeko lege-

²³ *El Diario Vasco* egunkaria, astelehena, 1988/10/31: «Tabakismoak 40.000 heriotza eragiten ditu urtean Espainian eta milioi erdi Europan».

²⁴ Michel DANZON: *El Diario Vasco* egunkaria, astelehena, 1988/10/31: «Tabakismoak 40.000 heriotza eragiten ditu urtean Espainian eta milioi erdi Europan».

debekua gutxi betetzen dela». Era berean, iragarri zuen bere Gobernuak «tabakoaren aurkako gizarte-politikaren babesari eta ezarpenari bultzada handi bat emango diola Europako Erkidegoko lehendakaritzatik»²⁵. Europako Erkidegoko lehendakariorde Manuel Marínek garatu beharreko erkidegoaren ekintza-ildoak zerrendatu zituen: etiketatzearen bateratzea, alkatarnaren gehienezko edukia mugatzea, gazteak babestea, toki publikoetan erretzea debekatzea, eta fiskaltasuna bateratzea²⁶. Ildo beretik, García Vargasek Europako gobernuen legeriak homogeneizatzaren alde egin zuen, ahalik eta modu zehatzenean honako printzipio hauen babesa ahalbidetuko duten alderdi guztiak biltzeko: tabakoaren osagaien kaltegarritasuna²⁷, tabakoaren osagai kaltegarriei buruzko informazio argia, talde sozial kalteberenei babes berezia eta azkenik, substantzia horiek sustatzeko tekniken kontrola: zuzeneko edo zeharkako publizitatea edota publizitate subliminala²⁸.

Espainiako eta Europako beste tokietako arduradun politikoek egindako deklarazioen arabera, *Tabakoaren politikari buruzko I. Europako Konferentzian* sentikortasun berezi bat ikusten da tabakoa kontsumitzen duten pertsonetikiko. García Vargasek erretzaileen eta ez-erretzaileen arteko errespetua defendatu zuen «diskriminatutako beste gizarte-talde berri bat» ez sortzeko eta adierazi zuen neurria «esku-hartze autoritarioengatik baino konbentzimenduagatik sartzearen» alde zegoela²⁹, toki publikoetan erretzeko lege-debekuari dagokionez. Antzeko iritzia zuen Manuel Marínek: «Europako Erkidegoak ez du pertsonen ohiturak halabeharrez aldatzeko inolako ahalegin inquisitorialik, nahiz eta ohitura horiek argi eta garbi osasunerako negatiboak izan, adibidez erretzeko ohitura». Horregatik, arduragabetasuntzat hartzen du «planteatzen duen erronka ez onartzea eta, erretzaileen askatasuna bermatu gabe, ahal den neurrian beren osasuna babesten duen, eta edonola ere, ez-erretzaileen osasuna babesten duen politika bat diseinatzeari uztea»³⁰.

²⁵ Espainiak Europako Erkidegoko lehendakaritza bere gain hartu zuen 1989. urteko urtarrilaren 1ean. MERCADO, F. (1988): «García Vargasek iragarri du tabakoaren aurkako politika bultzatuko dela Europako Erkidegoko Espainiako lehendakaritzatik». *El País* egunkaria, Gizartea, asteartea, 1988/11/08, 30. or.

²⁶ MERCADO, F. (1988): «García Vargasek iragarri du tabakoaren aurkako politika bultzatuko dela Europako Erkidegoko Espainiako lehendakaritzatik». *El País* egunkaria, Gizartea, asteartea, 1988/11/08, 30. or.

²⁷ Adibidez, alkaterna eta nikotina. Hala ere, osagai kaltegarrien gehienezko edukiak erregulatzeko ardura zuen EEEren zuzendaritza-proiektuak ez zuen nikotinaren edukia mugatu, osasunerako aurkako ondorioak dituen arren.

²⁸ COLPISA (1988): «Sofia erreginak 'tabakoaren ohitura arriskutsua' uztera gonbidatu zituen erretzaileak. *El Diario Vasco* egunkaria, asteartea, 1988/11/08, 18. or.

²⁹ F. MERCADO, op. cit.

³⁰ F. MERCADO, op. cit.

Europako Ekonomia Erkidegoaren alditik gaur egungo Europar Batasunera bitarte, hainbat Gomendio eta Zuzentarau idatzi dira osasunaren babeserako eta tabakismoaren kontrolerako ekintzak sustatzeko³¹.

2002. urteko irailean, OMEren Europako Eskualdeko Batzordearen bileran *Tabakismoaren Kontrolerako Europako Estrategia* itundu zen ebazpen baten bitartez, eta bertan, tabakoaren kontrolerako erreferentziazko esparru estrategiko bat ezarri zen. Aurreko hiru *Tabakorik gabeko Europa baterako Jardun Planetan* oinarritzen da³², plan horiei dagozkien ebaluazioekin, baita *Tabakorik gabeko Europa baterako Varsoviako Deklarazioan* ere³³. Deklarazio horren arabera, Tabakorik gabeko Europa baterako OMEren Europako Konferentzian parte hartu zuten Estatuetak ministroek eta kideek (badakite tabakoak oro har osasunarentzat duen arriskua zein den), honako konpromiso hauek hartu zituzten:

a) *Tabakorik gabeko Europa Baterako 4. Ekintza Plana* garatu eta hartzea, honako printzipio hauen arabera:

- Tabakoaren kontrolerako neurriak gure lehentasunetako batzuk dira.
- Tabakoaren epidemiari aurre egitea oso garrantzitsua da pertsonen osasunerako, batez ere adingabeen eta gazteen osasunerako. Biztanleriaren sektore horiek behar bezala informatuta egon behar dute tabakoaren kontsumoaren izaera adiktiboaren eta legalaren inguruan.
- Beharrezkoa da tabakoaren erabilera murrizteko politika zehatza martxan jartzea, eta honako alderdi hauek hartuko dira kontuan horietan: zerga altuak, publizitatea debekatzea, tabakoaren kearen eraginpean borondatez ez egotearen aurkako babesa, erretzeari uzteko programe-tarako sarbidea eta kontrol zorrotzak kontrabandoaren eremuan.
- Prebentzioko lanak adingabeetan, emakumeetan eta kolektibo kaltebe-retain zentratu behar dira.
- Beharrezkoa da tabakoaren laboreekiko jarduera ekonomiko alternati- boak sustatzea.
- Generoaren gaiak tabakoari buruzko politiketan egon behar du.

b) Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmen bat egiteko laguntza eska- tzea eta Estatu kideak honako zeregin hauek egitera behartzea:

³¹ Alderdi horien inguruan gehiago sakontzeko: Calvete (2007) eta Europako Erkidegoetako Batzordeak (2007:10).

³² 1987. urtetik 2001. urtera bitarte.

³³ 2002. urteko otsailaren 18an eta 19an egin zen.

- Osasun publikoaren babesa eta Hitzarmenaren garapenerako ekarpena lehenestea.
 - Tabakoren kontrolerako neurri integratuak eta tabakoaren epidemiari nazioarteko baterako erantzun bat sortzeko lan egitea.
- c) Estatu kideak eta gobernuen arteko erakundeak tabakoaren kontrolerako elkarte bat sortzera bultzatzea:
- Gobernuen arteko mekanismo baten sorkuntzarekin informazio tekniko, zientifikoa eta legala trukatzeko.
 - Europar Batasuneko tabakoaren arloko politikak egokitzea. Politika horiek beren arrakasta egiaztatu duten programen esperientzian oinarrituta daude.
 - Trantsizioan dauden ekonomiak dituzten Estatuari laguntza erraztea.
 - Gizartearen segmentu guztiak inplikatzeko esfortzuak burutzea.
- d) OMEren zuzendariari honako hau eskatzea:
- Estatu kideen laguntzari lehentasuna ematea tabakoaren kontrako politiken garapenerako.
 - 4. *Ekintza Planaren* garapenean jarraitzea.
 - Ekialdeko Estatuari laguntzea beharrezko laguntza lortzeko, Estatu horietako arazoaren ondorioekin bat eginez.
 - Estatu kideen, gobernuen arteko erakundeen eta gobernu kanpoko erakundeen arteko lankidetzat erraztea.
 - Patroien estandarizazio- eta zaintza-sistemak eta tabakoaren erabileraren ondorioak hobetzea eta helburu horrekin finantza-baliabideak mobilizatzea, bereziki trantsizioan dauden ekonomiak dituzten Estatuentzat.

Ekintzarako helburuak eta esparru estrategikoa oinarrian bat datoz Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenean adierazitakoekin. Orain urtebete baino gehixeago, Europako Parlamentuak, tabakismoaren prebentziorako politikak areagotzeko ahaleginean, honako alderdi hauek agindu zizkien Estatu kideei³⁴:

- Bi urteko epean, lantoki itxi guztietan erretzeko erabateko debekua ezartzea, jatetxeak barne, baita EBko eraikin eta garraiobide publiko itxi guztietan eta haur-parke publiko guztietan ere.

³⁴ (*Europa al Día buletina*, 2007ko urria, 238. zenbakia).

- EBn saldutako tabakoaren produktu guztietan «ohar berri handiagoak eta deigarriagoak» nahitaez txertatzea. Abisu horiek guztiek harremanetarako helbide argiak eduki behar dituzte erretzaileei erretzen uzten laguntzeko.
- Europako Batzordeak tabakoaren eta itsumenaren arteko harremanari heletzea, hainbat ikerketa zientifikok behar bezala frogatu dutelako tabakoaren kontsumoak ikusmen-galera dakarrela berekin.

Era berean, honako neurri osagarri hauek proposatu zituen:

- Indarreko arauak berraztertzea. Europako Parlamentuaren Osoko Bilkurak lege-proposamen berriak sartzeko aukera aztertzeke eskatu zion Batzordeari, eta, horren haritik, honako proposamen hauek egin zituen:
 - EB osoan, garraio pribatuan tabakoaren erabilera debekatzeta, adingabeen aurrean.
 - EBn, 18 urtez azpiko gazteei tabakoaren produktuak saltzea debekatzeta.
 - Saltokietako autozerbitzu-apalategietatik tabakoaren produktuak kentzea.
 - Gazteei tabakoaren produktuak urrunetik (Internet bidez, esaterako) saltzeko aukera galaraztea, eta Estatu kideak tabakoaren produktu guztien gaineko zerga ezar dezaten bultzatzea, inflazioaren eraginik gabe.
- Europako Parlamentuak honako hauek ere azpimarratu zituen:
 - «Tabakoaren produktuak» Zuzentaraua berraztertzea, eta mendetasuna sustatzen duten osagarriak edo «berezko erreprodukziorako edo pirolisikasuetan kartzinogenoak, mutagenoak edo toxikoak» direnak berehala debekatzeta. Era berean, produktoreei, tabakoaren kontsumoaren ondorioz sortutako kostu sanitario guztien finantziazioa beren gain hartzea eskatzen die.
 - Zigarro-paketeetan alkaternaren, nikotinaren eta karbono-monoxidoaren edukiak inprimatzeko betebeharra bertan behera uztea, «gaur egun erretzaileei konparazio-oinarri okerra dakarkiola aintzat hartuta».

Aurreikustekoa da Europar Batasunean martxan jarriko diren tabakismoari buruzko politikak aipatutako Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenean, *Tabakorik gabeko Europa baterako Ekintza Planetan*, eta tabakoaren arloan gaur egungo politika indartzeko joera duten neurri horietan oinarritzea.

Joan den urtearen hasieran *Tabakoaren kerik gabeko Europa baterantz: aukera politikoak EBren eskalan* deituriko *liburu berdea* aurkeztu zen (Europako

Erkidegoen 2007. urteko Batzordea), kontsulta-prozesu zabal bati eta Europar Batasuneko erakundeen, Estatu kideen eta gizarte zibilaren arteko eztabaida publiko eta ireki bati ekiteko helburuarekin.

2.3. ESTATU ESPAINOLA

La aurreko mende guztian, Estatu espainolak «tabakoaren industria nazionalaren eta multinazionalaren babeserako politika ireki» bat jarri zuen martxan, «fiskalitate baxu bat mantenduz, tabakoaren eskaintzaren (nazionala eta inportaziokoa) zabalkuntza esponentziala erraztuz, prezioen eta sustapenaren inguruko merkatazea onartuz (tabakoaren prezioa eta sustapena geroz eta sofistikatuagoak dira), baita saltokien gehikuntza ere. Tabako-saltokien kopurua beste edozein legezko droga bat banatzeko baimendutako saltokien kopurua baino askoz ere handiagoa da (Salvador-Llivina 1998:168 eta hurrengoak). Hala ere, duela bi hamarkada baino gehiagotik hona Administrazioen (zentrala, autonomikoak eta tokikoak) eta kolektibo profesionalen esfortzu ezberdinak ikusten dira, baita gobernuz kanpoko erakundeen esfortzuak ere, tabakismoaren fenomenoari aurre egiteko. Estatu espainolean tabakismoaren prebentzioaren arloko politikak ezagutzeko helburuarekin, beharrezkoa da *Tabakismoaren Prebentziorako eta Kontrolerako Plan Nazionalari* eta Drogei buruzko Plan Nazionalari erreferentzia egitea.

Lehenengoak nazioarteko (Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmena...) eta Europar Batasuneko (Tabakismoaren Kontrolerako Europako Estrategia, gai horrekin erlazionatutako hainbat Zuzentarau eta Gomendio...) esparrua kontuan hartzen du den jardunerako. Tabakoaren Prebentziorako eta Kontrolerako Plan Nazionalaren helburua Administrazioen arteko bateratzeko aukera lortzea da tabakismoaren kontrolari eta prebentzioari orokorki aurre egiteko, eskumenen sakabanaketa, egindako ekintzen hedapen sistematiko eskasa, garrantzia handiko osasun publikoko arazo bati aurre egiteko eskuragarri dauden baliabideen falta, tabakismoaren kontrolerako jarraipen- eta ebaluazio-irizpide batzuen homogeneotasunik eza, edo tabakoaren salmenta, kontsumoa eta publizitatea erregulatzen duen araudia betetzearen jarraipen eraginkor bat egiteko zailtasunak saihestuz.

Tabakismoaren Prebentziorako eta Kontrolerako Plan Nazionalaren printzipioak jarraian azaltzen diren idatz-zatietan laburtzen dira:

- Erakunde-konpromiso bati erantzuten dio.
- Osasun-agintariak izango dira Planaren buru eremu honetan garatzen diren ekintza guztiak sustatu eta koordinatzeko.

- OMEren eta EBren nazioarteko orientazio eta estrategietan oinarritzen da.
- Gaiaren ikuspegi global bat du, sektore arteko lankidetzaz sustatzen du eta mailaz mailako neurriak ezartzen ditu ezberdintasunak murrizteko.
- Osasuna, bizi-kalitatea eta gizarte-arloko partaidetza sustatu nahi ditu.

Tabakismoaren Prebentziorako eta Kontrolerako Plan Nazionalak honako hiru helburu orokor hauek ditu: Tabakoaren prebalentzia murriztea, biztanleriaren osasuna tabakoaren keak kutsatutako airetik babestea eta azkenik, koordinazioa eta partaidetza bultzatzea.

Lehenengo helburu orokorrari dagokionez, hau da, tabakoaren prebalentziaren murrizketa, honako helburu espezifiko hauek proposatzen ditu: erretzaile berriak gehi daitezela saihestea³⁵, tabakoa kontsumitzen hasteko adina atzeratzea³⁶, eta tabakoaren mendetasunaren uzteko aukera erraztea³⁷.

Bigarren helburu orokorrak, hau da, biztanleriaren osasuna tabakoaren keak kutsatutako airetik babestea, honako helburu espezifiko hauek ditu: biztanleria tabakoaren keak kutsatutako airearen eraginpean egotetik saihestea³⁸, kerik gabeko guneak indartzea³⁹, ez erretzearen gizarte-araua sustatzea⁴⁰.

Hirugarren helburu orokorra lortzeko, hau da, koordinazioa eta partaidetza bultzatzea, helburu espezifikoak erakundeen, sektore arteko eta nazioarteko koordinazioan eta gizarte-partaidetzan oinarritzen ziren.

Helburu bakoitzak dagozkion jardun eta estrategiak dauzka *Tabakismoaren Prebentziorako eta Kontrolerako Plan Nazionalen* adierazitako helburuak lortzeko.

Era berean, *Tabakismoaren Prebentziorako eta Kontrolerako Plan Nazionalak*, bere egitura, zereginak eta baliabideak deskribatzen ditu. Plan hau Osasun eta Kontsumo Ministerioaren mende dago organikoki eta funtzionalki. Planaren egitura eta funtzionamendurako aurreikusi da Estatuko Administrazio Orokorrak

³⁵ 2007. urterako, 16-24 urteko erretzaileen ehunekoa 6 puntu gutxiagotzea lortu nahi da, erretzaileen ehunekoa % 36tik behera geratuz.

³⁶ 2007. urterako, tabakoa kontsumitzen hasteko batez besteko adina 14. urtetara atzeratu beharko litzateke.

³⁷ 2007. urterako, tabakoaren kontsumoa utzi duten erretzaileen ehunekoa gutxienezko 6 puntu handituko da, % 23 gaindituta.

³⁸ 2004. urterako eremu publiko guztietan tabakoaren kontsumoa erregulatzeko araudia garatu nahi zen. Gai horren legeak ez ziren 2005. urteko abenduan barrena sartu arte egin.

³⁹ 2005. urterako, gutxienez enpresen % 70ek kerik gabeko guneak edukitzea espero zen.

⁴⁰ 2005. urterako, biztanleriaren % 75ek beren ingurune sozialean tabakoa gutxiago onartzen dela kontuan hartzea lortu nahi zen.

tabakoaren produktuen zerga bereziek bildutakoaren ehuneko bat ematea.⁴¹ Era berean, Autonomia Erkidegoek urtean gutxienez 0,25 euro per capita eskainiko dizkiote tabakismoaren prebentzioari eta kontrolari.

Planaren azkeneko zatia informazio- eta ebaluazio-sistemari eskainita dago, eta bertan, egin beharreko ebaluazio motak eta erabili beharreko adierazleak aurreikusten dira.

Duela gutxi Espainiako tabakismoaren atentzio sanitarioari buruzko adostasun-dokumentu tekniko bat argitaratu da (Tabakismoaren Prebentzioko Batzorde Nazionala, 2008) eta bakarrik izaera teknikoa eta zientifikoa du. Adostasun-dokumentuaren helburua gida orientagarri gisa balioko duen tabakismoaren arloko laguntzari buruzko kalitatezko oinarriko proposamen bat adostea da. Tabakismoaren arazoaren tamainaren azterketa labur bat egin ondoren –bertan, OMEren, Munduko Bankuaren eta Europar Batasunaren ekarpenak biltzen dira, eta era berean, nazioarteko erakundeetatik datozen irizpideen arabera, tabakismoaren prebentzioari buruzko egungo legea onartzeak ekarri duen aurrerapena onartzen da–, honako hauek aipatzen dira dokumentu teknikoko helburu gisa:

- tabakismoaren arloko laguntza-estrategia bati erantzunak ematen dizkion beharrak aztertzea;
- tabakismoaren arloan dauden laguntza-aukeren eraginkortasuna berraztertzea;
- laguntza-politikek erretzaileen ehunekoaren murrizketan duten inpaktuaren inguruan eskuragarri dagoen ebidentzia laburtzea;
- Espainian kalitatezko laguntza-jardunak orientatzea ahalbidetuko duten gutxienezko oinarri batzuk adostea.

Erretzaileentzako kalitatezko laguntza-erantzunen abiaraztea justifikatzeko erabilitako arrazoi nagusiak honako modu honetan laburtzen dira:

- tabakismoa mendetasun-arazo bat eta gaixotasun kronikotzat hartzen da;
- tabakismoak gizarte-desberdintasunak handiagotzen ditu osasunaren arloan;
- tabakismoa genero-desberdintasunak handiagotzen ditu osasunaren arloan;
- gaur egun tratamendu eraginkorrak daude erretzeari uzteko;

⁴¹ Lehenengo urtean, Osasun eta Kontsumo Ministerioak 3,6 milioi euro emateko konpromisoa hartu zuen.

- erretzeari uzteko laguntza ematea kostuari eta eraginkortasunari buruzko jarduera bat da,
- laguntza-jardunek gainerako prebentzio- eta kontrol-neurriak osatzen dituzte.

Alor sozio-sanitarioko profesionalek adostutako gutxieneko komunak (hainbat administrazioetatik –hala nola zentrala, autonomikoa eta tokikoa–, elkargo profesionaletatik eta gobernuz kanpoko erakundeetatik etorriak) Estatu espainoleko tabakismoaren arreta sanitariorako, honela zehazten dira:

- Kostuari eta eraginkortasunari buruzko irizpideetan oinarrituta egotea.
- Erretzeari uzteko laguntza Lehen Mailako Arretaren eta Arreta Espezializatuen zerbitzuen karteran (ospitalekoa, osasun mentalaren zerbitzuak, droga-mendetasunaren arretaren zerbitzuak, etab.).
- Oinarrizko esku-hartze protokolo bat edukitzea, herri-administrazioen eta elkarte zientifikoen artean adostua, esku-hartze maila guztietarako: erki-degoarena, lehen mailako arreta, arreta espezializatua, tabakismoaren unitate espezializatuak, telefono-zerbitzuak, Internet bidezko tratamendu-programak, teknologia berriak.
- Bideratzeko irizpide argi batzuk sartzea Lehen Mailako Arretatik beste irizpide espezializatu batzuetara.
- Osasunaren arloko arrisku-irizpideak, zuzentasun-irizpideak, genero-desberdintasunaren arretarako irizpideak eta biztanleria-estalduraren irizpideak kontuan hartzea tabakismoaren tratamendu intentsiboa eskaintzen duten baliabideak definitzeko. Tratamendua gai da baliabide horien estaldura gaur egun arretarik ematen ez zaien eremu geografiko handietan ziurtatzeko eta eremu espezifikoetan kontzentratutako eskaintzen bikoiztasuna saihesteko.
- Laguntza-baliabideen hedapen publikoa sustatzea. Aldizkako zabaltze-kanpainak barne, bereziki gizarte-sektore behartsuenei eta osasun-arrisku handia duten taldeei zuzenduta, baita osasunaren eta hezkuntzaren eremuko eredu kolektibo ere.
- Aurrekontu-eraginkortasunaren eta baliabide-sinergiaren irizpideak kontuan hartzea dagoeneko badauden programak aprobetxatzeko telefono bidezko tabakismoaren tratamenduaren eremuan, baita programen arteko bideratze-ibilbidea definitzea ere.
- Erkidego-irismen handiko programen lurralde-laguntza eta hedapena kontuan hartzea (adibidez, *Tabakorik gabeko Munduko Eguna*, *Kerik gabeko*

astea, etab.). Ekimen horiek tabakismoa uztearen hedapenari laguntzen diote nazioko, autonomia-erkidegoko eta herriko komunikabideetatik.

- Erregistro-sistema eta prestazioen ebaluazio konparagarriak, eraginkorrak eta iraunkorrak garatu eta funtzionamenduan jartzea, Tabakismoaren Prebentzioko Behatokiak ematen duen esparruaren bitartez, tabakismoaren tratamenduaren politika orokorraren ebaluazioa errazteko eta azaldutako baliabideen eraginkortasuna hobetzeko gai diren informatutako erabakiak hartzeari laguntzeko helburuarekin.
- Beren eraginkortasuna eta segurtasuna frogatu duten tabakismoaren osasun-arretako terapien (psikologikoa edota farmakologikoa) finantzaketarako mekanismo egonkor eta iraunkorren garapenean aurrera egitea.
- Tabakismoaren tratamenduan prestakuntza profesionala bultzatu eta sustatzea, Osasun Sistema Nazionala osatzen duten profesionalen prestakuntza jarraituaren programa zabal baten bitartez. Programa horrek, osasun kontseiluaren orokortzea ziurtatzen ahalbidetuko luke erretzeari uzteko, baita baliabide espezializatuak handitzeko eta hobetzeko ere.

1985. urtean Drogen Plan Nazionala sortu zen (DPN), hau da, drogen arloan herri-administrazioetatik eta gizarte-erakundeetatik burutzen diren politikak koordinatzera eta indartzera bideratutako erakunde-arloko ekimen bat. Gaur egungo *Drogei buruzko estrategiak (2000-2008 denboraldia)* onartzen du DPNk droga-kontsumoen gaiari ekiten diola ikuspegi global batetik, eta horrenbestez, tabakoa barnean hartuta dago.

Adierazitako estrategiaren azterketak Estatu espainoleko tabakoaren inguruko politiketara hurbiltzea ahalbidetzen digu⁴². *Drogei buruzko Estrategia Nazional* honek DPN berriz zehazteko beharra planteatzen du, esku-hartze koherente baten eredu baterantz kontsumoen errealitatearekin eta kontsumoen ondorioekin egokitzeko helburuarekin. Jakin badakite *biztanleriak nabaritzen dituen premiak* eta DPN martxan jarri zenean zeuden premiak berdinak ez direla eta, horrez gain, denbora horretan egindako lan bat dago. Lan horrek jakintzak, esperientziak eta adostasun politikoa pilatzeko balio izan du droga-mendetasunaren arloko esku-hartzean. Hori guztia Administrazio zentraletik, erkidegoko administrazioetatik eta tokiko administrazioetatik egindako ekarpenengatik egin ahal izan da, baita eremu honetan lan egin duten gobernuz kanpoko erakunde askok egindako ekarpenengatik ere.

⁴² Abenduaren 17ko 1911/1999 Errege Dekretuak drogei buruzko estrategia onartu zuen 2000-2008 denboraldirako.

Drogei buruzko Estrategia Nazionalak (2000-2008) tresna koordinatzaile bat izan nahi du drogen fenomeno soziala osatzen duten alderdi ezberdinetan esku hartzeko, eta honako idatz-zati hauetan egituratzen da:

- Egoeraren azterketa.
- DPNaren garapena eta lorpen nagusiak.
- Estrategia Nazionalaren jomugak eta helburuak.
- Esku-hartze alor espezifikoak.
- Arau-esparrua.
- Ikerketa eta prestakuntza.
- Drogei buruzko Estrategia Nazionalaren zereginak eta organoak.
- Ebaluazioa eta informazio-sistemak.
- Finantzaketa.

Estrategia horren jomuga nagusien artean prebentzioa alderdi horiei aurre egiteko garrantzia gehien duen estrategia gisa lehenesteko premia dago, di-bertimendutik sortzen diren kontsumoak kontuan hartuz, hau da, alkohola eta tabakoa. Esku-hartze eremu espezifikoaren artean, eskariaren murrizketaren eremuan, tabakoa eskola-eremuan⁴³, lan-eremuan⁴⁴ eta osasun-eremuan⁴⁵ aipatzen da. Tabakoari erreferentzia egiten dioten drogen kontsumoen prebentzioarekin erlazioatutako helburu orokorrak –eskariaren murrizketaren eremuan– honako hauek dira:

- biztanleriari tabakoaren, alkoholaren eta beste substantzia batzuen kontsumoaren arriskuei buruzko nahikoa informazio eskaintzea;
- ikasleen gehiengoak, derrigorrezko hezkuntza bukatzerakoan, drogen erabileraren eta neurrigabekeriaren ondorioei buruzko nahikoa informazio objektiboa eta prestakuntza egokia jaso dezala lortzea eta trebetasunak, eskumenak eta gaitasunak eskura ditzala lortzea drogekiko duten harremanari modu eraginkorren hartzeko;

⁴³ Beharrezkoa da irakasleen zereginak prebentzio-materialen laguntza edukitzea. Material horiek ikasleen bilakaera-etapara egokituta egon behar dute, eta tabakoaren, alkoholaren eta agindu gabeko medikamentuen kontsumoan izan behar dute eragina.

⁴⁴ Datu epidemiologikoen arabera, langileen tabakoaren eta alkoholaren kontsumoak, oro har, biztanleriaren batezbestekoaren gainetik daude. Horregatik, hasiera batean instituzionalizatutako substantzien prebentziora bideratuta dauden esku-hartzeen eta prebentzio-programen egituraketa aurreikusten da lan-eremuan, beste substantziak ahaztu gabe.

⁴⁵ Eremu horretako prebentzioa osasunaren hezkuntzara eta tabakoaren, alkoholaren eta legez kontrako kontsumoarekin erlazioatutako arazoak garaiz detektatzera (langile sanitarioen birtartez) bideratuta egongo da.

- adingabeak babestuko dituzten tabakoaren eta edari alkoholduen publizitatea eta sustapena kontrolatzeko neurriak martxan jartzea;
- tabakoaren, alkoholaren eta ilegalizatutako drogen kontsumoarekin erlacionatutako arazoan diagnostiko goiztiarraren programak eta protokoloak garatzea Osasunaren Lehen Mailako Arretarako Ekipoetan.

Kalteen murrizketa *Drogei buruzko Estrategia Nazionalean (2000-2008)* eskeriaren murrizketa beste zati baten moduan aurreikusten da, prebentzioarekin eta gizarte-laguntzarekin eta gizarteratzearekin batera. Saihestu ezin diren eta kontsumitzaileei, gertukoei eta oro har gizarteari kalteak eragingo dizkien drogen erabilera problematikoen aurrean, kontsumo mota horiek sortutako kalteak murriztera bideratutako esku-hartzeak burutu nahi dira, batez ere gizarte- eta osasun-gaietan. Horregatik, kalteak murrizteko eremuko helburu orokorren artean, oro har biztanleriaren artean tabakoaren, alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoagatik kaltea murrizteko joera duten osasun-hezkuntzako programen ezarpena dago⁴⁶.

Gizarte-laguntza eta gizarteratzeak era berean tabakoaren mendetasunetik eratorritako tratamendura bideratutako programak hartu behar ditu barnean. Horregatik, helburuen artean tabakoaren eta beste droga batzuen kontsumoarekin arazoak dituzten pertsonen terapia bidezko tratamendua hobetzeko estrategia-aren gehitzea biltzen da.

Arau-esparruaren barruan, legezko merkataritzaren drogen sustapenaren eta eskaintzaren kontrola hartuko da kontuan. Arau-esparruaren helburuen artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- prebentzioko eta laguntzazko neurriak antolatzen, koordinatzen eta hobetzen bideratutako drogei eta droga-mendetasunei buruzko estatu osoko legeei eta lege autonomikoei buruzko idazketa eta promulgazioa bultzatzea (helburu operatiboen artean tabakoaren eta edari alkoholduen publizitatearen eta sustapenaren mugen antolamendua eta adierazitako substantzien salmentaren eta kontsumoaren mugak hartzen ditu barnean);
- udalen eta gainerako tokiko erakundeen partaidetza arautu eta sustatzea droga-mendetasunen aurreko erakunde-erantzunean (2003. urterako,

⁴⁶ *Drogei buruzko Estrategia Nazionalean (2000-2008)* ustez, 2003. urtean, Plan Autonomiko guztiek eta Plan Nazionalerako Gobernuko Ordezkaritzak, oro har biztanleriari zuzendutako drogen kontsumoak, besteak beste tabakoak, sortutako kaltea murrizteko joera duten osasun-hezkuntzako ekintzak jarriko lituzkete martxan.

20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrri guztiek tabakoaren eta edari alkoholduen salmentari eta kontsumoari buruzko Udal Ordenantzak edukiko dituztela adierazi da, erkidegoko eta estatuko legeriaren testuinguruan).

Estatu espainolean, Administrazio zentralaz gain, era berean, beste Administra-zio batzuk (autonomikoak eta tokikoak) eta beste erakunde profesional eta gober-nuz kanpoko erakunde batzuk daude inplikaturako tabakismoaren prebentzioan⁴⁷.

Duela lau urte arte, tabakismoaren prebentzioaren aurkako politika ez hain eraginkorrak praktikan jartzen zituen Europar Batasuneko herrialdeen artean zegoen Estatu espainola ⁴⁸. Hilabete batzuk lehenago, *El País*⁴⁹ egunkariko edi-torial batean honako hau gogorarazten zuenez, Espainiako legediak tabakoaren arloan posizio kaskarra zuen eta «dagoeneko aplikatzekoak diren legeak ez betetzeko ahalmen handia» erakusten zuen. Era berean, Osasun ministroak au-rreko gobernuak adierazitako *Tabakismoaren Prebentziorako Plan Nazionalaren* berraztertze baten berri eman zuen, ez baitzuen behar bezalako finantziatorik. Azkenik, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Erakundearen salaketa jakinarazi zen, eta bertan adierazten zenez, erretzeko debekua osasun-zentroetan, erdi-mailako hezkuntzako institutuetan, kultura-etxeetan eta gaztetxeetan aurreiku-sitako *kerik gabeko guneak* deitutakoen % 75ean ez zen betetzen. Gaur egun, batez ere legezko aldaketen atzerapausoengatik, adierazitako egoera aldatzeko esfortzuak egiten ari dira.

2.4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, 80ko hamarkadan, tabakoa-rekin erlazionaturako hainbat gai landu zituen. Horrela, 1981. urtean, Eusko Jaurilaritzaren Osasun Sailak, DAKen bitartez⁵⁰, tabakismoaren kontrolari buruzko programa bat jarri zuen martxan. Era berean, droga-mendetasunen in-guruko prebentzioari, laguntzari eta gizarteratzeari buruzko azaroaren 11ko 15/1988 Legeak, substantzien kontsumoaren, salmentaren eta sustapenaren erregulazioarekin erlazionaturako hainbat gai biltzen zituen. Horietako gehienak gaur egungo droga-mendetasunen inguruko prebentzioari, laguntzari eta

⁴⁷ Gai horiei inguruan gehiago sakontzeko, *Tabakismoaren Prebentziorako Batzorde Nazio-nalaren* web-orri interesgarria ikus daiteke: <http://cnpt.es>.

⁴⁸ EFE (2007): «Espainiako tabakoaren aurkako politikak, Europako ez-eraginkorrenen ar-tean». *El País* egunkaria, asteazkena, 2004/10/12, 27. or.

⁴⁹ *El País* egunkaria, Editoriala, asteartea, 2004/06/01, 12. or.

⁵⁰ 1981. urtean, DAK sortu zen (Droga Arazoen Koordinakundea).

gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legean daude bilduta. Gai horiek legeriari buruzko idatz-zatian aztertuko dira.

Duela hogeit hamar urte, Droga-mendetasunen Erakunde Arteko Batzordeak (Eusko Jaurlaritzako Sail batzuek, aldundiek eta EAEko hiru hiriburuetako udalek osatutakoa) kanpaina bat aurkeztu zuen pertsoneri «tabakoa gainerako drogen moduko droga bat dela eta tabakoaren kontsumoaren aurrean gizarte-jarrera aldatu behar dela kontzientziazteko helburuarekin.»⁵¹. Aukeratutako legea «Ez baduzu erretzen, askoz ere hobeto» izan zen⁵², eta 60 milioi pezetako aurrekontua zuen. Bi hilabetez mezua prentsa idatzian, irratan, telebistan eta publizitate-hesietan zabaldu zen. Horrez gain, hainbat ibilgailu zituen kaleetatik azalpenezko liburuxkak banatzeko eta era berean hezkuntzaren, kulturaren eta osasunaren arloko jarduera garatzeko, biztanleriaren artean bizi-ohitura osasuntsuagoak lortzeko helburuarekin. Kanpainak erretzeari uzteko plan bat eta erretzeari uzteko nahiarekin beren kontsultetara joaten ziren pazienteei laguntza eman nahi zieten osasun-profesionalentzako gida bat zituen. Kanpainaren ezaugarria erabilitako estilo arrunta izan zen, dramatismorik gabea, non eskakizunik eta derrigortzerik gabeko jarrera bat proposatzen zen. Adeitsua eta baketsua izan nahi zuen eta erretzeari uzteko erabakitik datozen alderdi positiboak biltzen zituen.

2.4.1. OSASUN SAILA

Osasuna Zainduz, Estrategias de Cambio de la Sanidad Vasca Euskadiko osasun-politika kokatzen den osasun-plan bat da eta 1983. urteko ekainean Eusko Legebiltzarrak onartu zuen. Osakidetzaren zuzendaritza- eta ebaluazio-tresna honetan osasunaren lehentasunezko arazoak identifikatu ziren. Horien artean minbizia, gaixotasun kardiobaskularrak eta istripu zerebrobaskular akutua (IZBA), hiesa eta STG, istripuak, osasun mentala, emakumearen eta haurraren osasuna, infekzio-gaixotasunak, ahoko eta hortzetako osasuna, diabetes Mellitusa (DM) eta mina, ondoeza eta minusbaliotasuna zeuden. *Osasuna Zainduz* planak (1994: 45-46) lehenengo bostak «arazo larritzat» hartzen ditu. Horrez gain, adierazten du «horietan eskuragarri dauden esku-hartzeek osasunean ondorio garrantzitsuak espero izatea ahalbidetzen dutela». Ikus daitekeen moduan, ez dago tabakoari buruzko aipu espezifikorik, baina testuak berak onartzen

⁵¹ *El Diario Vasco* egunkaria, larunbata, 1988/10/29: «Jesús Laguardia: 'Tabakoa gainerako drogen moduko droga bat da'».

⁵² CATANIA, E. (1988): «'Ez baduzu erretzen, askoz ere hobeto' leloa eta 60 milioi tabakoaren aurkako Eusko Jaurlaritzaren kanpainaren euskarriak». *El Correo Español-El Pueblo Vasco* egunkaria, larunbata 1988/10/29.

du «eremu horietako askoren izaera kausalean hainbat arrisku-faktore komun daudela». Arrisku-faktoreen artean, lehenengo tokian tabakoa azaltzen da⁵³ eta gaixotasun kardiobaskularrekin, minbiziarekin, istripu kardiobaskularrekin, istripuekin eta BGBKrekin erlazionatzen du. Nahiz eta arrisku-faktoreei ezin zaien lehenetsi beharreko eremu problematiko gisa heldu, horiei ekitea eta dagokien lehenespen-maila eremu bakoitzeko jardunaren barruan burutu dira. Horregatik tabakoaren kontsumoari eta tabakismoari egiten zaio erreferentzia, biriketako minbiziarekin, gaixotasun kardiobaskularrekin eta istripu zerebrobaskular akutuarekin erlazionatutako osasunaren helburuetan, eta emakumeen (haurdun dagoen emakumeak bizimodu osasuntsuak edukitzea, tabakoaren kontsumoei dagokienez) eta adingabeen (eskola-ingurunean bizimodu osasuntsuak sustatzean, 10 urte baino gehiagoko neska-mutikoen kasuan, erretzearen ohituraren prebentzioarekin) osasunari dagokienez.

Osasuna Zainduz planak (1994:61, 77-79) onartzen du biriketako minbizia garatzeko arrisku-faktore nagusia tabakoa dela, eta horregatik lehen mailako prebentzioko neurriek (tabakoaren kontsumoaren uztea eta prebentzioa) biriketako minbiziaren aurkako borrokan oinarritzko tokia dutela adierazten du. Tabakismoaren eskaintako idatz-zatian adierazten da «oso erraz alda daitekeen gaixotasun kardiobaskularren eta minbiziaren arrisku-faktore bat dela eta murrizketa-irabazi gehienak eman ditzakeena dela». Tabakismoaren inguruan proposatutako jardun-ildoak honako alderdi hauei buruzkoak dira: a) sektore arteko ekintza indartzea, besteak beste, EAEn tabakoaren publizitatearen, salmentaren eta kontsumoaren inguruan dagoen legeria betetzeari dagokienez; b) oro har, biztanleria guztiari, baina bereziki eskola-inguruneari zuzendutako hezkuntza-ekintzak areagotzea; c) tabako-kontsumitzaileentzako laguntza-programak garatzea Lehen Mailako Arretan.

EAEk *Tabakismoaren Prebentziorako eta Murrizketarako Plan* bat du. Planaren helburu orokorra honako hau da: «EAEko tabako-kontsumoari egotzi ahal zaizkion *tumore gaiztoak eta gaixotasun kardiobaskularrak eragindako heriotza-tasa murriztea*, hau da, heriotza-tasaren lehenengo eta bigarren arrazoiak, baita *erikortasuna* ere, biztanleriaren artean tabakismoaren prebentzioaren eta etengabeko murrizketaren bitartez (Osasun Publikoko Txostena 2006:76). Plana 1992. urtean diseinatu eta egin zen eta ofizialki hurrengo urteko urtarrilean jarri zen martxan. Honako jardun-arlo hauek ditu:

- erretzen ez dutenen erabakia babestea eta indartzea, erre gabe jarrai dezaten;

⁵³ Tabakoaren atzetik, dislipemiak, dieta/obesitatea, alkohola eta azkenik, ingurumen- eta lan-esposizioa doaz.

- ez-erretzaileen osasuna babestea, tabakoaren kearen eraginpean egon ez daitezen;
- erretzeari uzteko indarrak eta laguntza ematea, tabakoaren produktuekiko desohitzearen sustapenaren bitartez.

Plan horrek dio, Planaren abiaraztean oinarritu ziren datuak kezkarriak zirela eta kezkarriak izaten jarraitzen dutela. Aurreikuspenezko datuen arabera, EAEn, 2.602 pertsona hil ziren 2005. urtean tabakismoaren ondorio gisa. Heriotza mota horiek saihegarriak eta goiztiarrak izateagatik bereizten dira, eta galdutako bizitzako urte potentzialen % 4 baino gehiago dira.

Adierazitako helburu orokorrak eta helburuaren jardun-arloak 2002-2010 denboraldiko *Osasun Planean* kokatzen dira. Osasun Sailaren plangintza-tresna nagusizat hartzen da Plana, eta bertan osasun-politikaren oinarritzko helburuak biltzen dira, eta lehentasunez erantzun beharreko premiak finkatzen dira. Osasun Sailak osasunaren babeserako eta gaixotasunaren prebentziorako azaltzen dituen osasun publikoko programen artean, «tabakismoaren prebentzioaren, kontrolaren eta murrizketaren» programa dago eta ez-erretzaileei laguntzera, ez-erretzaileen osasuna babestera, eta erretzeari uzteko nahia dutenei bultzatzaera eta laguntzera bideratuta» dago programa. Tabakoarekin erlazionatutako helburuan, 2010. urterako, honela zehazten dira:

- Ez-erretzaileen ehunekoa % 80ra handiagotzea⁵⁴.
- Besteren tabakoaren kearen eraginpean egoten diren pertsonen ehunekoa % 10era murriztea⁵⁵.
- Tabakoaren kontsumoan ezberdintasun sozio-ekonomikoak % 25 murriztea⁵⁶.

Esku-hartze estrategiak *Tabakorik gabeko Europa baterako Ekintza Planetan* oinarritzen dira.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Zuzendaritzatik honako ekintza hauek burutu dira tabakoaren prebentziorako eta murrizketarako (Osasun Publikoko Txostena 2006:78-80):

a) *Tabakoarekiko desohitzeko azken teknikak ikasteko ikastaroak*

Ikastaroen helburua osasun-arloko profesionalen jarduna indartzea eta bultzatzea da, tabako-kontsumitzaileei dagokienez. 1994. urtetik eskaini dira ikas-

⁵⁴ Planak *Gaur egungo egoera* % 71 dela adierazten du. 1997. urteko datuak dira.

⁵⁵ Planak *Gaur egungo egoera* % 39 dela adierazten du. 1997. urteko datuak dira.

⁵⁶ Planak *Gaur egungo egoera* % 43 dela adierazten du. 1997. urteko datuak dira.

taro horiek eta, 2005. urtetik aurrera Osakidetzak programatutako Etengabeko Prestakuntzako ikastaroen zati dira. 1994. urtetik 2006. urtera bitarte osasun-arloko 1.175 profesionalak hartu dute parte ikastaro horietan (Osakidetzako kideak % 86 ziren eta gainerakoak enpresako zerbitzu medikoak). Gutxi gorabehera, Osakidetzako Lehen Mailako Arretako bost profesionaletatik batek, adierazitako ikastaro horiei etekina atera zion. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak, 2006. urtean 1.700.000 €-rekin finantzatu du Osakidetzako Lehen Mailako Arretako profesionalen bitartez egindako tabakoarekiko desohitzea.

Biztanleria tabakismoaren inguruan sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko beharrezkoak dira osasun-informazioa eta legegintza-neurriak. Hala ere, alderdi horiek garrantzitsuak izan arren, ez dute lortzen tabako-kontsumitzaileen zati handi batek bere kontsumoak uztea. Helburu horri begira, osasun-arloko profesionalak funtsezko zeregin bat joka dezakete osasun-hezkuntzaren eremuan. Hainbat ikerketak frogatu dute osasun-arloko profesionalen aholkua oso eraginkorra dela tabakoaren kontsumoa uzteko (Saltó 1993).

b) *Tabakoaren kontsumoarekiko desohitzeko proiektuak*

2006. urtean, 52.000 € bideratu ziren tabakoarekin erlazionatutako prebentzio- eta desohitze-zereginak egiten dituzten elkarteekin edo irabazi asmorik gabeko autolaguntzako kolektiboekin esfortzuak sustatzeko eta koordinatzeko. Kasu batzuetan, proiektua emakume erretzaileetan oinarritu zen bakarrik.

c) *Tabakoaren kontsumoaren murrizketa lan-eremuan*

Droga-mendetasunen arloko prebentzioari, laguntzari eta gizarteratzeari buruzko 18/1998 Legearen 9. artikulua araberan, *Osalan* izango da lan-eremuan prebentzio-programak martxan jarriko dituen, hainbat herri-administrazio-tako kudeatzaileekin, enpresa-sektorearekin eta sindikatuen sektorearekin batera. Tabakismoaren prebentzioari dagokionez, programa bateratuak egin dira *Osalanen* eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Zuzendaritzaren artean.

d) *Ez-erretzaileen babesa*

Tabakorik gabeko guneak kartelen eta informazio-triptikoen eskaintzaren bitartez, instituzioei nahiz erakundeei, enpresei edo partikularrei. Era berean, beste jarduera mota batzuk egiten dira. Horietako batzuk *Tabakorik gabeko Munduko Egunarekin* erlazionatuta daude eta beste batzuk, tabakismoarekin erlazionatutako gai ei buruzko mahai inguru etako partaidetzarekin.

Osasun publikoko ikuspegi batetik, pertsona guztien eta batez ere gazteen osasuna babesteko azken helburuarekin, funtsezkoa da pertsona horiek

tabakoarekin ketik babestea. Horregatik, *Tabakismoaren Prebentziorako eta Murrizketarako Planaren* etorkizuneko garapenari begira, familia-giroan eta haurren, nerabeen eta kolektibo kalteberenen eremuan osasunean eta lehenengo jokabi-deetan eragina eduki dezakeen pertsonen inguruko jardunarekin jarraituko da.

2.4.2. DROGA GAIETAKO ZUZENDARITZA

EAEn, 1988. urtetik aurrera, Autonomia Erkidegoko Legeria dago droga-mendetasunen arloan eta Legeriak, era berean, tabakoarekin erlazionatutako gaiari heltzen die. 18/1998 Legeak, tabakoaren eremuan, tabakoaren kontsumoarekin, salmentarekin eta publizitatearekin erlazionatutako mugak biltzeaz gain, Eusko Legebiltzarraren Droga-mendetasunei buruzko Batzordearen 1994. urteko ekainaren 30eko erabakian bildutako ildoak hartzen ditu barnean. Droga-mendetasunei buruzko Batzordean ez-erretzaileen eskubideak babesteari egiten zitzaion erreferentzia, baldin eta eskubide horiek beste eskubide batzuen aurka badoaz. Lege horrek tabakoa drogatzat hartzen du, 2. artikuluaaren arabera.

Droga-mendetasunari buruzko V. Planaren zeregina honako hau da: «drogen erabilera problematikoak urritzea kontsumo horiei atxikiriko erikortasuna eta heriotza-tasa murriztearren, baita kontsumitzaileen, ingurune hurbileko pertsonen, eta gizarte osoaren bizi-kalitatearen eta ongizate-mailaren jaitsiera ere murriztearren». Planak tabakoa eta tabakismoa Planaren hainbat puntutan aipatzen du. Horrela, Asistentziako Batzorde Teknikoak, diagnostikoari egindako ekarpenen eta V. Planarekin erlazionatutako esku-hartzeen orientazioaren artean, tabakismoarekiko arreta areagotzeko beharra adierazi zuen (V. Plana: 2006-55). Era berean, Droga-mendetasunari buruzko V. Planeko lehentasunezko jardun-ildoei dagokienez, «tabakismoa lehentasunezko ildotzat hartzea eta benetan eraginkorrak direla frogatu duten tratamenduak osasun publikoaren prestazio-katalogoan sartzea» proposatu zuen (V. Plana: 2006:160). Eusko Legebiltzarra Eusko Jaurlaritzaren euskarri diren taldeen (EAJ-PNV, EA eta IU-EB) eta oposizioko bi taldeen (PP eta PSE)⁵⁷ arteko desadostasun baten lekuko izan zen 2008. urtean, erretzeari uzteko medikamentuen finantziazioari dagokionez. Hirukoaren kideek Osasun Saitetik dagoeneko tabakismoa murrizteko ekintzak garatzen ari zirela uste zuten bitartean, PPK eta PSEk uste zuten erretzeari uzteko medikamentuen

⁵⁷ Ekainaren 23ko Eusko Legebiltzarraren Osasun Batzordean, PPK ekimen bat aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak «erretzeari uzteko laguntzaren farmakologia-prestaziora sartzeko baldintzak» ezartzeko. Urtean zehar, eta hainbat berdinketaren ondoren, ekimenak indargabetu egin ziren.

ordainketatik eratorritako gastuak ordaindu beharko liratekeela, beste Autonomia Erkidegoetan gertatzen den moduan.

V. Plana egiteko hausnarketa estrategikoak, esku-hartzearen eremuan, drogen publizitatearen, tabakoaren horniduraren eta tabakoaren kontsumoaren kontrola aipatzen du hirugarrenei eragiten badie⁵⁸. Horregatik, plangintza operatiboaren barruan, eskaintza kontrolatzeko jardun-eremuak⁵⁹, honako jomuga hau du: eskaintzaren murrizketari eta legez kontrako droga-trafikoaren kontrolari laguntzea, eta tabakoaren sustapenari, publizitateari eta salmentari buruzko tokiko eta autonomia-erkidegoko indarreko legedia betearaztea⁶⁰. Gaur egungo Droga-mendetasunari buruzko 18/98 Legearen tabakori eta tabakismoari buruzko jardun-ildoak⁶¹, honako modu honetan labur daitezke:

- kontsumoaren publizitatearen eta sustapenaren kontrola;
- tabakoaren horniduraren eta salmentaren kontrola;
- tabako-kontsumoaren kontrola hirugarrenei eragiten badie, bereziki tabakorik gabeko guneei buruzko araudia betetzeari dagokionez.

Jardun-ildo horiek bat datoz tabakoari eta tabakismoari buruzko helburu orokorrekarekin (tabakoaren sustapenari, publizitateari eta salmentari buruzko tokiko eta autonomia-erkidegoko indarreko legedia betearaztea) eta helburu espezifikoeekin:

- tabakoaren sustapenari, publizitateari eta salmentari buruzko indarreko legeria betearaztea, eta lege berriak garatzea;
- tabakoaren publizitateari eta sustapenari mugak jartzea;
- adingabeei tabakoa ematea eta saltzea mugatzea;
- tabakoaren kontsumoa kontrolatzea, hirugarrenei eragiten badie;
- lan-eremuan tabakoaren erabilera zaintzea eta saihestea; eta
- tabakorik gabeko guneak babestea eta horren inguruko araudia betearaztea.

Horretarako guztirako, V. Planak garatu beharreko honako ekintza hauek proposatzen ditu:

⁵⁸ Era berean, edari alkoholdunak aipatzen ditu.

⁵⁹ Polizia- eta zigor-alderdiei heltzeaz gain, prebentzio- eta hezkuntza-alderdiak ere aipatzen ditu.

⁶⁰ Era berean, edari alkoholdunei erreferentzia egiten die.

⁶¹ Eskaintzaren kontrolari lotutako jarduerak 18/98 Legearen I. kapituluaren 2. eta 3. ataletan eta V. kapituluaren bilduta azaltzen dira.

- tabakoaren inguruko udaleko eta autonomia-erkidegoko legedia ezagutaraztea;
- herritarrei arauen egokitasunaren berri ematea;
- udalen parte-hartzea lortu, tabakoaren sustapenari, publizitateari eta salmentari buruzko legeria betearazteko eta sortzeko;
- zentro publikoetako arduradunak legeak betetzeko kontzientziatzea;
- komunikabideek araudia betearaztea eta gai horien inguruko informazioa behar bezala lantzeko erraztasuna ematea; eta
- enpresetan, toki publikoetan eta besteen osasunerako garrantzitsuak diren guneetan, ez-erretzaileak errespetatzeko ekintzei hasiera ematea.

V. Plana amaitzerakoan, tabakoaren eremuan *eskaintzaren kontrolarekin* erlazionatutako proposamenen jomugak honako hauek dira:

- Tabakoaren kontsumoaren publizitateari eta sustapenari buruzko araudia benetan betetzea, horren erantzukizuna duten erakundeek⁶².
- Tabakoa adingabeei saltzearen eta ematearen gaineko kontrol eraginkorra⁶³.
- Kerik gabeko guneak mugatzea, eta benetan errespetatzea⁶⁴.

Droga-mendetasunari buruzko V. Planak, plangintza operatiboaren eremuan, *eskaintzaren murrizketaren* jardun-eremuaren barruan, beren eraginkortasuna frogatu duten terapeutika-baliabideak eta -programak aipatzen dituenean, tabakismoa ere kontuan hartzen du. Helburu orokorra droga-mendetasunei osoko erantzuna ematea da, beren eraginkortasuna frogatu duten hainbat terapia-mota eskainiz. Hartzaileen artean honako hauek daude: tabakoaren mendetasunarekin edo gehiegizko erabilerarekin arazoak dituztenak eta tratamendua nahi dutenak, eta era berean, drogen kontsumoekin erlazionatutako arazoak dituzten pertsonak. Pertsona horiek, mendetasun-arazo horri ez diote tratamendu espezifikoa jarri nahi eta, aitzitik, beste osasun-arazo batzuei alternatibak bilatu nahi dizkiete.

⁶² Proposatutako ebaluazio-adierazleak: egindako ikuskapen kopurua, irekitako espediente kopurua eta betearazitako zigor kopurua.

⁶³ Proposatutako ebaluazio-adierazleak: irekitako espediente kopurua, ikuskapen kopurua, zigor kopurua.

⁶⁴ Proposatutako ebaluazio-adierazleak: lan-eremuan egindako ikuskapen kopurua, eremu publikoetan egindako ikuskapen kopurua, etab.

2.5. TABAKOARI BURUZKO POLITIKETAN JARDUTEKO ILDOAK

Zenbait hamarkadetan zeharo aldatu da egoera, tabakoaren kontsumoak onartzen ziren gizarte-giroa nagusi zen egoera batetik abiatuta tabako-kontsumitzaileak izateagatik pertsona batzuen eskubideak arriskuan jar daitezkeen beste egoera batera igaro gara. 2003. urteko ekainean, Britainia Handiko Alderdi Labo-ristak erretzaileei eta obesoei laguntza medikoa baldintzapean jartzeko premia-rik ba ote zegoen eztabaidatu zuen; pertsona horiek kontratu bat betetzea zen baldintza (Oppenheimer 2003). Duela gutxi, prentsak Readbrigde-ko Londreseko barrutiko erretzaileek 2010. urtetik aurrera harrera-gurasoak izateko edukiko duten ezintasunari buruzko albistearen berri jaso zuen. Adierazitako helburua adingabeen osasuna babestea eta adingabeak tabakoaren kearen eraginpetik babestea da. Hainbat erretzaile-kolektibok albiste hori kritikatu dute eta erre-tzaileak iraintzeko saiakera bat dela uste dute, zainduak izateko beharra duten adingabeak aldi baterako zaintzeko erabateko gaitasuna duten familiak bazter baititzakete ezarritako irizpide horiek.⁶⁵ Neurri horien sendotasuna ez dator bat beste gai batzuetan erabilitako eskuzabaltasunarekin, adibidez motorraren kiro-lari lotutako tabakoaren publizitatearen arloan. Gaur egun, jakin badakigu Tony Blair lehen ministro ohiak pertsonalki esku hartu zuela 1 Formulak tabakoaren publizitatea eduki ahal izan zezan. Adierazitako iragarpena egin eta egun gutxira, Ecclestone britainiarrek, hau da, 1 Formulako patroiak «1997. urteko hauteskun-de orokorrak baino lehenago laboristei egin zien milioi bat librazio (ia 1,5 milioi euro) dohaintza eman zuen ezagutzera. Hauteskunde orokor horietan Blair-ek hauteskunde-garaipen eztabaidaezina lortu zuen»⁶⁶.

Estatu Batuetan, pertsona batek erretzailea izateagatik bere lanpostua gal dezake. «Erretzailea bazara, kaleratuta zaude» Estatu Batuetako enpresa batek erabilitako leloa da. Enpresa horrek ez du zalantzarik egiten edozein langile-erre-tzaile kaleratzerako garaian, nahiz eta langileak enpresatik kanpo erre. Eskubide zibilak defendatzen dituzten hainbat elkartek eta lan-eremuko adituek zalantzan jarri zuten neurriaren legezkotasuna, enpresak eskubide indibidualak urratzen zituela ulertzen baitzuten⁶⁷. Albistearen egileak datu gehiago ematen ditu lanpostu bat lortzeko helburua duten pertsonen beren eskaerei erantzun aurretik nikotina-proba bat egitera behartzen dituzten enpresei buruzkoak. Estatu Batuetako toki

⁶⁵ «Erretzaileak ezin izango dira harrera-gurasoak izan Londreseko barruti batean». elcorreo-digital, gizartea, 08/11/07. <http://www.drogomedia.com/hemeroteca/archivos/2008110711.pdf>

⁶⁶ «1 Formulak tabakoaren publizitatea eduki ahal izateko esku hartu zuen Blair-ek». <http://www.elmundo.es/elmundo/2008/10/12/comunicacion/1223813734.html>

⁶⁷ VIÑAS, P. (2005): «Erretzailea bazara, galduta zaude». <http://www.diariovasco.com/pg050128/prensa/noticias/AIDia/200501/28>.

askotan ezin da atari zabalean, parkeetan edo ondartzetan erre. Kontu horiek pertsona guztien eskubideekin –ez-erretzaileak eta erretzaileak– bat datozen tabakismoaren prebentzioko politikak planteatzeko beharra uzten dute agerian. Politika horietan prebentzio- eta osasun-irizpideak alderdi ekonomizisten eta zigortzaileen gainetik nagusitu behar dira.

Zientzia-eremuan adostasun orokorra dago tabakismoaren prebentzioaren arloko jardun-oinarriei buruz. Hemen erabilitako eskema Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenak proposatutakoa da, eskaria eta eskaintza murrizteari dagokionez. Jarraian adierazten diren jardunen eta estrategien zati handi bat Tabakismoaren Prebentziorako eta Kontrolerako Plan Nazionaletik bilduta dago, Tabakismoaren Prebentzioko Batzorde Nazionalak adierazten dituen gomen-dioetan, baita beste jardun-proposamen batzuetatik ere.

Villarbíren ustez (2004:382) tabakoak sortzen duen kaltea murrizteko lehen-tasunezko arazoak bi dira: «Alde batetik, gazteak babestea (gaur egun, batez ere emakumeak) eta erretzen ez hasteko laguntza ematea. Beste aldetik, erre-tzaileei kontsumoa uzten laguntzea, hala nahi badute». Agian beharrezkoa izan-go litzateke garrantzi bereziko beste gai bat gehitzea: pertsona oro tabakoaren kearen eraginpean egotetik babestea.

2.5.1. ESKARIAREN MURRIZKETA

2.5.1.1. Prezioekin eta zergekin erlazionatutako neurriak

Prezioekin eta zergekin erabilitako irizpideek nabarmen baldintzatzen dituzte tabakoaren kontsumoak. Prezioen igoerek biztanleriaren sektore bati kontsumi-tzen jarraitzeko asmoa kentzen diote⁶⁸. Aitzitik, kontrabandoko tabakoaren kontsumoa handiagotzeko arriskua dago. Azkeneko urteetan, arazo horrek nabarmen egin du behera. López Nicolásek eta Pinilla Domínguezek (2005) Espainiako zi-garroen fiskaltasunaren egoera aztertu dute ikuspegi ekonomiko batetik. Adiera-zitako fiskaltasuna egitura komun bat eta gutxieneko ezarpen-maila batzuk ezar-tzen dituzten Europako zuzentzarauk kokatzen dute. Txostenean ondorioztatzen den lehenengo ondorioa honako hau da: «Espainiako zigarroen fiskaltasuna alda daiteke, tabakismoaren prebentzioari buruzko 28/2005 Legea onartzerakoan gure gizarteak adierazi dituen osasun-helburuak defendatzearen».

⁶⁸ Hainbat herrialderen esperientzian oinarritutako Munduko Bankuaren txosten baten arabera, tabakoaren prezioa % 10 igotzearen ondorioz kontsumoa % 4 inguru murrizten da (Haro eta al.: 2005).

Tabakismoaren Prebentzioko Batzorde Nazionalaren argitalpen baten arabera, Estatu espainolean saldutako zigarroen kostu erreala ia ez da aldatu azkeneko hamar urteetan. Horrez gain, Espainia da zigarro merkeenak eros daitezkeen Europar Batasuneko herrialdea (15 herrialdeetatik)⁶⁹. Joan den urtean, tabako-pakete baten batez besteko prezioa 2,95 € zen Estatu espainolean. Zenbateko hori ez dator bat Estatu espainolaren garapen-mailarekin. Kopuru hori oso baxua da Britainia Handian (7,89 €) edo Irlandan (7,05 €) tabako-pakete batek balio duen kopuruarekin alderatzen badugu. Ez da harritzekoa Europar Batasunetik zergak igotzeko eta zigarroen prezioak garestitzeko proposatzea (Benito 2007).

Tabakismoaren Prebentzioko Batzorde Nazionalak honako gomendio hauek eman ditu tabakoaren prezioen eta zergen inguruan:

- Gutxieneko zerga berezia igotzea, gaur egungo 70 €-tik 100 €-ra bitarte mila zigarrogatik.
- Zerga espezifikoa igotzea, gaur egungo 8,2 €-tik 12 €-ra bitarte mila zigarrogatik.
- Urtero zerga espezifikoaren eta gutxieneko zerga bereziaren balioa automatikoki eguneratzea.
- Tabakoa KPI ofizialaren zenbaketatik ateratzea.

2.5.1.2. Prezioekin erlazioa ez duten neurriak

a) *Tabakoaren kearen eraginpean egotearen aurkako babesa*

Azken urteetako ikerketek agerian utzi dituzte tabakoaren kearen eraginpean egoteagatiko osasun-arriskuak. Estatu espainolean lege-arloan egindako esfortzuez gain, Europar Batasunetik «Estatu espainoleko legeria berritzeko» beharra eskatzen da «ez-erretzaileak hobeto babesteko» (Benito 2007).

Tabakoaren kerik gabeko Europa baterantz: aukera politikoak EBren eskalan deituriko liburu berdean (Europako Erkidegoen 2007. urteko Batzordea) onartzen da tabakorik gabeko inguruneen garapenaren aldeko politiketik, tabakismo aktiboaren eta pasiboaren arriskuen inguruan pertsonak sentibilizatzeaz gain, gizartean *tabakoa desnormalizatzen* laguntzen dutela.

⁶⁹ CNPT (2007): «Tabakoaren eta fiskaltasunaren arreta Espainian». Iraila.

Tabakoaren kearen eraginpetik babesteko eremuan sustatu beharreko neurrien artean honako hauek nabarmentzen dira:

- Tabakoaren kearen eraginpean modu pasiboan egotearen eragin kaltegarri buruzko informazioa hedatzea, haurdunaldian zehar eta haurren, zaharren eta gaixoen aurrean ez erretzeak duen garrantzi berezia nabarmenduz.
- Haurrak ere biltzen diren ospakizun pribatuak tabakorik gabekoak izan daitezela sustatzea biztanleriaren artean.
- Kerik gabeko gunek indartzeko mezuak egitea, tabakoaren kontsumoa murrizteko eta uzteko faktore laguntzaile gisa.
- Kerik gabeko guneen mailaz mailako politika bat ezartzea (eremu publikoa, lan-, gizarte- eta aisialdi-eremua), tabakoaren kerik gabeko gune guztiak lortu arte. Kerik gabeko etxeak eta gunek sustatzea.
- Gazteentzako eta nerabeentzako aisialdiko jarduerak egiten diren lokal horietan *Kerik Gabeko Guneak* gisako akreditazioa sustatzea.
- Tabakoa kontsumitzen hasteko adinaren prebentzioaren jakintzak eta estrategiak trukitzea ahalbidetzen duten estatu mailako eta nazioarteko mailako proiektuetan ekimenak eta partaidetza sustatzea.
- Derrigorrez ez erretzeko eskubidea bultzatzen duten kolektiboen ekimenak sustatzea.
- Indarreko legeria aplikatzea.
- Oro har biztanleriari eta zuzenean tabakoaren kearen eraginpean egon diren gizarteko kolektiboei eta sektoreei kerik gabeko guneei buruzko informazioa eta araudia ematea: garraio-enpresak, herri-administrazioak, ikastetxeak, osasun-, gizarte-, kirol-, aisialdi-zentroak, etab.
- Beharrezko lege-aldaketak erraztea pertsona orok toki publiko guztietan tabakoaren kerik gabeko airea arnasteko duen eskubidea errespetatua ikus dezan.
- Osasun-zentroetan, ikastetxeetan, gizarte-zentroetan, jendearen arretarako zentroetan, eta herri-administrazioen eremuan kerik gabeko guneei buruzko araudia betetzen dela zaintzea.
- Beharrezko lege-neurriak sustatzea enpresetan kerik gabeko gunek ezartzeko.
- Tokiko, autonomia-erkidegoetako eta estatuko jardunak biltzen dituen arau-hasteei eta zigorrei buruzko informazio-sistema bat sortzea, kerik gabeko guneen inguruko lege-betetzea eta -jarraipena jakiteko eta ebaluatzeko helburuarekin.

b) *Tabakoaren produktuen edukiaren araudia*

Tabakoaren produktuen edukiak ezin du tabakoaren enpresa multinazionalen aukeramenara geratu. Enpresa horiei substantzien konposaketa guztia osasun-agintariei jakinaraztea eskatu behar zaie. Beharrezkoa da urratsak egitea eskumeneko osasun-agintariei, dagokien motibazioaren ondoren, osasunerako bereziki kaltegarriak diren substantzien erretiratzea agindu ahal izateko.

c) *Tabakoaren produktuei buruzko informazioaren hedapena arautzea*

Aurreko idatz-zatiarekin bat etorritik, tabakoaren produktuei buruzko informazioak osasun-agintarien eta ikerketa-lanak egiten dituztenen eskura egon behar du.

d) *Tabakoaren produktuen paketatzea eta etiketatzea*

Tabakoaren produktuak paketzeko eta etiketzeko irizpideak Europako Parlamentuaren eta 2001. urteko ekainaren 5eko Kontseiluaren 2001/37/EE Zuzentzararekin bilduta daude, baita gaur egun Espainian indarrean dagoen Tabakoari buruzko legerian ere. Bildutako datuek benetakoak izan behar dute, eta era berean, tabakoaren kontsumoen ondorio negatiboak buruzko osasun-oharrak azaldu behar dituzte.

e) *Jendearen hezkuntza, komunikazioa, prestakuntza eta kontzientziazioa*

Eskariaren murrizketaren eremuan, idatz-zati luze honek funtsezko garrantzia du, hausnarketa- eta jardun-baliabideak eskaintzen baititu tabakismoaren prebentzioari aurre egiteko. Osasunerako hezkuntza –familia- eta eskola-eremuan–, prebentzioa –unibertsala eta batez ere selektiboa (adingabeak, gazteak, emakumeak,...)–, pertsona guztien –erretzaileak eta ez-erretzaileak– eskubiak ezagutzeko eta errespetatzea, tabakoaren kontsumotik eta tabakoaren kearen eraginpean egotetik eratorritako osasunerako arriskuen kontzientziazioa eta tabakoaren enpresa multinazionalen eskuragarri duten informazioarako sarbidea gizarteko sektore guztien inplikazioa eskatzen duten funtsezko gaiak dira.

Praktikan jarri behar diren neurri batzuk, honako modu honetan laburtzen dira:

- Aldian-aldian tabakoaren kontsumoak biztanleria erretzaile boluntarioen eta nahi gabekoen osasunean dituen ondorioei buruzko informazioa eta ez erretzearen onurei buruzko informazioa hedatzea, informazioaren teknologia berriak sustatuz.
- Tabakoaren arloan indarrean dagoen legeriari buruzko informazioa zehatz-mehatz eta behin eta berriz ezagutaraztea.
- Diziplina anitzeko ikuspegi batetik informazioa ematea, osasun-zerbitzuen, lan-arriskuen prebentzioaren, farmazien, erkidego-mugimenduen, GKEen, kontsumitzaile-elkarteen, eta abarren jardunen barruan txertatuz.
- Tabakoaren kearen eraginpean modu pasiboan egotearen eragin kaltegarrii buruzko informazioa hedatzea, haurdunaldian zehar eta haurren, zaharren eta gaixoen aurrean ez erretzeak duen garrantzi berezia nabarmenduz.
- Haurrak ere biltzen diren ospakizun pribatuak tabakorik gabe izan daitezela sustatzea Biztanleriaren artean.
- Biztanleriari tabakoaren keak kutsatu gabeko airea arnasteko eskubidearen berri ematea.
- Politikoen eta iritzi-liderren arteko aliantzak bilatzea, tabakorik gabeko gizarte baten alde ager daitezen.
- Adingabeentzat eta gazteentzat tabakismoaren prebentziorako programa espezifikoak diseinatzea.
- Aitak, amak, irakasleak, langile sanitarioak eta gizarte-liderrak ohitura osasungarriak eskuratzean duten eginkizun eredugarrian sentsibilizatzea.
- Material lagungarri inprimatuak eta ikus-entzunezkoak egitea, adinaren, generoaren eta rolaren ezaugarrietara egokitutako mezuekin, horiek aldizka banatuko direla eta osasun-zentroetara, ikastetxeetara, aisialdirako zentroetara, farmazietara eta abarretara iritsiko direla ziurtatuz.
- Erretzaileei zuzendutako mezu espezifikoak diseinatzea, erretzeko ohitura gainerako pertsoneri inposatzeak adierazten duenaren inguruan kontzientziatuz.
- Biztanleriari informazioa hedatzea, tabakoaren aurrean adierazpen-jarrerak erraztuz eta elkarrizketa liskarraren aurrean hobetsiz.
- Komunikabideen gizarte-laguntza eskuratzea kanpaina koordinatuak eta aldizkako kanpainak egiteko.

- *Tabakorik gabeko Munduko Egunaren* ospakizuna eremu guztietan indartzea, osasun-zentroetan eta ospitaletan informazio-mahaiak jarritz eta arnastutako airean karbono-monoxidoaren neurketak eginez.
- Kerik gabeko inguruneak sortzeak dakartzan onurei eta keak kutsatutako inguruetan egoteak sortzen dituen arriskuei buruzko informazio-kanpainak egitea.
- Kerik gabeko guneen informazioa eta errespetua errazten dituzten ekimenak sustatzea.
- Tabakismoaren prebentzioari buruzko doako informazio-telefonoak eskaintzea.
- Tabakismoaren prebentziorako programen garapena indartzea, adinaren, generoaren eta rolaen ezaugarriei erantzunez.
- Osasunaren esparruko profesionalei –Lehen Mailako Arretan nahiz Arreta Espezializatuan– tabakismoak ordezkatzeko duen osasun-publikoaren arazoari, erretzen hasteko adinaren gaur egungo joerei eta emakume gazteen kontsumoaren igoerari buruzko informazioa erraztea, ez-erretzaileen artean ohitura ez eskuratzeko profesionalen esku-hartzea garrantzitsua dela azpimarratuz.
- Osasunaren esparruko profesionalek prebentziora eta hezkuntza esku har dezatela sustatzea, ez-erretzeko jokabidea biztanlerian (gazteak, emakumeak...) indartuz.
- Irakasleei tabakismoaren prebentzioari buruzko prestakuntza ematea, eta Eskolan Osasunerako Hezkuntzaren integrazioa bultzatzea.
- Kultura eta Kirol Saitetatik tabakorik gabeko jarduerak egiteko laguntza ematea.
- Osasun-profesionalen prestakuntza-zentroetan tabakoari/osasunari eta tabakoaren aurkako aholkuari buruzko prestakuntza espezifikoak gehitzea, tabakoak emakumearengan eragiten duen arazoari arreta berezia eskainiz, laguntza-material egokiak emanaz.
- Irakasleak, aisialdiko monitoreak eta gazte liderrak ez erretzearen abantailen eta onuren inguruan prestatzea, bai eta publizitatearen eta presioari aurre egiteko tekniken inguruan ere prestatzea.
- Agintarien, pertsona ospetsuen, eta beste gizarte-lider batzuen konpromisoa lortzea, ekitaldi publikoetan erre ez dezaten.

- Urtean behin kolektiboek, gazteek eta GKEk irabazi asmorik gabe sustatutako tabakismoaren prebentziorako proiektuetarako eta jardueretarako diru-laguntzak deitzea.
- Gazteengan eta nerabeengan tabakoa kontsumitzen hasteko motibazioa eta arrazoiak ikertzea, generoaren arabera.
- Tabakoa kontsumitzen hasteari eta faktore eragileei buruzko datuak ezagutzea ahalbidetzen dituzten inkestak egitea, generoaren arabera.
- Herri-erakundeetatik eremu honetan garatzen diren esku-hartzeak laguntzea.
- Lehen Mailako Arretako eta Arreta Espezializatuko langile sanitarioen artean, *gutxieneko esku-hartzea edo esku-hartze laburra* sustatzea, paziente guztiei etxean edo lantokian tabakoaren keak kutsatutako airearen eraginpean egoten ote diren galdetuz, eta horrek dakarren arriskua nola gutxitzeko aholkuak emanaz.
- Nahi gabeko tabakismoaren eta tabakismoak biztanleriaren osasunean duen eraginaren inguruko ikerketa eta azterketa epidemiologikoak sustatzea.
- Tabakoaren keak kutsatutako airearen toxikotasunari buruzko azterketak sustatzea.
- Araudia betetzen dela zaintzeaz arduratzen diren langileentzat prestakuntza-jardunak eta -programak sustatzea (zaindariak, segurtasun-zaindariak, zelariak, etab.).
- Beharrezko lege-aldaketak erraztea pertsona orok toki publiko guztietan tabakoaren kerik gabeko airea arnasteko duen eskubidea errespetatua ikus dezan.
- Osasun-zentroetan, ikastetxeetan, gizarte-zentroetan, jendearen arretarako zentroetan, eta herri-administrazioen eremuan kerik gabeko guneei buruzko araudia betetzen dela zaintzea.
- Erregulaziopeko eremu guztietan seinale egokiak indartzea (erretzeko debekua edo erretzaileen gunek).
- Kerik gabeko guneei buruzko araudiaren zaintzako erantzukizun-mailak ezartzea, ikuskatze-mekanismo arinak eta erreklamazioei erantzuna emateko mekanismoak diseinatuz.
- Toki-erakundeak ingurune publikoetan tabakoaren kontsumoaren mugei buruzko arau erregulatzailerak ezar eta betearaz ditzatela finkatzea.
- Herri-administrazioak sustatutako edo diruz lagundutako leku itxietako ekitaldi guztiak kerik gabekoak izan daitezela bultzatzea.

- Kerik gabeko guneen sustapen-jarduerak indartzea Hiri Osasungarrien sarearen esparruan.
- Biztanleriaren zentzu kritikoari laguntza ematen dioten jardunak garatzea, tabakoaren gizarte-onargarritasuna gehitzeko joera duten tabakoaren industriaren estrategiak azalduz (nahi gabeko tabakismoaren arriskuak txikiagotzeko estrategiak, ez-erretzaileak intolerante gisa aurkezteko estrategiak, etab.).
- Tabakoaren industriak jarraitutako estrategiak kritikoki aztertzea kerik gabeko guneen erregulazioaren aurka jartzeko.
- Talde sozialen, sindikalen eta profesionalen partaidetza klima sozial berri baten sorkuntzan sustatzea. Giro berri horretan araua ez erretzea izango da, komunikabide sozialekiko lankidetzari garrantzi berezia emanez.
- Tabakoaren inguruko uste batzuk desmitifikatzea.

f) *Tabakoaren publizitatea, sustapena eta babes*

Tabakoaren publizitatearen, sustapenaren eta babesaren arloko diru-kopuru handien bitartez –zuzenak nahiz zeharkakoak–, tabakoarekin erlazionatutako enpresek tabakoaren kontsumoa bizimodu erakargarriekin lotzea lortu dute –abentura, prestigio soziala...– gizarte sektore ezberdinentzat, batez ere gazteentzat eta emakumeentzat. Honako hauek dira eremu horretan martxan jarri beharreko neurriak:

- Tabakoaren produktuen publizitatea, sustapena eta babeserako debekatzeko arloan indarrean dagoen legeria aplikatzeko beharrezko neurriak jartzea.

g) *Tabakoaren mendetasunarekin eta tabakoa uztearekin zerikusia duten neurriak*

Erretzaile asko nerabezaroan hasi ziren tabakoa kontsumitzen. Horrez gain, erretzaile askok tabakoaren kontsumoa uzteko duten desioa adierazten dute. Esperientziak erakusten du erretzeari uzteko laguntza ematen duten tratamendu eraginkorrak badaudela. Tabakoaren mendetasuna murrizteko eta uzteko neurrien artean honako hauek nabarmentzen dira:

- Sentsibilizazioa handitzea, erretzeari uztea eraginez eta dauden laguntza-neurriei buruzko informazioa erraztuz.

- Tabakoaren mendetasuna osasunaren ikuspegitik gaixotasun kroniko gisa har dezaten ahalegintzea eta Lehen Mailako Arretan tabakoa uzteko laguntza-programen garapena bultzatzea.
- Tabakoaren mendetasuna bere osotasunean hartzea eta tratamendua bermatzea, osasun-prestazio publikoetan sartuta.
- Lehen Mailako Arretako zerbitzuen karteran tabakoaren mendetasunaren tratamendua gehitzea, giza- eta ekonomia-baliabide espezifikoak esleituz.
- Historia klinikoan tabakoaren kontsumoaren historia ere kontuan hartzea bultzatzea, Tabakoaren Aurkako Osasun Kontseiluaren aplikazioan eta erregistro sistematikoan.
- Osasun-zentrora bertaratzen den biztanleria erretzaileari eskainiko zaion esku-hartze laburraren aplikazioa bermatzea⁷⁰, erretzailearen patologia edozein izanik ere.
- Tabakoaz desohitzeko unitateak erregulatzea, unitateen egiaztapena bermatuz, diziplina anitzeko neurri eta langile prestatuak emanez eta bideratze-irizpideak ezarriz.
- Lan-eremuan tabakoa uzten laguntzeko programak sustatzea. Lan-osasuneko zerbitzuetatik laguntza-programak bultzatu daitezke. Oso baliagarria izan daiteke erretzaileei, lan-ordutegiaren barruan, kontsultetara edo programetara hurbiltzeko aukerak ematea.
- Lan-eremuan enpresa-erakundeei eta erakunde sindikalei zuzendutako prestakuntza-jardunak sustatzea.
- Sindikatuen, lan-arriskuen prebentziorako unitateen eta osasun-kolektiboen partaidetza sustatzea kerik gabeko lan-eremuen politketan.
- Enpresaburu-elkarteei honako hau proposatzea: langileei eta bezeroei kerik gabeko guneak eskaintzea, beren enpresetako kalitate-irizpide gisa kontuan hartuz.
- Kolektibo jakin batzuei (osasun-kolektiboak, irakasleak, komunikabideetako profesionalak, gizarte-liderrak, etab.) zuzendutako tabakoaren mendetasunaren tratamendu-programak egin daitezkeen sustatzea.
- Jarduera horren garapena monitorizatzea eta ebaluatzea ahalbidetzen duten diagnostiko-, tratamendu- eta jarraipen-protokolo homogeneous egitea.

⁷⁰ Erretzaileari ematen zaion aholku laburra eta irmoa, autolaguntza-materiala emanez eta dagokion jarraipena burutuz.

- Autolaguntza-materialak egitea (erretzeari uzteko gidak) eta erretzaile guztiei irisgarritasuna bermatuko dien banaketa eta birjarpen egoki eta jarraitu bat ziurtatzea.
- Emakume haurdunentzat edo ahotik antikonzeptiboak hartzen dituztenentzat programa espezifikoak sortzea, obstetrizia-zerbitzuaren, emagin-zerbitzuaren, familia-orientazioaren zerbitzuaren, erditzea prestatzeko zerbitzuaren, eta abarren bitartez.
- Laguntza-programak abiaraztea sustatzea teknologia berrien bitartez: Internet,...
- Beren eraginkortasuna frogatu duten tabakoa uzteko beste laguntzako esku-hartze batzuen garapena erraztea.
- Tabakoaren mendetasuna uzteko ikerketa sustatzea, adin bereko taldeen eta generoaren arabeko taldeen ezaugarriei erantzunez.
- Tabakoa uztean eragina duten faktoreak ezagutzea ahalbidetzen duten azterketak egitea, adinaren eta generoaren arabera.

2.5.2. ESKAINTZAREN MURRIZKETA

2.5.2.1. Tabakoaren produktuen legez kontrako merkataritza

OMEk oinarritzotzat hartzen du tabakoaren legez kontrako merkataritza-modu guztiak ezabatzea: kontrabandoa, legez kontrako fabrikazioa eta tabakoa kontrolatzeko aizunketa. Tabakoaren produktuen legez kontrako merkataritza galarazteko erabili beharreko neurriak. Jardun-proposamena tabakoaren produktuen legez kontrako merkataritzari dagokionez:

- Indarreko legeria aplikatzea.

2.5.2.2. Adingabeei eta adingabeek egindako salmenta

Tabakismoaren prebentzioko ezinbesteko alderdietako bat adingabeak tabakoaren kontsumoan has daitezten saihesteko ahaleginak egitea da. Helburu hori dela-eta, pertsona horiei tabakoa saltzea erabat debekatuta dago.

Era berean, gaur egungo legeriak adingabeek tabakoa saltzea debekatzen du.

Jardun-proposamenek honako oinarri hauek eduki beharko lituzkete:

- Legeriaren ezagutza eta betetzea indartzea, adingabeei tabakoa saltzeko debekuari dagokionez.

2.5.2.3. Ekonomikoki bideragarriak diren jarduera alternatiboak bultzatzea

Orain dela bi urtetik hona, Estatu espainolak Europar Batasunaren laguntzak jasotzen ditu tabakoaren laborearengatik. Azken aldi honetan, Europar Batasunaren eremuan laguntza mota hauen eskaintza eteteko planteamenduak protesta larriak sortu ditu zuzenean eraginpean dauden sektoreen aldetik, baita arduradun politikoen aldetik ere. Gaur egungoa bezalako ekonomia-krisialdi batean, derrigorrezkoa da ekonomikoki bideragarriak diren jarduera alternatiboak bultzatzea sektore hori birmoldatzeko.

Laburbilduz, eremu zientifikoan erabateko adostasuna dago tabakoaren kontsumoaren eraginen eta substantzia horren kearen inguruan. Era berean, praktikan jarri beharreko neurriei buruzko adostasun handia dago tabakismoaren prebentzioari begira: fenomeno horren aurrean sentsibilizazio handiago batek informatzeko, prestatzeko, hezteko, kontzientziazteko eta prebenitzeko neurriak jartzea eskatzen du (batez ere adingabeengan, gazteengan, emakumeengan eta era berean, lan-eremuan), baita tabakismoaren tratamendueskariei heltzeko ere.

Testuinguru honetan, kalteak murrizteko politikak eta programak beharrezko erreferenteak izan daitezke ahalik eta tabako-kontsumitzaile kopuru handienera iristeko, oraingoz substantzia hori kontsumitzeari utzi ezin diezaioketela edo utzi nahi ez dutela aintzat hartuta, haien osasun-egoera eta haien gizarte-egoeraren beste zenbait alderdi hobetzeko asmoarekin. Helburu hori lortzeko esku-hartzeek tabako-kontsumitzaileen premietara egokitzeko gaitasuna erakutsi behar dute (asistentzia-eskaintzaren irisgarritasuna handituz), baita informazioa eskaintzeko eta arrisku gutxiagoko kontsumo batera bideratutako hezkuntza sanitarioa sustatzeko gaitasuna ere.

Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenak onartzen duen moduan, tabakismoaren prebentzioaren esparruko estrategiak ebidentzia zientifikoan oinarritu beharko lirake. Zalantzarik gabe beharrezkoa da giza eta ekonomia-baliabideak eskura edukitzea ikerketak egiteko, tabakoaren multinazionalen interesekin inolako loturarik gabe. Hainbat erakunderen esperientziak daude, besteak beste

Britainia Handiko *Cancer Research Campaign* (CRG) erakundearenak. Erakunde horrek 1999. urtean jardun-kode bat ezarri zuen tabakoaren industriarekin zuzeneko edo zeharkako edozein lotura saihesteko (Simpson 2000).

Jardun guztien baturak ebaluatua izan behar du tabakismoaren prebentzioaren arloko aurrerapenen edo atzerapenen berri izateko, kontsumoen igoerak edo murrizketak, tabakoarekiko dauden jarreraren aldaketa, arriskuen pertzepzioa, legeak zenbateraino betetzen diren edo ez, salaketen ebazpena, etab.

Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmentetik eta Europako zuzentaraue-tatik datorren indarreko legeria laguntza esanguratsua bilakatzen ari da tabakismoaren prebentzian. Hala ere, Espainiako panorama politikoa Gobernu Zentralaren eta hainbat Gobernu Autonomikoen arteko liskar kezkarria ikusten da. Gobernu Autonomiko gehienetan oposizioko alderdi nagusia dago agintean. Gobernu Zentraletik autonomia-erkidegoetako araudi batzuk errekurritu dira, «lege nazionala urratzen baitute eta tabakismoaren arloan estatuko legeriaren helburuen aurkakoak baitira»⁷¹.

Iraganeko etapak gaintzeko, non tabakismoaren prebentzioaren eremuan egindako ekintzek ez zuten sinergia handirik sortzen, gizarte guztiaren koordina-zio eta partaidetza egoki bat behar da: Administrazioen arteko koordinazioa (Zentrala, Autonomikoak eta Tokikoak), sektore artekoa (eraginpeko sektore guztiena) eta nazioartekoa (OME, Europar Batasuna, etab.).

Aurreikustekoa da Europako Parlamentuaren gomendioak abian jartzeak (bi urteko epean lantoki itxi guztietan erretzeko erabateko debekua ezartzea, jatetxeak barne, baita Europar Batasuneko eraikin eta garraio publiko itxi guztietan eta haurrentzako parke publikoetan ere) lege-aldaketa berriak eragitea tabakoaren kontsumoen erregulazio murriztaileago baterantz.

Tabakismoaren prebentziorako politikak ezin du tabakoaren kontsumi-tzaileenganako tresna zigortzaile bilakatu kontsumitzaileak izateagatik bakarrik. Pertsona horiek, beste edozein herritarren gisa, eskubideen eta betebeharren subjektuak dira.

⁷¹ «Osasun Ministerioak tabakoaren aurkako legea bultzatzeko laguntza kendu die bost Erki-degori». <http://www.elmundo.es/elmundosalud/2007/10/25/tabaco/1193322625.html>

tx
i

o
n

s
f

t
o

e
r

n
m

a
e

3. Tabakoarekin erlazionatutako legeriaren azterketa. Inplikazio praktikoak legeriaren aplikazioan

ISABEL GERMÁN

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, bi legek arautzen dute tabakoaren kontsumoa: batetik, 18/1998 Legeak, ekainaren 25ekoak, droga-mendetasunen arloko prebentzioa, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoak, eta, bestetik, 28/2005 Legeak, tabakismoaren aurkako neurri sanitarioei buruzkoak eta tabakoaren produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituenak. Estatuko Legearen aurreikuspenetako asko dagoeneko jasota zeuden EAEko droga-mendetasunen prebentzioa, laguntza eta gizarteratzeari buruzko Legean. Nolanahi ere, 28/2005 Legea tabakora mugatzen da, eta droga-mendetasunei buruzko euskal legeak, aldiz, eremu zabalagoa dauka, tabakoari heldu ez ezik, legezko eta legez kontrako beste hainbat substantzia ere arautzen dituelako.

Urteetan zehar, tabakoaren erabileraren erregulazioa segurtasun-irizpideetara mugatzen zen lan eta testuinguru jakinetan arriskuak planteatzen zituelako (adibidez, gasolindegietan, antzokietan edo ibilgailu kolektiboetan). Legeria berriaren bitartez, «beste atmosfera kutsagarri den agente baten kontra pertsonak babesteko» beharra planteatzen da (UGT, 2006:25). Horrela, tabakismo pasiboak osasunerako dituen ondorioak ezartzerakoan, tabakismo pasiboaren kontsumoa askoz ere zorrotzago erregulatu da, batez ere esparru itxi publikoetan kerik gabeko guneak hedatzea bultzatuz.

Gaur egun tabakoaren kontsumoa erregulatzen duen Legeak tabakismoaren arazoa modu orokorrean hartzen du bere baitan, eta ez-erretzaileek tabakoaren keak kutsatu gabeko airea arnasteko duten eskubidea bermatzeko lege-neurriak garatzeaz gain, informazio- eta laguntza-estrategiak garatzen ditu tabakoak osasunean eragiten dituen arriskuak agerian uzteko eta tabakoaren mendetasuna saihestea errazteko (UGT, 2006:25).

Tabakoaren arloko Estatuko Lege berriak hainbat aldaketa erabakigarri eragin ditu, bereiziki lan-eremuan ondorioak sortuz, baita aisialdian ere. Lehen lantokietan eta aisialdirako zentroetan erre zitekeen, egun, ordea, legedi berriarekin «orokorrean ezin da erre» (Sala; Pedrajas, 2006: 12), lege-testuan bildutako salbuespen batzuekin.

Gure ingurunean, 28/2005 Legeak sartutako berrikuntzez gain, Lege horrek zer muga eta debeku berri hartzen dituen bere baitan aztertu beharko da droga-mendetasunei buruzko euskal Legeari dagokionez, Lege hori oinarritzkoa eta ondorengoa baita eta horren ondorioz, Estatuko Legearen xedapenak aplikatu beharko dira.

3.1. TABAKOAREN ARLOKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGERIA. 18/1998 LEGEA, EKAINAREN 25EKOA, DROGA-MENDE-TASUNAREN ARLOKO PREBENTZIOARI, LAGUNTZARI ETA GIZARTERATZEARI BURUZKOA

80ko hamarkadan tabakoaren arloko araudiak garatu ziren estatuan nahiz autonomia-erkidegoetan. Oro har, arau horietan ez-erretzaileek tabakoaren kerik gabeko airea arnasteko duten eskubidea erretzaileek lantokietan eta beste egoera batzuetan tabakoa kontsumitzeko duten eskubideari nagusitzen zaio (UGT, 2006:25).

Horrela, 1998. urtera bitarte Euskal Autonomia Erkidegoak droga-mendetasunen prebentzioari, laguntzari eta gizarteratzeari buruzko azaroaren 11ko 15/1988 Legea zuen. Lege horren helburua, De la Cuesta hitzetan (1992:94) «erakunde-ekintza eraginkor eta zentzuzko baten oinarria» osatzen duen eta modu zapaltzaile batean jardun beharrean pedagogia-izaera nabarmen batekin jardungo duen prebentzio-tresna bat lortzea da».

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko 10.12 artikulua, eskumen osoa ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoari gizarte-laguntzaren arloan, eta horrek eskumenaz baliatzea ahalbidetzen du droga-mendetasunen arloan.

Eusko Legebiltzarrak, eskumen hori erabili zuenean droga-mendetasunen arloko prebentzioari, laguntzari eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legea onartu zuen, aurreko 15/1988 Legearen joerari eutsiz. Lege hori Eusko Legebiltzarreko talde politiko guztiek aho batez babesten dute, eta Legeak EAEko gizarte- eta erakunde-jardunak erregulatzen dituen filosofia-, antolamendu- eta lege-esparrua ezartzen du droga-mendetasunen fenomenoaren aurrean.

Arrazoien azalpenean dagoeneko adierazten da Legearekin «euskal gizar-teari erkidego-estrategia gisa dei diezaiokegun droga-mendetasunen eta esku-hartzearen fenomenoak ulertzeko eredu bat» eskaini nahi zaiola. Erkidego-estra-

tegia hori fenomenoari erantzun orokor eta normalizatu bat ematea eta jardueren eta herritarren partaidetzaren plangintza drogek sor ditzaketen arazoaren aurreko konponbideen bilaketan ezinbestekotzat hartzea du bereizgarri.

3.1.1. TABAKOAREN ERREGULAZIOA 18/1998 LEGEAN

Droga-mendetasunei buruzko euskal Legeak «organismoari substantzia horiek eman ondoren, jarreran aldaketak eragiteko, osasunerako eragin kaltegarriak sortzeko edota mendetasuna sortzeko gai diren substantzia» gisa definitzen ditu drogak (2. artikulua) eta horien artean tabakoa sartzen du (2.c artikulua).

Prebentzioari buruzko Legearen II. Kapituluak tabakoaren sustapenaren, publizitatearen, salmentaren eta kontsumoaren kontrolerako neurri orokorrak arautzen ditu III. Atalean, gainerako legezko eta legez kontrako drogekin batera.

I. Droga-mendetasunen *prebentzioari* eta horrenbestez, tabakismoaren prebentzioari buruzko Kapitulua honek (adierazi dugun moduan tabakoa Lege honek arautzen dituen drogen artean dago), 3. artikuluan arlo horretako eskumenerako organoak biltzen ditu. Horrela, botere publikoei dagokie, bakoitzari dagokion eskumen-esparruan, programak eta jardunak garatzea, sustatzea, laguntzea, koordinatzea eta horien emaitzak kontrolatzea.

3. artikuluan bertan, droga-mendetasunen prebentzioaren arloan burutuko dituzten jardunak zerrendatzen dira:

- Drogen inguruan informatzea.
- Osasunerako ohiturak sortzen hezteak, bereziki gazteria kontuan hartuz.
- Profesionalak prebentzioaren arloan prestatzea.
- Mendetasuna sortzeko gai diren substantzien kontsumoan eragina duten gizarte-baldintzen inguruan esku hartzea, genero-ikuspegiari arreta berezia eskainiz.
- Prebentzio komunitarioko programen ezarpena eta garapena bultzatzea gaiaren inguruko politiken eraginkortasuna lortzeko.
- Drogen kontsumotik eratorritako osasunerako kalteak saihesteko neurriak hartzea kontsumitzaileentzat eta hirugarrenentzat.
- Gizarte-arloan drogen presentzia, sustapena eta salmenta ezabatzea eta, hala badagokio, mugatzea.

- Herri-administrazioek eta arazo honekin zerikusia duten gizarte-kolektiboek prebentziorako joera duten jarduerak koordinatu eta bultzatzea.

Hurrengo artikulua (4-10 artikulua) drogen kontsumoaren prebentzioaren neurri orokorreari buruzkoak dira. Horrela, 4. artikulua arabera, Udalek 36.4 eta 37.1 artikuluei jarraiki Eusko Jaurlaritzak egindako Droga-mendetasunen Planaren arabera Droga-mendetasunen Tokiko Plan bat egin beharko dute.

Udaletatik prebentzio komunitarioko programen garapena sustatu beharko da. Horrez gain, erakunde horiek komunitatearen eremuetan (besteak beste, ikastetxeak, gazte-, kultura- eta kirol-elkarteak, eta profesionalen kolektiboak, baita lantokiak ere) Droga-mendetasunen Planetik eratorritako prebentzio- eta jardun-programak bultzatu, koordinatu eta, hala badagokio, horien aplikazioa gauzatuko dute. Era berean, Udalak izango dira gizarte-ekimenarekin eta boluntarioekin lankidetzan sustatzeko arduradunak droga-mendetasunen arloan.

Prebentzio-lan hori burutu ahal izateko, Udalek Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren lankidetzan eduki ahal izango dute (4.3 artikulua).

II. Era berean, prebentzioaren eremuan eta edari alkoholduen eta tabakoaren kontsumoaren publizitatearen eta sustapenaren mugei dagokienez (I. Azpiatala), Legeak arreta berezia eskaintzen dio adingabeen babesari, adingabeak substantzia horien kontsumoan has ez daitezela.

13. artikulua, tabakoaren publizitatearen baldintza orokorrak biltzen ditu adingabeen babesaren inguruan (publizitateak ezin du adingabeei zuzenduta egon, eta ezin du adingabeen irudia edo ahotsa erabili), eta substantzia horren kontsumoa errendimendu fisiko hobearrekin, arrakastarekin zerikusia izan dezaketen jarduerak horiekin ez lotzearen eta substantzia horrek propietate terapeutikoak dituela adieraztearen inguruko hainbat mugekin, horrela tabakoaren neurrigabeko kontsumoa piztea saihestuz.

Tabakoaren kanpoko publizitatea debekatzen da, lege baimendutako produktio- eta salmenta-puntuen berezko seinale adierazgarriak izan ezik –nahiz eta beti 13. artikulua mugen mende egon–. Aurreko publizitateari dagokienez, era berean debekatuta dago leku publiko jakin batzuetan (16.1 artikulua), baita buzoiratzearen, postaren, telefonoaren eta etxerako mezuen bitartez egiten dena ere, baldin eta publizitatea esanbidez 18 urtez gorakoei zuzenduta badago.

Tabakismoaren aurkako osasun-neurriak eta tabako-produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzeko buruzko abenduaren 26ko 28/2005 Legea Estatuan onartzeak, aurrerago adieraziko dugun moduan, ta-

bakoaren publizitatearen, sustapenaren eta babesaren arloko debekuen eta mugen hedapena eragin du, arlo horretako Droga-mendetasunei buruzko euskal Legeak araututakoaren aurrean.

III. 21. artikulua 18 urtez azpikoei tabakoa saltzeko edo emateko debekua biltzen du (21.1 artikulua). Era berean, salmenta debekatuta dagoen toki horiek zerrendatzen dira:

- Osasun-zentroetan eta 18 urtez azpiko ikasleentzako ikastetxeetan.
- Kirol-instalazioetan.
- Eskaintzen dituzten jarduera eta zerbitzuak direla medio batez ere 18 urtetik beherakoak ibiltzen diren zentro eta lokaletan.

Era berean, tabakoa saltzeko makinaren bidezko salmentaren baldintzak arautzen ditu. Makina horiek establezimendu itxietan eta lokalaren arduradunaren bistan kokatuta egon behar dute, 18 urtez azpikoek makina horiek erabil ez ditzaten. Testuinguru horretatik kanpo, debekatuta dago makina horien bitartez tabakoa saltzea.

Era berean, tabakoaren salmenta debekatuta dago ontziratzeke eta etiketatzeke arauak betetzen ez direnean.

Publizitatearen kasuan gertatzen den moduan, tabakoaren salmentak muga eta debeku handiagoak topatu ditu 2005. urtean onartutako Estatuko Legean. Lege hori ondorengo idatz-zatietan aipatuko dugu.

IV. *Tabakoaren kontsumoari* dagokionez, 18/1998 Legearen 23. artikulua erretzeko debeku-maila ezberdinak ezartzen ditu. Tokiaren edo testuinguru-baldintzen arabera, erretzeko erabateko debekua, baimenik eza edota erretzeko gaitutako guneetan bakarrik erretzeko baimena egongo da.

23.1 artikulua zehazten du ibilgailu edo garraiobide publiko eta pribatu osagarri guztietan erretzeko erabateko debekua dagoela, zehazki honako hau adieraziz:

- hiri-barruko eta hiriarteko ibilgailu edo garraiobide kolektiboetan, eta
- eskola-garraioko ibilgailuetan eta oso-osorik edo partzialki 18 urtez azpikoak eta gaixoak garraiatzen dituzten ibilgailuak.

Kasu horietan, araua betetzen dela zaintzeko arduradunak garraiobideen enpresa titularrak izango dira. Garraiobideen enpresa titular horiek erretzeko debekua adierazteko obligazioa dute (txarteletan adierazi beharko da), baita adierazitako debekua betetzen ez bada sor daitezkeen zigorrak ere.

Era berean, adierazitako 23. artikulua hiru hirugarren idatz-zatiaren arabera, ezin da honako toki hauetan erre:

- tabakoaren kaltegarritasunaren eta industria-kutsatzaileak eragindako kaltearen nahasketa dela medio langileen osasunerako arriskua handiagoa den lekuetan, eta
- emakume haurdunek lan egiten duten lan-eremuetan.

23. artikulua 4. idatz-zatian erretzea debekatuta dagoen hainbat toki zerrendatzen dira, nahiz eta kasu honetan salbuespen batzuk egon, erretzaileentzat guneak gaituz. Zerrendatutako tokiak honako hauek dira:

- haurtzaindegietan eta 18 urtez azpikoei zuzendutako gizarte-arretako zentroetan,
- zentro, zerbitzu edo establezimendu sanitarioetan,
- gizarte-zerbitzuen zentroetan,
- ikastetxeetan,
- Herri-administrazioen sailetan, aire zabalekoetan izan ezik,
- janariak landu, eraldatu, prestatu, dastatu edo saltzen diren lokaletan.
- oro har, erabilera publikorako, irakurketarako eta erakustaldietarako diren aretoetan, besteak beste, museoetan, liburutegietan eta erakustaldiak jaratzeko eta hitzaldiak egiteko diren aretoetan,
- sarritan jende ugari biltzen den merkataritza-lokal itxietan,
- antzokietan, zineetan eta bestelako ikuskizunak (publikoak edo kirol-arlokoak) egiten diren lokal itxietan,
- igogailu eta jasogailuetan.

Jarraian, Legeak erretzaileentzako guneak gaitzeko aukera dagoen tokiak adierazten ditu, aurretik adierazitako tokien artetik (23.5 artikulua). Gune horiek behar bezala eta argi seinaleztatuta egon beharko dute:

- antzerkirako eta bestelako ikuskizunetarako (publikoak edo kirol-arlokoak) lokal itxietan,
- garraio kolektiboko itxarongeletan,
- Herri-administrazioetako dependentzietan.

Kasu horietan, ezin badira gune horiek mugatu, erretzeko debekua mantendu beharko da lokal osoan.

Era berean, erretzaileentzako guneak ezar daitezke, betiere behar bezala seinaleztatuta:

- jende ugari biltzen den merkataritza-lokal itxietan (23.6 artikulua),
- zentro eta establezimendu sanitarioetan eta gizarte-zerbitzuen arlokoetan. Bertan, zentroetako zuzendaritzak erretzaileentzat egokitutako gune horiek bereizi eta seinaleztatu egin beharko ditu. Edonola ere, egokitutako gune horiek independenteak izango dira alde batetik, zerbitzuen erabiltzaileentzat eta bisitariarentzat eta beste aldetik, zentroetako langileentzat (23.7 artikulua),
- ikastetxeak. Horietan, espresuki zuzendaritza-organoak erretzaileentzat gordetako guneetan utziko da erretzen eta inolaz ere gune horietan ezin izango dira irakasleak eta ikasleak elkartu, baldin eta ikasleak 18 urtez azpikoak badira (23.8 artikulua).

23. artikulua 5. idatz-zatiak «erretzea uzten ez duten edota erretzeko debekua dagoen edozein lokaletan» erretzaileentzako guneak egokitzeko aukera aurreikusten du; horrenbestez, ezin izango dira inoiz erretzaileentzako guneak egokitu artikulua honetako 1. idatz-zatiak adierazten dituen kasuetan. Hala ere, erretzeko guneak egokitzeko baimena dagoen lokal horietan egokitze hori ezin bada egin lokaletako baldintzak direla-eta, erretzeko debekua mantendu beharko da lokal osoan.

Artikulu honek aipatzen dituen betebeharrak betetzeko arduradunei dago-kienez, horiek izango dira establezimenduetako titularrak, baita eskumeneko organoak ere, Herri-administrazioen zentroen edo sailen kasuetan.

Herri-administrazioek mugak eta debekuak behar bezala seinaleztatu behar dituzte, eta erreklamazio-orriak eduki behar dituzte erabiltzaileen eskura, arauak ez direla bete jasota utzi ahal izateko, hala gertatu bada.

Tabakismoaren aurkako osasun-neurriei eta tabakoaren produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzeari buruzko abenduaren 26ko 28/2005 Legeak zabaldu egin du tabako-kontsumoaren debekua, euskal Legeak erretzeko debekatutako tokien kopurua handituz. Horrenbestez, Estatuko arauan ezarritakoa bete beharko da oinarrizko legea den aldetik, autonomiako araudiak ezin izango duelako erretzea baimendu 28/2005 Legeak debekatzen dituen toki eta baldintzetan.

LABURPEN-TAULA

18/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, droga-mendetasunen arloko prebentzioari, laguntzari eta gizarteratzeari buruzkoa

Drogak: «organismoari substantzia horiek eman ondoren, jarreran aldaketak eragiteko, osasunerako eragin kaltegarriak sortzeko edota mendetasuna sortzeko gai diren substantziak» (2. artikulua). Horien artean tabakoa dago (2.c artikulua).

I. Prebentzioa

- Eskumenerako organoak: botere publikoak, dagokion eskumen-esparruan.
- Garatu, sustatu, lagundu, koordinatu eta kontrolatu behar dituzten programak eta jardunak:
 - Drogen inguruan informatzea.
 - Osasunerako ohiturak sortzen hezteak, bereziki gazterientzako.
 - Profesionalak prebentzioaren arloan prestatzea.
 - Gizarte-baldintzen inguruan esku hartzea, genero-ikuspegiari arreta berezia jarritz.
 - Prebentzio komunitarioko programen ezarpena eta garapena bultzatzea.
 - Osasunerako kalteak saihesteko neurriak hartzea.
 - Gizarte-arloan drogen presentzia, sustapena eta salmenta ezabatzea eta mugatzea.
 - Herri-administrazioen eta gizarte-kolektiboen artean prebentzio-jarduerak koordinatzea eta bultzatzea.
- Udalek:
 - Eusko Jaurlaritzak egindako Droga-mendetasunen Planaren araberrako Droga-mendetasunen Tokiko Plan bat egitea (36.4 eta 37.1).
 - Prebentzio komunitarioko programen garapena sustatzea.
 - Erkidegoko Droga-mendetasunen Planetik eratorritako prebentzio- eta jardun-programen aplikazioa bultzatu, koordinatu eta gauzatzea.
 - Gizarte-ekimenarekin lankidetzak sustatzea.
 - EAEko Administrazio Orokorren lankidetzak eduki ahal izango dute (4.3 artikulua).

II. Tabakoaren publizitatearen eta sustapenaren mugak

- Tabakoaren publizitatearen baldintza orokorrak (13. artikulua). Mugak:
 - adingabeen babesak: publizitatea ezin zaie adingabeei zuzendu, eta adingabeen irudia edo ahotsa ezin da erabili,

- tabakoaren kontsumoa ezin zaie errendimendu fisiko hobearekin, arrakastarekin, zerikusia izan dezaketen jarduerari lotu,
- debekatuta dago tabakoak propietate terapeutikoak dauzkala iradokitzea,
- neurritz kanpoko kontsumoa sustatzen saihestu behar da.
- Tabakoaren kanpo-publizitatea debekatuta dago. Salbuespena:
 - baimendutako produkzio- eta salmenta-puntuak non dauden ohartarazteko seinaleak.
- Barne-publizitatea. Debeekatuta:
 - toki publiko jakin batzuetan (16.1 artikulua),
 - buzoiratzearen, postaren, telefonoaren eta etxerako mezuen bitartez egiten dena, 18 urtez gorakoentzako izan ezik.
- 28/2005 estatuko Legeak tabakoaren publizitatearen, sustapenaren eta babesaren arloko debekuak eta mugak hedatu ditu, Droga-mendetasunei buruzko euskal Legeak araututakoaren aurrean.

III. Tabakoa saltzea eta ematea

- Debeekatuta dago tabakoa 18 urtez azpikoei tabakoa saltzea edo ematea (21,1. artikulua).
- Salmenta honako toki hauetan debekatzen da:
 - Osasun-zentroetan eta 18 urtez azpikoentzako ikastetxeetan.
 - Kirol-instalazioetan.
 - Bereziki 18 urtez azpikoak joaten diren zentro eta lokaletan.
- Saltzeko makinaren bitartez saltzeko baldintzak:
 - Establezimendu itxietan kokatu behar dira.
 - Arduradunaren aurrean kokatuko dira, 18 urtez azpikoek makina ez erabiltzea kontrola dezan.
 - Testuinguru horretatik kanpo, debekatuta dago makina horien bitartez saltzea.
- Salmenta debekatuta dago ontziratze eta etiketatze arauak betetzen ez direnean.
- Tabakoaren salmentak muga eta debeku gehiago ditu 28/2005 Legean.

.../...

IV. Tabakoaren kontsumoa (23. artikulua)

Debeku-maila desberdinak, tokien edo baldintzen arabera.

- *Erabateko debekua*: garraio publikoko eta pribatu osagarriko ibilgailu edo garriobideetan:
 - kolektiboetan, hirikoetan eta hiriartekoetan,
 - eskola-garraioan eta 18 urtez azpikoen eta gaixoen garraioan.

Arduradunak: garraio bideen enpresa titularrak. Honako hauek seinaleztatu behar dira nahitaez:

- erretzeko debekua, txarteletan ere adierazi beharko dena,
- ez betetzeak ekar ditzakeen zigorrak.
- *Honako leku hauetan debekatuta dago erretzea*:
 - tabakoaren kutsagarritasuna eta kutsatzaile industrialak baturik, langileen osasunerako arriskua handiagoa den tokietan, eta
 - emakume haurdunek lan egiten duten lan-eremuetan.
- *Honako leku hauetan debekatuta dago erretzea (salbuespen batzuk badaude, betiere erretzaileentzako guneak gaitzen badira)*:
 - haurtzaindegietan eta 18 urtez azpikoentzako gizarte-arretako zentroetan,
 - zentro, zerbitzu edo establezimendu sanitarioetan,
 - gizarte-zerbitzuen zentroetan,
 - ikastetxeetan,
 - Herri-administrazioetako sailetan, aire zabalekoetan izan ezik,
 - janariak landu, eraldatu, prestatu, dastatu edo saltzen diren tokietan,
 - erabilera publiko orokorreko aretoetan,
 - sarritan jende ugari biltzen den merkataritza-lokal itxietan,
 - antzokietan, zineetan eta bestelako ikuskizunak (publikoak edo kirol-arlokoak) egiten diren lokal itxietan,
 - igogailu eta jasogailuetan.

Honako toki hauetan erretzaileentzako guneak ezar daitezke, behar bezala seinaleztatuta:

- antzerkirako eta bestelako ikuskizunetarako (publikoak edo kirol-arlokoak) lokal itxietan,

- garraio kolektiboko itxarongeletan,
- Herri-administrazioetako sailetan,
- erretzea baimenduta ez dagoen edo debekatuta dagoen edozein lokaletan,
- jende ugari biltzen den merkataritza-lokal itxietan,
- zentro eta establezimendu sanitarioetan eta gizarte-zerbitzuen arlokoetan,
- ikastetxeetan.

Gune horiek mugatzea ezinezkoa bada: lokal guztian debekatuta dago erretzea.

Arduradunak: establezimenduetako titularrak eta Herri-administrazioetako zentroetako eta sailetako eskumeneko organoak:

- mugak eta debekuak behar bezala seinaleztatu behar dituzte,
- erreklamazio-orriak eduki behar dituzte erabiltzaileen eskura.

28/2005 Legeak zabaldu egin du tabako-kontsumoaren debekua, euskal Legeak erretzeko debekatutako tokien kopurua handituz.

3.1.2. TABAKOAREKIN ERLAZIONATUTAKO ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK DROGA-MENDE TASUNARI BURUZKO EUSKAL LEGEAN

18/1998 Legearen V. Kapituluak arau-haustek eta zigorrak zehazten ditu administrazioaren arloko arau-haustearen definizioarekin hasiz, Legean araututako gaiak dagokienez: Legean tipifikatutako edozein ekintza eta ez-egite, erantzukizun zibilak, penalak edo bestelako erantzukizunak bazter utzi gabe, adierazitako ekintzaren edo ez-egitearen ondorio gisa.

Tabakoari dagokionez, substantzia horren publizitatearen eta sustapenaren mugak ez betetzea arau-haustetzat hartzen da. Arau-hauste horiek 13, 14, 15, 16, 17 eta 18.1, 2 eta 3 artikuluetan aipatzen dira, hau da, honako hauek dira arau-haustek:

- aurretik adierazitako 13. artikuluan araututako tabakoaren publizitatearen baldintza orokorrak ez betetzea,
- azoka, erakusketa eta antzekoetan tabakoa sustatzea, tabakoa sustatzen duten guneak behar bezala bereizi gabe (14. artikulua),
- 15 eta 16 artikuluetan bildutako tabakoaren barne- eta kanpo-publizitatearen baldintzak ez betetzea,

- komunikabideei dagokienez tabakoaren publizitatearen mugak ez betetzea (17. artikulua),
- 18. artikuluan aipatzen diren bestelako publizitate motetan kontuan hartu behar diren baldintzak ez betetzea.

I. Arau-haustek, Droga-mendetasunei buruzko euskal Legearen 47. artikuluen arabera, arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke. Arau-hauste horiei mota ezberdinetako zigorrak egokituko zaizkie, 50. artikuluan eta hurrengo artikuluetan araututako hainbat irizpideren arabera.

Tabakoari dagokionez, honako hauek hartzen dira arau-hauste *arintzat*:

- azoka, erakusketa eta antzeko jardueretan tabakoa sustatzea, guneak behar bezala bereizi gabe (14. artikulua),
- barne-publizitatea, buzoiratuz, postaz, telefonoz edo etxerako mezuez egindakoa, 18 urtez gorakoentzako izan ezik,
- ibilgailu publikoetan edo pribatu osagarrietan debekua ez seinaleztatzea, edo txarteletan ez adieraztea. Erabiltzaileentzat erreklamazio-orriak ez edukitzea,
- lokaletan, zentroetan eta establezimenduetan erretzeko debekua ez seinaleztatzea, baita erretzea debekatua dagoen Herri-administrazioen zentro edo sailetan ere, eta erabiltzaileentzat erreklamazio-orriak ez edukitzea.

Honako ekintza edo ez-egite hauek arau-hauste *larriak* izango dira, «baldin eta jokabide horiek osasunerako arrisku edo kalte larriak eragiten badituzte:

- azoka, erakusketa eta antzeko jardueretan tabakoa sustatzea, guneak behar bezala bereizi gabe (14. artikulua),
- barne-publizitatea, buzoiratuz, postaz, telefonoz edo etxerako mezuez egindakoa, 18 urtez gorakoentzako izan ezik,
- 13. artikuluan araututako tabakoaren publizitatearen baldintza orokorrak ez betetzea,
- 15. artikuluko kanpo-publizitateko baldintzak ez betetzea,
- publizitatea egitea 16.1 artikulua urratuz, hau da, toki publikoetan:
 - batez ere 18 urtetik beherako bezeroentzat diren toki publikoetan,
 - kirol-instalazioak eta -zentroak, osasun-zentroak, ikastetxeak eta horien sarbideak,
 - zineak eta ikuskizun-aretoak, gaueko azken saioan izan ezik; azkeneko saioan erretzea baimenduta dago,

- garraiobide publikoen barruan, geltokietan eta portu eta aireportuetako bezeroentzako lokaletan.
- komunikabideei dagokienez, 17. artikulua aipatzen dituen tabakoaren publizitatearen mugak ez betetzea,
- 18. artikuluan aipatzen diren bestelako publizitate motetan kontuan hartu behar diren baldintzak ez betetzea,
- tabakoaren salmenta:
 - osasun-zentroetan eta 18 urtez azpikoentzako ikastetxeetan,
 - kirol-instalazioetan,
 - bereziki 18 urtez azpikoak joaten diren zentro eta lokaletan,
 - tabako-makinetan 21. artikulua baldintzak betetzen ez direnean,
 - ontziratzeari eta etiketatzeari buruzko arauak ez betetzea.

Era berean, arau-hauste larritzat hartzen da 23.5, 7 eta 8 artikulua aipatzen dituen erretzaileentzako gune bereziak ez jartzea, hau da:

- antzerkirako eta bestelako ikuskizunetarako (publikoak edo kirol-arlokoak) lokal itxietan,
- garraio kolektiboko itxarongeletan,
- Herri-administrazioetako sailetan,
- zentro eta establezimendu sanitarioetan eta gizarte-zerbitzuen arlokoetan,
- ikastetxeetan,
- erretzea baimenduta ez dagoen edo debekatuta dagoen beste edozein tokitan, baldin eta erretzeko gune bat gaitzen ez bada edo gaitutako guneak baldintzak betetzen ez baditu.

18/1998 Legeak arau-hauste *oso larritzat* hartzen ditu honako ekintza edo ez-egite hauek, «baldin eta jokabide horiek osasunerako arrisku edo kalte oso larriak eragiten badituzte»:

- azoka, erakusketa eta antzeko jardueretan tabakoa sustatzea, guneak behar bezala bereizi gabe (14. artikulua),
- barne-publizitatea, buzoiratuz, postaz, telefonoz edo etxerako mezuez egindakoa, 18 urtez gorakoentzako izan ezik,
- 13. artikuluan araututako tabakoaren publizitatearen baldintza orokorrak ez betetzea,
- 15. artikuluko kanpo-publizitateko baldintzak ez betetzea,

- publizitatea egitea 16.1 artikulua urratuz, hau da, toki publikoetan:
 - batez ere 18 urtetik beherako bezeroentzat diren toki publikoetan,
 - kirol-instalazioak eta -zentroak, osasun-zentroak, ikastetxeak eta horien sarbideak,
 - zineak eta ikuskizun-aretoak, gaueko azken saioan izan ezik; azkeneko saioan erretzea baimenduta dago,
 - garraiobide publikoen barruan, geltokietan eta portu eta aireportuetako bezeroentzako lokaletan.
- komunikabideei dagokienez, 17. artikulua aipatzen dituen tabakoaren publizitatearen mugak ez betetzea,
- 18. artikuluan aipatzen diren bestelako publizitate motetan kontuan hartu behar diren baldintzak ez betetzea,
- tabakoaren salmenta:
 - osasun-zentroetan eta 18 urtez azpikoentzako ikastetxeetan,
 - kirol-instalazioetan,
 - bereziki 18 urtez azpikoak joaten diren zentro eta lokaletan,
 - tabako-makinetan 21. artikulua baldintzak betetzen ez direnean,
 - ontziratzeari eta etiketatzeari buruzko arauak ez betetzea.

II. Legeak zigor mota ezberdinak aurreikusten ditu (50. artikulua):

- Ohartarazpena.
- Isuna.
- Jarduera aldi baterako etetea edota, hala badagokio, establezimendua, erabat edo zati batean, ixtea bost urterako gehienez.
- Autonomia Erkidegoaren laguntza publikorik jasotzeko debekua, gehienez urte 1etik 5 urtera bitarteko epean.

Zigor horiek arau-haustea eragin duten egintzekin zuzenean erlazionatutako merkantzien edo objektuen konfiskazioa ekarriko dute berekin.

Arduradunek arau-haustea aldatutako egoera leheneratu beharko dute eta horrez gain, arau-haustearen ondorioz sortutako kalte-galerengatik kalte-ordaina ordaintzeari ekin beharko diote, egindako kaltea konpontzeko helburuarekin.

III. Isunen zenbatekoa eta gainerako zigorren aplikazioa zehazteko irizpideei dagokienez, 51. artikulua honako graduazio-irizpide hauek biltzen ditu:

- Osasunerako sortutako arriskuaren edo kaltearen larritasuna.
- Erruduntasun- edo asmo-maila.
- Sortutako aldaketa eta eragin soziala.
- Lortutako onuraren zenbatekoa.
- Arau-hauslearen gaitasun ekonomikoa.
- Arau-hauslearen kokapena merkatuan.
- Errepikatzea eta berrerortzea.

Urtebeteko epean mota bereko arau-hauste bat –arina, larria, oso larria– baino gehiago egitea berrerortzetzat hartzen da, betiere epai irmoaren bitartez deklaratu bada. Aldiz, errepikatzea beste mota bateko arau-hauste bat egitea izango litzateke, betiere epai irmoaren bitartez ebazpena eman dela zehaztuz (48. artikulua).

Isunaren balioespena egiteko, aringarri oso kualifikatu gisa jardungo duten hainbat zirkunstantzia kontuan hartu ahal izango dira:

- Arau-hausleak, bere jokabidea eteteko errekeritua izanik, errekerimenduari erantzutea.
- Arau-hausleak, zehapen-espeditatearen ebazpena eman baino lehenago, prozedurari hasiera eman zion jokabidearen ondorioak erabat arintzea edo konpontzea.

Zigorren ezarpenari dagokionez, arau-haustearen kategoria bakoitzari zenbateko eta zigor-mota ezberdinak dagozkio:

- Zigorrek arau-hauste *arinen* kasuan: ohartarazpena edota 500.000 pezeta-rainoko isuna.
- Arau-hauste *larriei* dagozkien zigorrek: 500.001-2.500.000 pezetako isunak edota jarduera aldi baterako etetea edota, hala badagokio, establezimendua aldi baterako ixtea, guztiz edo partzialki, gehienez 2 urtez. Zigor osagarri gisa, Autonomia Erkidegoko edozein laguntza mota eskuratzeko debekua erabaki ahal izango da, gehienez 2 urtez.
- Arau-hauste *oso larrietarako* zigorrek: 2.500.001-100.000.000 pezetako isuna, edota establezimenduaren jarduera aldi baterako ixtea, guztiz edo partzialki, gehienez 5 urtez. Zigor osagarri gisa, Autonomia Erkidegoko edozein laguntza mota eskuratzeko debekua erabaki ahal izango da, gehienez bost urtez.

Tabakoaren publizitateari buruzko arauak ez betetzeagatik arau-hausteen kasuan, 13, 14, 15, 16, 17 eta 18.1, 2 eta 3 artikuluen arabera, isuna handitzeko aukera izango da, legez kontrako publizitatea landu eta hedatzeko kostuaren % 10 gehienez, eta bildutakoa EAEko komunikabideetan droga-mendetasunak prebenitzeko estrategiak lantzerantz bideratuko da.

53. artikuluan Legean aurreikusitako arau-hausteen eta zigorren preskripzio-erregimena biltzen da:

- Arau-hausteen preskripzioa:

- Arinak: 6 hilabete.
- Larriak: 2 urte.
- Oso larriak: 5 urte.

- Zigorren preskripzioa:

- Arinak: urte 1.
- Larriak: 2 urte.
- Oso larriak: 5 urte.

IV. Zigortzeko ahalmena egindako arau-haustearen izaeraren nahiz arau-haustearen eremuaren arabera izango da. Horrela, eta tabakoari dagokionez, alkatuek eskumena izango dute 14, 16.2, 21 eta 23 artikuluetako ez-betetze arinengatik edo larriengatik zigorra ezartzeko, hortaz, honako arau-hauste hauei dagokienez:

- azoka, erakusketa eta antzeko jardueretan tabakoa sustatzea, guneak behar bezala bereizi gabe (14. artikulua),
- 15. artikuluko kanpo-publizitateko baldintzak ez betetzea,
- publizitatea egitea 16.1 artikulua urratuz, hau da, toki publikoetan:
 - batez ere 18 urtetik beherako bezeroentzat diren toki publikoetan,
 - kirol-instalazioak eta -zentroak, osasun-zentroak, ikastetxeak eta horien sarbideak,
 - zineak eta ikuskizun-aretoak, gaueko azken saioan izan ezik; azkeneko saioan erretzea baimenduta dago,
 - garraiobide publikoen barruan, geltokietan eta portu eta aireportuetako bezeroentzako lokaletan.
- tabakoa saltzea eta hornitzea 21. artikuluko araua hautsiz,
- tabakoa kontsumitzea 23. artikuluan ezarritakoa hautsiz.

Era berean, alkateek eskumena izango dute 16.2 eta 18.3 artikuluetako arau-hausteei dagokienez, jarduera arau-hausleak udal-arloko lurralde-eremua gainditzen ez badu:

- barne-publizitatea, buzoiratuz, postaz, telefonoz edo etxerako mezuez egindakoa, 18 urtez gorakoentzako izan ezik (16.2 artikulua),
- tabakoaren publizitatea egitea, kiroleko, hezkuntzako, kulturako edo gizar-teko jarduerak babesteko, edo lehiaketa, zozketa eta kontsumoa eragiteko antzeko beste moduen bitartez (18.3 artikulua).

Era berean, aurreko kasuez gain, alkateek legearen beste edozein ez-betetze zigortzeko eskumena izango dute, betiere arau-hauste larriak edo oso larriak ez badira.

Tabakoarekin erlazionatutako arau-hausteengatik zigortzeko eskumena droga-mendetasunen arloko eskumeneko departamentuko organoari egokituko zaio honako kasu hauetan:

- 14., 15., 16.1 eta 21. artikuluen oso arau-hauste larrien kasuan:
 - azoka, erakusketa eta antzeko jardueretan tabakoa sustatzea, guneak behar bezala bereizi gabe (14. artikulua),
 - 15. artikuluko kanpo-publizitateko baldintzak ez betetzea,
 - publizitatea egitea 16.1 artikulua urratuz, hau da, toki publikoetan:
 - batez ere 18 urtetik beherako bezeroentzat diren toki publikoetan,
 - kirol-instalazioak eta kirol-zentroak, osasun-zentroak, ikastetxeak eta horien sarbideak,
 - zineak eta ikuskizun-aretoak, gaueko azken saioan izan ezik; azkeneko saioan erretzea baimenduta dago,
 - garraiobide publikoen barruan, geltokietan eta portu eta aireportuetako bezeroentzako lokaletan.
 - tabakoa saltzea eta hornitzea 21. artikuluan adierazitako araua hautsiz,
- 13., 17. eta 18.1, 2 eta 3 artikuluen arau-hauste larrietarako edo oso larrietarako:
 - 13. artikuluan araututako tabakoaren publizitatearen baldintza orokorrak ez betetzea,
 - Komunikabideei dagokienez, 17. artikulua aipatzen dituen tabakoaren publizitatearen mugak ez betetzea,

- zeharka edo ezkutuan tabako-publizitatea ekar dezaketen marka, objektu edo produktuen publizitatea (18.1 artikulua),
 - Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako telebista-igorgailu zentroetan eta Autonomia Erkidegoan egindako programetan ezin izango dira agertu programako aurkezleak edo elkarrizketatuak tabakoa erretzen edo alboan tabakoa dutela, ezta produktu horien markak, izen komertzialak, logotipoak zein bestelako zeinuak, produktu horiek identifikatzeko edo gogoratzeko balio dutenak, bistan direla (18.2),
 - tabakoaren publizitatea egitea, kiroleko, hezkuntzako, kulturako edo gizarteko jarduerak babesteko, edo lehiaketa, zozketa eta kontsumoa eragiteko antzeko beste moduen bitartez (18.3 artikulua).
- 16.2 eta 18.3 artikuluetako arau-hausteak direnean, betiere jarduera arau-hausleak udal-arloko eremua gainditzen badu:
 - barne-publizitatea, buzoiratuz, postaz, telefonoz edo etxerako mezuez egindakoa, 18 urtez gorakoentzako izan ezik (16.2 artikulua),
 - edarien edo tabakoaren publizitatea egitea, kiroleko, hezkuntzako, kulturako edo gizarteko jarduerak babesteko, edo lehiaketa, zozketa eta kontsumoa eragiteko antzeko beste moduen bitartez (18.3 artikulua).

Bitartean, zigortzeko ahalmena Gobernu Kontseiluari egokituko zaio, 15.000.000 pezeta baino gehiagoko isunak ezartzeko, baita establezimenduen jarduera guztiz edo partzialki aldi baterako ixteko ere.

Hala ere, udalerrri batek arau-hauste bat jazartzeko duen eskumenaz inhibitzeko aukera aurreikusten du Legeak. Kasu horretan, eta errekerimendutik bi hilabete igaro ondoren, Eusko Jaurlaritzaren organoak izango dira, dagokion gaiaren arabera dauzkaten eskumenen arabera, zehapen-espeditente zehatza irekitzeko, bideratzeko eta ebazteko eskumena beren gain hartuko dutenak.

Edonola ere, eta zehapen-prozedurari dagokionez, zehatzeko ahalmenaren gauzatzeak Estatuko oinarrizko legerian ezarritakora egokitu beharko du, hau da, Zehatzeko Ahalmena Gauzatze Prozeduraren Araudia onartzen duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretura eta Herri-administrazioei dagokien Legera (Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea) egokitu beharko du.

Harreman juridiko bereziak arautzen dituen 56. artikuluan, zehapen-araubidearen salbuespen bat topatzen dugu. Horrela, herri-administrazioekin kontratu-harreman batengatik lotutako pertsonen, baita administrazio horien zerbitzura dauden pertsonen ere, beren zehapen-araubidea arautzen duten arauak aplikatuko zaizkie.

LABURPEN-TAULA

18/1998 Legean tabakoarekin zerikusia duten arau-haustek eta zigorrak

Arau-haustek honako hauek dira:

- 13. artikuluko publizitatearen baldintza orokorrak ez betetzea.
- Azoka, erakusketa eta antzekoetan tabakoa sustatzea, guneak behar bezala bereizi gabe (14. artikulua).
- 15 eta 16 artikuluetako barne- eta kanpo-publizitatearen baldintzak ez betetzea.
- Komunikabideetan publizitatearen mugak ez betetzea (17. artikulua).
- 18. artikuluko bestelako publizitate moten baldintzak ez betetzea.

I. Arau-hausteen sailkapena (47. artikulua)

- *Arau-hauste arinak:*
 - azoketan, erakusketetan eta antzekoetan sustatzea, guneak bereizi gabe,
 - barne-publizitatea, buzoiratuz, postaz, telefonoz edo etxerako mezuez egingakoa, 18 urtez gorakoentzako izan ezik,
 - ibilgailu publikoetan edo pribatu osagarrietan debekua ez seinaleztatzea, edo txarteletan ez adieraztea; lokal, zentro eta establezimenduetan debekua ez seinaleztatzea; baita erretzea debekatua dagoen Herri-administrazioetako zentro edo dependenzietan ere.
- *Arau-hauste larriak:* honako ekintza edo ez-egite hauek, «baldin eta jokabide horiek osasunerako arrisku edo kalte larriak eragiten badituzte»:
 - azoketan, erakusketetan eta antzekoetan sustatzea, guneak bereizi gabe,
 - barne-publizitatea, buzoiratuz, postaz, telefonoz edo etxerako mezuez egingakoa, 18 urtez gorakoentzako izan ezik,
 - 13. artikuluko publizitatearen baldintza orokorrak ez betetzea,
 - 15. artikuluko kanpo-publizitateko baldintzak ez betetzea,
 - toki jakin batzuetan publizitatea egitea (18 urtez azpikoentzako tokiak; kirol-zentroak, zentro sanitarioak eta ikastetxeak eta horietako sarbideak; zineak eta ikuskizun-aretoak, gaueko azken saioan izan ezik; garraio publiko, geltoki, portu eta aireportuak),
 - komunikabideei dagokienez 17. artikuluan adierazitako publizitate-mugak ez betetzea,
 - 18. artikuluko bestelako publizitate moten baldintzak ez betetzea,

.../...

.../...

- 18 urtez azpikoei tabakoa saltzea zentro sanitario eta ikastetxeetan; kirol-instalazioetan eta 18 urtez azpikoentzako lokaletan tabakoa saltzea; saltzeko makinetan tabakoa saltzea 21. artikuluko betekizunak bete gabe; eta ontziratzeke eta etiketatzeke arauak ez betetzea,
- honako toki hauetan erretzeko guneak ez gaitzea: antzokietan eta ikuskizun- edo kirol-areto publiko edo itxietan; garraio kolektiboko itxarongeletan; Herri-administrazioetan; zentro eta establezimendu sanitarioetan eta gizarte-zerbitzuen arlokoetan; ikastetxeetan; erretzea baimenduta ez dagoen edo debekatuta dagoen beste edozein tokitan, baldin eta erretzeko gune bat gaitzen ez bada edo gaitutako guneak baldintzak betetzen ez baditu.
- *Arau-hauste oso larriak*: honako ekintza edo ez-egite hauek, «baldin eta jokabide horiek osasunerako arrisku edo kalte oso larriak eragiten badituzte»:
 - azoka, erakusketa eta antzekoetan tabakoa sustatzea, guneak behar bezala bereizi gabe (14. artikulua),
 - barne-publizitatea, buzoiratuz, postaz, telefonoz edo etxerako mezuez egindakoa, 18 urtez gorakoentzako izan ezik,
 - 13. artikuluko publizitatearen baldintza orokorrak ez betetzea,
 - 15. artikuluko kanpo-publizitateko baldintzak ez betetzea,
 - toki jakin batzuetan publizitatea egitea (18 urtez azpikoentzako tokiak; kirol-zentroak, zentro sanitarioak eta ikastetxeak eta horietako sarbideak; zineak eta ikuskizun-aretoak, gaueko azken saioan izan ezik; garraio publiko, geltoki, portu eta aireportuak),
 - komunikabideei dagokienez 17. artikuluan adierazitako publizitate-mugak ez betetzea,
 - 18. artikuluko bestelako publizitate moten baldintzak ez betetzea,
 - 18 urtez azpikoei tabakoa saltzea zentro sanitario eta ikastetxeetan; kirol-instalazioetan eta 18 urtez azpikoentzako lokaletan tabakoa saltzea; saltzeko makinetan tabakoa saltzea 21. artikuluko betekizunak bete gabe; eta ontziratzeke eta etiketatzeke arauak ez betetzea.

II. Zigor-motak (50. artikulua)

- Ohartarazpena.
- Isuna.
- Jarduera aldi baterako etetea edota, hala badagokio, establezimendua, erabat edo partzialki, ixtea bost urterako gehienez.
- Autonomia Erkidegoaren laguntza publikoa jasotzeko debekua, gehienez urte 1etik 5 urtera bitarteko epean.

Arau-haustea eragin duten egintzekin zuzenean erlazionatutako merkantzien edo objektuen konfiskazioa ekarriko du berekin.

Arduradunek:

- arau-hausteak aldatutako egoera leheneratu beharko dute,
- arau-haustearen ondorioz sortutako kalte-galerengatiko kalte-ordainari ekin beharko diote, egindako kaltea konpontzeko helburuarekin.

III. Isunen zenbatekoa eta gainerako zigorren aplikazioa zehazteko irizpideei dagokienez, 51. artikulua honako graduazio-irizpide hauek biltzen ditu

- Osasunerako sortutako arriskuaren edo kaltearen larritasuna.
- Erruduntasun- edo asmo-maila.
- Sortutako aldaketa eta eragin soziala.
- Lortutako onuraren zenbatekoa.
- Arau-hauslearen gaitasun ekonomikoa.
- Arau-hauslearen merkatuko maila.
- Errepikatzea eta berrerortzea:
 - Berrerortzea: urtebeteko epean mota bereko arau-hauste bat -arina, larria, oso larria- baino gehiago egitea, betiere epai irmoaren bitartez deklaratu bada.
 - Errepikatzea: beste mota bateko arau-hauste bat egitea, betiere epai irmoaren bitartez ebazpena eman dela zehaztuz.
- Isunaren balioespena egiteko, aringarri oso kualifikatu gisa jardungo duten hainbat zirkunstantzia kontuan hartu ahal izango dira:
 - Arau-hausleak, bere jokabidea eteteko errekeritua izanik, errekerimenduari erantzutea.
 - Arau-hausleak, zehapen-espedientearen ebazpena eman baino lehenago, prozedurari hasiera eman zion jokabidearen ondorioak erabat arintzea edo konpontzea.

Zigorak ezartzea

Arau-haustearen kategoria bakoitzari zenbateko eta zigor-mota ezberdinak dagozkie:

- Arau-hauste *arinetarako* zigorrak: ohartarazpena edota 500.000 pezetarainoko isuna.
- Arau-hauste *arinetarako* zigorrak: 500.001-2.500.000 pezetako isunak edota jarduera aldi baterako etetea edota, hala badagokio, establezimendua aldi baterako ixtea, guztiz edo partzialki, gehienez 2 urtez. Zigor osagarri gisa, EAEko edozein laguntza mota eskuratzeko debekua erabaki ahal izango da, gehienez 2 urtez.

.../...

.../...

- Arau-hauste oso *larrietarako* zigorrak: 2.500.001-100.000.000 pezetako isuna, edota establezimenduaren jarduera aldi baterako ixtea, guztiz edo partzialki, gehienez 5 urtez. Zigor osagarri gisa, EAEko edozein laguntza mota eskuratzeko debekua erabaki ahal izango da, gehienez 5 urtez.

Tabakoaren *publizitate-arauak ez betetzeagatiko* arau-hausteen kasuan, isuna handitzeko aukera izango da, legez kontrako publizitatea landu eta hedatzeko kostuaren % 10 gehienez, eta bildutakoa EAEko hedabideetan droga-mendetasunak prebenitzeko estrategiak lantzera bideratuko da.

Legean aurreikusitako arau-hausteen eta zigorren preskripzio-erregimena

- Arau-hausteen preskripzioa:
 - Arinak: 6 hilabete.
 - Larriak: 2 urte.
 - Oso larriak: 5 urte.
- Zigorren preskripzioa:
 - Arinak: urte 1.
 - Larriak: 2 urte.
 - Oso larriak: 5 urte.

IV. Zigortzeko eskumena

Egindako arau-haustearen izaeraren eta eremuaren arabera izango da.

Alkateek eskumena dute honako ez-betetze arin edo larriengatiko zigorra ezartzeko:

- azoketan, erakusketetan eta antzekoetan sustatzea, guneak bereizi gabe,
- 15. artikuluko kanpo-publizitateko baldintzak ez betetzea,
- toki jakin batzuetan publizitatea egitea (18 urtez azpikoentzako tokiak; kirol-zentroak, zentro sanitarioak eta ikastetxeak eta horietako sarbideak; zineak eta ikuskizun-aretoak, gaueko azken saioan izan ezik; garraio publiko, geltoki, portu eta aireportuak),
- tabakoa saltzea eta hornitzea 21. artikuluko araua hautsiz,
- tabakoa kontsumitzea 23. artikuluan ezarritakoa hautsiz,
- 16.2 eta 18.3 artikuluen arau-hausteak, baldin eta arau-hausteak udal-eremua gainditzen ez badu:
 - barne-publizitatea, buzoiratuz, postaz, telefonoz edo etxerako mezuez egindakoa, 18 urtez gorakoentzakoa izan ezik,

- publizitatea egitea, kiroleko, hezkuntzako, kulturako edo gizarteko jarduerak babesteko, edo lehiaketa, zozketa eta kontsumoa eragiteko antzeko beste aukeren bitartez.

- beste edozein ez-betetze, baldin eta arau-hausteak larriak edo oso larriak ez badira.

Droga-mendetasunen arloko eskumeneko departamentuko organoak honako kasu hauetan izango du eskumena:

- 14., 15., 16.1 eta 21. artikuluen oso arau-hauste larriak:

- azoka, erakusketa eta antzekoetan tabakoa sustatzea, guneak behar bezala bereizi gabe (14. artikulua),

- 15. artikuluko kanpo-publizitateko baldintzak ez betetzea,

- toki jakin batzuetan publizitatea egitea (18 urtez azpikoentzako tokiak; kirol-zentroak, zentro sanitarioak eta ikastetxeak eta horietako sarbideak; zineak eta ikuskizun-aretoak, gaueko azken saioan izan ezik; garraio publiko, geltoki, portu eta aireportuak).

- tabakoa saltzea eta hornitzea 21. artikuluko araua hautsiz.

- 13., 17. eta 18.1, 2 eta 3 artikuluen arau-hauste larriak edo oso larriak:

- 13. artikuluko publizitatearen baldintza orokorrak ez betetzea,

- komunikabideei dagokienez 17. artikuluan adierazitako publizitate-mugak ez betetzea,

- zeharka edo ezkutuan tabako-publizitatea ekar dezaketen marka, objektu edo produktuen publizitatea (18.1 artikulua),

- Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako telebistetan, bertan egindako programetan ezin izango dira agertu aurkezleak edo elkarrizketatuak tabakoa erretzen edo alboan tabakoa dutela, ezta produktu horien markak, izen komertzialak, logotipoak zein bestelako zeinuak, produktu horiek identifikatzeko edo gogoratzeko balio dutenak, bistan direla (18.2),

- publizitatea egitea, kiroleko, hezkuntzako, kulturako edo gizarteko jarduerak babesteko, edo lehiaketa, zozketa eta kontsumoa eragiteko antzeko beste aukeretan.

- 16.2 eta 18.3 artikuluen arau-hausteak, baldin eta arau-hausteak udal-eremua gainditzen badu:

- barne-publizitatea, buzoiratuz, postaz, telefonoz edo etxerako mezuez egindakoa, 18 urtez gorakoentzako izan ezik,

- publizitatea egitea, kiroleko, hezkuntzako, kulturako edo gizarteko jarduerak babesteko, edo lehiaketa, zozketa eta kontsumoa eragiteko antzeko beste aukeren bitartez.

Gobernu Kontseiluak 15.000.000 pezetatik gorako isunak ezartzeko eskumena izango du, baita jarduera, guztiz edo partzialki, aldi baterako ixteko eskumena ere.

.../...

.../...

Zigortzeko prozedura

Zigortzeko ahalmenaren gauzatzea honako hauetara egokitu beharko da:

- Estatuko oinarrizko legeria: Zigortzeko Ahalmena Gauzatzeko Prozeduraren Araudia onartzen duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretua.
- Herri-administrazioei dagokiena: Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea.

Salbuespena: Harreman juridiko bereziak (56. artikulua):

- herri-administrazioei kontratu-harreman batengatik lotutako pertsoneri, baita administrazio horien zerbitzura dauden pertsoneri ere, beren zehapen-araubidea arautzen dituzten arauak aplikatuko zaizkie.

3.2. 28/2005 LEGEA, ABENDUAREN 26KOA, TABAKISMOAREN AURKAKO OSASUN-NEURRIEI BURUZKOA, ETA TABAKOAREN PRODUKTUEN SALMENTA, HORNIDURA, KONTSUMOA ETA PUBLIZITATEA ARAUTZEN DITUENA

2003. urteko maiatzean OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmena aho batez hartu zuten, eta hala hitzarmen hori OMEren babespean negoziatutako osasun publikoko lehenengo ituna bilakatu zen. Hitzarmen horrek garai berri baten mugarrria ezartzen du tabakoaren kontrolean Estatuan eta nazioartean. Drogen kontrolari buruzko aurreko itunak ez bezala, honako hau eskaria murrizteko estrategietan oinarritzen da (UGT, 2006: 26).

Esparru Hitzarmenarekin tabakoaren kontrolerako gutxienerako oinarri bat ezartzen da, hainbat gaiei buruzko xedapenen bitartez. Horien artean tabakoaren publizitatea eta babesia, zergen eta prezioen igoera, etiketatzea, legez kontrako merkataritza eta ingurune-kea daude. Eskualdeko integrazio ekonomikoko Estatuak eta Erakundeek neurri murriztaileagoak egiteko aukera dute (UGT, 2006: 26).

OMEren Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmena 2005. urteko otsailaren 27an jarri zen indarrean, 170 herrialdek Hitzarmena berretsi ondoren.

Estatu espainolean, azkeneko bi hamarkadetan hartutako neurriak fiskalitatearen handiagotzean, adingabeei egindako salmentaren murrizketan, eremu publiko batzuetako kontsumoa arautzean, eta tabakoaren publizitatearen muga txikietan oinarritu dira (UGT, 2006: 26). Horrela, tabakismoaren kontrolaren eremuan tabakoaren merkaturatzeari, sustapenari eta kontsumoari buruzko hainbat alderdi

arautzen dituen legezko esparru bat garatzen joan da. Era berean, legeria autonomia erkidegoetako legeekin eta udal-ordenantzekin osatu da (UGT, 2006: 27).

2006. urteko urtarrilaren 1ean tabakismoaren aurkako osasun-neurriei buruzko eta tabakoaren produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituen abenduaren 26ko 28/2005 Legea indarrean jarri zen. Hala ere, hirugarren, laugarren eta bosgarren xedapen iragankorretan epe horrenzako salbuespenak daude.

Horrela, Legearen hirugarren xedapen iragankorrean salbuespen bat biltzen zen 8. artikulua aipatzen duen erretzeko guneak jartzeari dagokionez. 8. artikuluan ezartzen da onartutako kasuetan erretzaileentzako guneak jartzeko baldintza horiek Legea indarrean jartzen denetik 8. hilabetearen ondoren eskatuko direla. Adierazitako epea oso kritikatu izan zen ostalaritza-sektoretik, epe hori motzegia zela uste baitzuten Legea egokitzeko egin behar diren eraberritzeak gauzatzeko.

Era berean, hiru hilabeteko epe bat ematen da tabako-paketeen merkaturazarekin jarraitzeko, eta sei hilabeteko beste bat tabakoaren beste produktuentzat, salmenta Legeak adierazten duenera egokitzen ez den kasuetan (laugarren xedapen gehigarria).

Ikusiko dugunez, osasunaren arloko lege bat bada ere, oso eragin garrantzitsua du lan-harremanetan; hortaz, legedi bat baino gehiago hartu behar da kontuan adierazitako legea interpretatzeko eta aplikatzeko garaian.

Era berean, lege berriak interpretazio-arazoak planteatzen ditu hainbat alderdiri dagokionez, besteak beste debekuaren eremuan, legearen salbuespenetan edota zehapen-prozeduran (Sala; Pedrajas, 2006: 13).

Legearen helburu nagusia tabakoaren prebalentzia murriztea eta biztanleria tabakoaren keak kutsatutako airetik babestea da, tabakoaren salmentari, hornidurari, kontsumoari eta publizitateari eta sustapenari ezarritako mugak zabalduz (UGT, 2006: 25).

Lege honek ondorio garrantzitsuak izan ditu gizarte- eta lan-bizitzan. Aurretik asko eztabaidatu ondoren, baita komunikabideetan ere, García-Perrotek adierazten duen moduan (García-Perrote, 2006: 7) «nazioarteko eta Europako joera-ildo» batean txertatzen da, eta tabakoaren «salmentari, hornidurari, kontsumoari eta publizitateari murrizketa oso handiak» ezartzen dizkio.

3.2.1. LEGEAREN HELBURUA, JUSTIFIKAZIOA ETA IZAERA

28/2005 Legearen Zioen Azalpenean legearen helburua eta justifikazioa daude. Legea tabakismoaren inguruan honako hau adieraziz abiarazten da:

Lehenengo «gaixotasun- eta heriotza-kausa isolatua da» da, tabakoaren kontsumoak osasunerako dituen arriskuak nabarmenduz. Osasunaren Munduko Erakundeak tabakoaren erabilpenetik eratorritako heriotza-tasaren eta gaixotasunen inguruan emandako zifrak azaldu ondoren, tabakoaren kontsumoak Espainian eragiten dituen heriotzei heltzen die.

Era berean, inguruneko kearen bitartez tabakoaren kontsumo pasiboari edota nahigabeko kontsumoari egiten zaio erreferentzia, zirkunstantzia horren ondorioz sortutako kaltea nabarmenduz; izan ere, Zioen Azalpenean adierazten den moduan, «heriotza-, gaixotasun- eta minusbaliotasun-kausa» da.

Legearen beste argudio justifikagarri batzuk nazioarteko eta Europako jardunetan oinarritzen dira tabakismoari aurre egiteko. Hainbat patologien eta heriotzaren faktore erabakigarritzat hartzen den fenomeno honek sortutako kezka azpimarratzen da. Horrela, Europar Batasunetik hartutako neurriak adierazten dira, horien artean honako hau aurkitzen delarik: gure antolamendura bildu izanaren ondorioz sortu den 2003. urteko maiatzaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/33/EB Zuzentaraua. Tabakoaren produktuen publizitatearen eta babesaren arloetan Estatu kideen legezko, arauzko eta administraziozko xedapenak hurbiltzeari buruzkoa da zuzentarau hori.

Era berean, Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua gehitzen da; horren bitartez, osasunaren babeserako eskubidea onartzen da eta artikuluen 2. idatzatian botere publikoei osasun publikoaren antolamenduaren eta tutoretzaren ardura ematen die, prebentzio-neurrien bitartez.

Era berean, legearen Zioen Azalpenean ordura arte dagoen legeriaren sakabanatzea nabarmentzen da, baita legearen izaera asistematikoa ere, tabakoaren arloko hainbat arau aipatuz, estatuan¹ nahiz autonomia-erkidegoan².

¹ Biztanleriaren osasuna babestearren tabakoaren salmentan eta erabileran ezarritako mugei buruzko 192/1988 Errege Dekretua, 1293/1999 Errege Dekretuak aldatzen duena; tabakoaren produktuen etiketatzea arautzen duen eta aireontzi komertzialetan muga jakin batzuk ezartzen dituen maiatzaren 14ko 510/1992 Errege Dekretua; zigarroenak ez diren tabakoaren produktuen etiketatzeari buruzko 1185/1994 Errege Dekretua; horren bitartez, aho-erabilerako tabako jakin batzuk debekatzen dira eta tabakoaren arloko zehapen-araubidea eguneratzen da; zigarroen nikotinaren, alkatarnaren eta karbono-monoxidoaren gehienezko edukiak, tabakoaren produktuen etiketatzea eta tabakoaren produktuen osagaiei eta izendapenei buruzko neurriak arautzen dituen urriaren 18ko 1079/2002 Errege Dekretua, eta osasun-kohesioko Fondoak 2004. urterako ekitaldian politika horiek finantza ditzan, kohesio-politiken xede diren kolektiboak ezartzen dituen azaroaren 25eko 2198/2004 Errege Dekretua. Tabakoaren publizitateari dagokionez: 34/1988 Legea, Publizitate Lege Orokorra, eta 25/1994 Legea; horren bitartez, telebistako irratidifusioko jardueretan aritzeari dagokionez, Estatu kideen erregelamendu- eta administrazio-arloko legezko xedapen jakin batzuk koordinatzeari buruzko 89/552/EEE Zuzentaraua gehitzen duen 25/1994 Legea, eta aurreko Legea aldatzen duen ekainaren 7ko 22/1999 Legea.

² Mendetasuna sor dezaketen substantzien arloko prebentzioari eta laguntzari buruzko uztailaren 25eko Kataluniako 20/1985 Legea; Galizian tabakoaren produktuen publizitatearen, sustape-

Iritzi horiek guztiek Lege hori onartu izana justifikatzen dute, tabakoaren kontsumoan, tabakoaren salmentan, kerik gabeko guneetan, tabakoaren produktuen eskuragarritasunean eta irisgarritasunean eragina edukiz, baita tabakoaren produktuen publizitatean eta sustapenean ere, zuzenean nahiz zeharka, baita hezkuntza-, prebentzio- eta laguntza-arloko esku-hartzean ere, batez ere gazteenei begira, eta horrez gain, honako hau kontuan hartuz: «ez-erretzaileek tabakoaren keak kutsatu gabeko airea arnasteko duten eskubidea erretzaileen eskubidearen gainetik nagusitzen da».

Legearen izaerari dagokionez, Lege administratiboa da, eta Sala eta Pedrajasek (2006: 73) «osasunaren arloko (osasun publikokoa) politika administratiboko» arau gisa definitzen dute. Adierazpen hori egiteko honako egitate honetan oinarritzen dira: nahiz eta «tabakismoaren prebentzioko neurriei, osasunaren sustapenari eta tabakoarekiko deshoitzeko erraztasunei» buruzko Lege baten aurrean egon, arauaren II. Kapitulu osoa tabakoaren salmentaren, horniduraren eta kontsumoaren mugei buruzkoa da, V. Kapituluari arau-hausteen eta zigorren araubidea egokituz. Horrenbestez, erretzeko debekuari eta debeku horren kontrolari buruzko neurriak gehiago eta zehatzagoak dira, prebentzioari eta deshoitzeari zuzendutakoak baino (Sala; Pedrajas, 2006: 74).

Legea administratiboa izan arren, argi dago Lege honen aplikazioak lan-eremuan ondorioak dituela, eta gerta daiteke 28/2005 Legean bildutako jokabide jakin batzuk era berean laneko araudiarekin harremanetan egotea. Horrela, batzuetan tabakoaren Legeak zigor ditzakeen jokabide jakin batzuk, behin eta berriz egiten badira, Laneko Arriskuen Prebentziorako Legearen eskumen-eremuan sar daitezke. Horri buruzko adibide bat Sala eta Pedrajasek (2006: 74) planteatzen dute, lankide haurdun bat dagoen sailean bertan langile batek normalean erretzeko aukera planteatzerakoan; adierazi dute kasu horretan Laneko Ikuskatzailetzak zaintzeko eta zigortzeko jardun-eremu argi bat edukiko duela, eta era berean, enpresaburuak diziplina ezartzeko duen ahalmena martxan jarri ahal izango du.

28/2005 Legea Estatuaren oinarritzko arau gisa osatzen da, eta Autonomia Erki-degoetako legeriak Legea garatzeko aukera aurreikusten da (1. Azken Xedapena). Autonomia Erkidego batzuetan aldeztu aurretik alor honetan araudia badagoenez,

naren, horniduraren, salmentaren eta kontsumoaren osasun-kontrolari buruzko martxoaren 22ko 75/2001 Dekretua; Nafarroan tabakoaren kontsumoaren prebentzioari, aire arnasgarriaren babesari eta tabakoari dagokionez, osasunaren sustapenari buruzko otsailaren 14ko 6/2003 Foru Legea; baita orokorrean mendetasunen eta bestelako adikzio-arazozen fenomenoetarako araudi zabalagoak ere, gainerako Autonomia Erkidegoen kasuan: Andaluzia, Aragoi, Kanariak, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon, Katalunia, Extremadura, Madril, Murtziako Eskualdea, Errioxa, Valenziako Erkidegoa eta Euskal Autonomia Erkidegoa.

tabakoaren erregulazioaren bitartez edota beste substantzia batzuk (legezkoak edo legez kontrakoak) erregulatzen dituzten arau zabalago batzuen bitartez, adibidez Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, 28/2005 Legearen oinarrizko izaerak zalantzak sortu ditu alde aurretik Autonomia Erkidegoan zegoen araudiarekin bat ez datorren Estatuko araudiaren balizko aplikazioaren inguruan.

Ildo horretan, Sala eta Pedrajasek Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen artean banatutako eskumen bat dela adierazten dute; izan ere, egile horien arabera, Estatuko legeriaren eta Autonomia Erkidegoetako legeriaren arteko harremanak ez dira hierarkia-harreman batean oinarritzen, baizik eta «eskumenen eta gaien banaketa-arau batetik abiatzen dira; horrenbestez, arau bakoitza gainerako arauen aurrean balioduna eta iraunkorra izango da, baldin eta dagokion eskumenaz baliatuz eman bada» (Sala; Pedrajas, 2006: 76).

Horri dagokionez erabaki bat hartzeko, Espainiako Konstituzioaren 149.3 artikulua agindutakora jo behar da³. Horren arabera, Estatuaren oinarrizko arau baten inguruan gatazka sortzen bada, arau hori nagusituko da Autonomia Erkidegoaren arauaren gainetik Autonomia Erkidegoaren «eskumen esklusiboari egokitu ez zaion guztian». Horrenbestez, aztergai dugun kasu honetan, 28/2005 Legeak, Droga-mendetasunei buruzko euskal Legean araututakoarekin kontraesanak sortzen baditu, azkeneko lege hori ordezkatu du eta Estatuko Legea aplikatu da.

Adibide gisa, horrek esan nahi du Autonomia Erkidegoek erretzeko guneak gaitzeko aukera eman dezaketela, baina bakarrik «7. artikuluan zerrendatutako kasuetatik kanpo», 8.1.j) artikuluan adierazten den moduan.

Era berean, egokia izango litzateke Autonomia Erkidegoko araudian Estatuko legean aurreikusita dauden baina Autonomia Erkidegoko arauak aurreikusi ez dituen alderdi horiek gehitzea.

Legearen edukia aztertu aurretiko urrats gisa nabarmendu daitekeen beste alderdietako bat zera da, erretzaileen eta ez-erretzaileen artean azal daitekeen eskubideen aurkakotasuna. Dagoeneko azaldu dugun moduan, Legearen Zioen Azalpenak ez-erretzaileek ingurunean tabakoaren kea ez arnasteko duten eskubidearen alde egiten du, ez-erretzaileen osasuna babeste aldera, eskubide hori erretzeko eskubidearen gainetik nagusitzen delarik.

³ EE, 149.3 artikulua. «Konstituzioan berariaz Estuari gorde ez zaizkion gaiak Autonomia Erkidegoei eskualdatu ahal izango zaizkie, estatutu bakoitzaren arabera. Autonomia-estatutuetan jaso ez diren eskumenak Estatuaren menpe geratuko dira. Kontrajartzerik balego, Estatuaren arauak nagusituko zaizkie Autonomia Erkidegoen arauai, erkidegoen erabateko eskumenekoa ez den guztietan. Estatuko zuzenbidea Autonomia Erkidegoen zuzenbidearen osagarria izango da beti.»

Hala ere, ez-erretzaileen eskubide hori indargabetu egiten da Legeak establezimendu jakin batzuetan (tabernak, jatetxeak, hotelak, etab.) erretzaileen-tzakako guneak gaitzea baimentzen duenean. Establezimendu horietan erretzeko eskubidea nagusitu egiten da langile ez-erretzaileek tabakoren keak kutsatutako airea ez arnasteko duten eskubidearen gainetik. Badirudi, hori ez datorrela bat arauaren helburuarekin, osasuna babestearekin alegia, eta legearen izaera sanitarioarekin; izan ere, badirudi enpresaburuek erretzaileentzako gune horiek mantentzeko eta modu horretan beren enpresa ez kaltetzeko duten eskubidea bertan lan egiten dutenen osasunerako arriskuen gainetik nagusituko dela, nahiz eta arriskua espresuki onartua izan, bere Zioen Azalpenean inguruneko kea arnasteagatiko ondorio kaltegarrien berri ere emanaz.

LABURPEN-TAULA

28/2005 Legea, abenduaren 26koa, tabakismoaren aurkako osasun-neurriei buruzkoa, eta tabakoaren produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituen

Oro har indarrean jartzea: 2006. urteko urtarrilaren 1a. Honako kasu hauetan izan ezik:

- erretzeko guneak gaitzea: beharrezkoa da legea indarrean jartzen denetik 8 hilabete igarotzea (hirugarren xedapen gehigarria),
- tabako-paketeen merkaturatzea: 3 hilabete (laugarren xedapen gehigarria),
- tabakoaren beste produktu batzuen merkaturatzea: 6 hilabete (laugarren xedapen gehigarria).

Legearen helburua eta justifikazioa

- tabakismoa «saihets daitekeen lehenengo heriotza- eta gaixotasun-kausa» gisa: tabakoaren kontsumoak osasunerako dituen arriskuak,
- inguruneko kearen bitartez tabakoaren kontsumoa edota nahigabeko kontsumoa: sortutako kaltea, «heriotza-, gaixotasun- eta minusbaliotasun-» kausa da,
- nazioarteko eta Europako jardunak tabakismoari aurre egiteko: 2003. urteko maiatzaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/33/EE Zuzentaraua. Tabakoaren produktuen publizitatearen eta babesaren arloetan Estatu kideen legezko, arauzko eta administrazioko xedapenak hurbiltzeari buruzkoa da zuzentarau hori,
- dagoen legeriaren sakabanatzea, baita legearen izaera asistematikoa ere, estatuan nahiz autonomia-erkidegoan.

«Ez-erretzaileek tabakoaren keak kutsatu gabeko airea arnasteko duten eskubidea erretzaileen eskubidearen gainetik nagusitzen da».

.../...

.../...

Legearen izaera

- Osasun-arloko legea.
- Estatuaren oinarritzko arau gisa osatzen da. Autonomia Erkidegoetako legeriek garatzeko aukera izango dute (1. Azken Xedapena):
 - 149.3 artikulua EE: Estatuaren oinarritzko arau baten inguruan gatazka sortzen bada, arau hori nagusituko da legearen «eskumen eskusiboari egokitu ez zaion guztian».
- Egokia izango litzateke Autonomia Erkidegoko araudian Estatuako legean aurreikusita dauden baina Autonomia Erkidegoko arauak aurreikusi ez dituen alderdi horiek gehitzea.

3.2.2. LEGEAREN EDUKIA

Legea bost kapitulutan antolatzen da. Xedapen orokorrekin hasten da (I. Kapitulu), hurrengo bi kapituluetan (II eta III) produktu horien salmentari, hornidurari, kontsumoari eta publizitateari buruzko hainbat debeku eta muga arautzeko, 2003. urteko maiatzaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/33/EE Zuzentaraua gure ordenamendura gehituz. Tabakoaren produktuen publizitatearen eta babesaren arloetan Estatu Kideen legezko, arauzko eta administraziozko xedapenak hurbiltzeari buruzkoa da zuzentarau hori.

Eta, izaera sanitarioko arau bat izan arren, IV. kapitulura bitarte ez dira tabakismoa prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta tabakoa erretzeari uztea errazteko neurriak ezartzen. V. kapituluan arau-hausteen araubidea eta arau-hausteei dagozkien zigorrak dauzkagu. Idatz-zati hori da interes gehien biltzen duenatarikoa, interpretazio- eta aplikazio-arazoengatik.

Kapitulu bakoitzaren edukia aztertzen hasi aurretik, adierazi beharra dago, Sala eta Pedrajasek baieztatzen duten moduan, legearen interpretazioa «ez-erretzaileek erretzaileen gainean duten eskubidearen» nagusitasunean oinarrituta egin behar dela; horrenbestez, zalantzarik balego, «ez-erretzaileek tabakoaren kerik gabeko airea arnasteko duten eskubidearen aldeko interpretazio bati ekin beharko litzaioko» (Sala; Pedrajas, 2006: 80-81). Hala ere, erretzaileen eta ez-erretzaileen arteko oposizio baten ordez, toki publiko itxietan tabakoaren kontsumoari muga batzuk ezarri behar zaizkio, segurtasunaren eta osasun publikoaren arloko arazoengatik (UGT, 2006: 25).

3.2.2.1. Tabakoaren kontsumoa, salmenta eta hornidura

I. Polemika gehien sortu duen alderdietako bat, gune jakin batzuetan erretzeko debekuari buruzkoa da, bereziki erretzeko erabateko debekua dagoen toki horietan, eta batez ere lantokiak badira.

Legea oinarrizko bereizketa batetik abiatzen da, alde batetik erretzea erabat debekatuta dagoen tokiak eta bestetik erretzaileentzako guneak gaitzea baimenduta dagoen tokiak ezberdinduz, legeak ezarritako baldintzak betez (6. artikulua).

Horrela, Legeak bertan zerrendatuta azaltzen diren tokietan eta Autonomia Erkidegoei dagokien araudiak definitzen dituen tokietan erretzeko erabateko debekua ezartzen du. Debekua erabatekoa den gune horietan, Sala eta Pedrajasek, lan-ikuspegi batetik, honako hau adierazi dute: ezin izango da enpresen hitzarmen kolektiboetan edo akordioetan erretzaileentzako guneak gaitzea itundu, ezartzen diren itunak legez kontrakoak direlako eta horrenbestez, baliogabeak, «Legeak erabateko aginduzko arauak ezartzen baititu, itunak onartzen ez dituztenak (ez kolektiboak, ezta indibidualak ere)»; horrenbestez, akordio horiek egiteak administrazio-erantzukizun bat ekarriko du Legea ez betetzeagatik (Sala; Pedrajas, 2006: 81).

Legeak erretzea erabat debekatuta dagoen toki horiek zerrendatzen ditu 7. artikuluan, lantokietatik hasiz, publikoak nahiz pribatuak, «aire zabaleko guneetan izan ezik». Lehenik eta behin «lantokitzat» hartzen diren guneei erreferentzia egiten dieten alderdi batzuk zehaztu beharko dira eta era berean, beharrezkoa izango da «aire zabaleko gunetzat» zer ulertzen den interpretatzea.

Lantokiei dagokienez, adierazi beharra dago lehenik eta behin lege-debekua «lokazionala» dela eta ez «pertsonala» (Sala; Pedrajas, 2006: 84) eta lantokian dauden guztiei, langileak izan edo ez, ez erretzeko obligazioa ezartzen diela, era berean, erretzeko debekua lanalditik kanpora, jaiegunetara eta opor-egunetara hedatuz, debekua lanalditik haratago baitoa.

Legearen debekua zehatza izanik, ez du inolako baliorik izango langileak erretzeko ados jartzeak, ezta lanalditik kanpo ere. Tabernei, kafetegiei, jantokiei eta antzekoei dagokienez, lantokien barruan, kontuan hartu beharra dago debekuak gune horiek ere barnean hartzen dituela. Horrenbestez, ezin izango dira horietan erretzeko guneak gaitu.

Aire zabaleko guneek arazo batzuk sor ditzakete, batez ere lanpostu jakin batzuetan. Printzipioz eta oro har, barruko patioak edo terrazak «aire zabaleko

gunetzat» hartzen dira, helburua langile ez-erretzaileek inguruneko tabakoaren kea ez arnastea baita. Arrazoiketa horren arabera, leiho bat irekitzearekin ez da nahikoa izango, ekintza horrekin ezin baita bermatu kea ez dela lantokiaren barruan sartuko, eta, horixe da hain zuzen ere saihestu nahi dena.

Sala eta Pedrajasek aire zabaleko guneen inguruan planteatzen diren arazoak azaltzen dituztenean, obra bat aire zabaleko gunetzat zein puntu-taraino har daitezkeen eztabaidatuz. Legearen izaera murriztailea kontuan hartuz, egile horiek interpretatzen dute behin obra itxi ondoren debekua erabatekoa izango dela (Sala; Pedrajas, 2006: 83).

Erretzeko erabateko debekua dagoen tokiei dagokienez, debeku horren oinarria zera da, ez-erretzaile izanik leku horietara irits daitezkeen bezeroak eta pertsonak babesteko interesa eta osasun- eta segurtasun-arrazoiak.

Sala eta Pedrajasek (2006: 86-87) egindako sailkapenaren arabera, erretzeko erabateko debekuarekin sistematizatu daitezke, Legearen 7. artikulua arabera, honako modu honetan:

- Erretzeko erabateko debekua jarraian zerrendatutako zentroetako bezero ez-erretzaileak babesteko egiten da, 7. artikulua arabera:
 - Herri-administrazioen eta Zuzenbide Publikoko erakundeen zentroetan eta sailetan.
 - Zentro, zerbitzu edo establezimendu sanitarioetan.
 - Ikastetxeetan eta prestakuntza-zentroetan, ikasleen adina eta irakaskuntza-mota edozein izanik ere.
 - Kirol-instalazioetan eta ikuskizun publikoak egiten diren tokietan, betiere aire zabalekoak ez badira.
 - Jendearen zuzeneko arretarako guneeetan.
 - Zentro komertzialetan, azalera handiak eta galeriak barnean hartua, aire zabaleko guneeetan izan ezik. Gune horien barnean eta gune horien gainerako sailetatik bereizita dauden tabernetan, jatetxeetan eta antzeko establezimenduetan, ezin izango da erre, edozein azalera dutela ere, salbu eta erretzaileentzako guneak jartzen badira.
 - Hemezortzi urtez azpikoentzako gizarte-arretako zentroetan.
 - Hemezortzi urtetik beherakoei sartzen uzten zaien aisialdiko eta jolaserako zentroetan, aire zabaleko guneeetan izan ezik.

- Kultura-zentroetan, irakurtzeko eta erakusketa eta hitzaldietarako gela eta aretoetan, liburutegietan eta museoetan.
- Dantzalekuetan edo erabilera publikoko establezimenduetan, hemezortzi urtez azpikoei sartzea baimentzen zaien ordutegiaren edo denborartarearen barruan.
- Hiriko eta hiriarteko ibilgailu edo garraiobide kolektiboetan, enpresen garraio-ibilgailuetan, taxieta, anbulantzietan, funikularretan eta teleferikoetan.
- Treneko eta itsasoko garraiobideetan, aire zabaleko guneeetan izan ezik.
- Hiripeko garraio-gune guztietan (bagoiak, nasak, korridoreak, eskailerak, geltokiak, etab.) erabat aire zabalean dauden guneeetan izan ezik.
- Jatorria eta helmuga lurralde nazionalen duten aireontzietan eta Espainiako aire-konpainietako hegaldi guztietan, baita atzerriko konpainiekin partekatutakoetan ere.
- Igogailu eta jasogailuetan.
- Telefono-kabinetan, kutxazain automatikoen esparruetan eta erabilera publikoko beste eremu txikietan.
- Elikagai-osasunaren arloko arrazoiengatik:
 - Janariak landu, eraldatu, prestatu, dastatu edo saltzen diren gune edo establezimenduetan.
- Segurtasun-arrazoiengatik:
 - Gasolina-zerbitzuguneetan eta antzekoetan.

Era berean, 7. artikulua adierazten du erabateko debeku hau beste edozein tokitara hedatuko dela Lege honek edo beste arau batek hala agintzen badu, edota titularrak erretzea debekatuta dagoela erabakitzen badu. Horrela lantokiko titularrak eskumenez debeku horren inguruan erabakitzeko aukera edukitzea aurreikusten da. Legearen oinarriko izaera kontuan hartuta, autonomia-erkidegoko araudiak ezin izango du erretzea guztiz debekatuta dagoen toki horietatik kanpo erretzea ahalbidetu, 7. artikulua araberan.

Legearen 8. artikuluan arauak tabakoaren kontsumorako guneak gaitzea ahalbidetzen dituen toki horiek zerrendatzen dira, nahiz eta hasiera batean erretzeko debekua egon. Horrek ez du esan nahi erretzaileentzako guneak gaitzea derrigorrezkoa denik, baizik eta Legeak zentroko titularrari eskumena ematen

diola gune batzuk gaitzeko, titularrari gune horiek ezarriko dituen edo ez erabakitzea ahalbidetuz.

Legearen arabera, honako zentro hauetan erretzea debekatuta dago, baina zentro horietan ahalbidetuta dago erretzaileentzako guneak gaitzea:

- Gizarte-arretako zentroetan.
- Hoteletan, ostatuetan eta antzeko establezimenduetan.
- Taberna, jatetxe eta gainerako sukaldaritza-establezimendu itxietan, betiere bezeroentzako edo bisitarientzako gune erabilgarria ehun metro koadrokoa edo hortik gorakoa bada. Erretzea erabat debekatuta dagoen zentro edo sailen barruan dauden guneak salbuesten dira hemen, 7. artikuluan arabera.
- Dantzalekuetan eta jokoko edo oro har erabilera publikoko establezimenduetan, hemezortzi urtez azpikoei sartzea galarazten zaien ordutegian edo denbora-tartean, aire zabaleko guneetan izan ezik.
- Antzokietan, zineetan eta bestelako ikuskizun publikoetarako gune itxietan. Kasu horietan, erretzaileen gunearen kokalekuak antzezpen- edo proiektzio-aretoetatik kanpo egon beharko du.
- Aireportuetan.
- Autobus-geltokietan.
- Itsas garraioko nahiz tren-garraioko geltokietan.

Zentro bateko titularrak, nahiz eta 8. artikuluko zerrendan azaltzen direnen artean ez egon (horrenbestez, ez da erretzeko debekua egongo), erretzaileentzako guneak gaitzea erabaki ahal izango du. Era berean, Autonomia Erkidegoek erretzaileentzako guneak gaitzea ahalbidetu ahal izango dute, betiere 7. artikuluan adierazitako guneren bat ez bada, hau da, Legeak erretzeko erabateko debekua zehaztu duen toki horietako bat.

Horrek esan nahi du nahiz eta Droga-mendetasunei buruzko euskal Legeak erretzeko hainbat gune (osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetan, esaterako) gaitzea ahalbidetu, Estatuko Legea onartzen denetik aurrera ezinezkoa izango dela hori egitea; izan ere, arau horretan toki horietan erretzeko erabateko debekua adierazten da.

Legeriak erretzeko gaitutako guneek bete behar dituzten baldintzak zehazten ditu jarraian:

- *Seinaleztapen bistakoa*: gune horiek behar bezala eta ikusteko moduan seinaleztatu beharko dira, gaztelaniaz eta ofiziala den beste hizkuntzan, erkidegoko arauak eskatutako eskakizunekin.
- *Bereizketa fisikoa*: zentroko edo erakundeko gainerako guneetatik bereizita egon beharko dute fisikoki, eta guztiz konpartimentatuak; horretaz gain, ez dira ez-erretzaileek nahitaez igaro beharko dituzten guneak izango, salbu eta ez-erretzaile horiek bertako langileak edo enplegatuak eta hamasei urtetik gorakoak badira.
- *Aireztapena*: gaitutako guneek aireztapen-sistema independenteak edo keak kanpora ateratzea bermatzen duten beste gailu edo mekanismo batzuk eduki beharko dituzte.
- *Gaitutako gunearen azalera*: ez dira izango zentroak edo establezimenduak bezero edo bisitarienezako daukan azalera erabilgarri guztiaren % 10etik gorakoak. Hotelen, tabernen, jatetxeen, dantzalekuen, eta abarren kasuan ehuneko horrekiko salbuespen bat onartzen da, hau da, 8.2 artikulua b, c eta d idatz-zatietan aipatzen diren guneetan. Horietan erretzaileentzako gune komunak % 30eraino gaitu ahal izango dira. Nolanahi ere, erretzaileentzako gune guztien azalera ez da hirurehun metro koadrotik gorakoa izango. Hoteletan, ostaluetan eta antzekoetan gehienez gela guztien % 30 gorde ahal izango da ostalari erretzaileentzako.
- 8. artikuluan zerrendatutako gune bereizietan *bi jarduera* dituzten establezimenduetan, gune bakoitzaren *azalera erabilgarria* modu bereizian zenbaituko da, eta zenbaketa horretan ez dira kontuan izango gune komunak eta pasabideak. Gune komun eta pasabide horietan ez da inolaz ere tabakorik kontsumitzen utziko.

Hirugarren Xedapen Gehigarrian ezartzen da Legearen arabera erre ezin den establezimenduetako sarreretan tabakoaren kontsumoa debekatuta dagoela iragartzen duten kartelak jarri behar direla, ondo ikusteko moduan, baita 8.2 artikulua arabera, erretzaileentzako guneak non dauden adierazten duten kartelak ere.

Erretzaileentzako guneak gaitzea ezinezkoa bada, Legeak eskatzen dituen baldintzen arabera, ezin izango da erre gune osoan. Edonola ere, establezimenduetan erre ahal izateko gaitutako guneetan ezin izango dute 16 urtetik azpikoek egon, Legearen espirituari jarraiki. Legeak, bere Zioen Azalpenetik bertatik arreta berezia jarri du gazteenen osasunaren zaintzan.

Era berean, Legeak, Bigarren Xedapen Gehigarrian, erretzea baimenduta dagoen ostalaritza- eta sukaldaritza-establezimendu txikietarako araudi berezi

bat ere biltzen du. Salbuespen horretara biltzeko bezeroentzako edota bisitarien-
tzako azalera erabilgarria 100 metro koadro baino txikiagoa duten establezimenduak
izan behar dute. Kasu horietan establezimenduaren titularra izango da establezimenduaren
barruan erre daitekeen edo ez erabakiko duena. Enpresaren obligazio bakarra zera izango da, erkidegoko araudian adierazten den moduan, gaztelaniaz eta ofiziala den beste hizkuntzan, erretzen uztearen edo ez uztearen inguruan hartutako erabakiaren berri ematea. Era berean, autonomia-erkidegotik establezimendua iragartzen duten edo establezimenduaren berri ematen duten publizitate-iragarkietara, propagandara eta gainerako bitartekoetara gehitu beharreko informazioa arautuko da.

Legearen aplikazioak, gai honi lotuta, modu librean erretzea baimenduta dagoen edota erretzaileentzako guneak gaitu diren establezimendu horietan lan egiten duten pertsonen inguruko arazo jakin batzuk sortzen ditu. Langile ez-erretzaileei dagokienez, zentroak zera edukitzea eskatu ahal izango du, Legeak erretzaileentzako gaitutako guneetarako adierazten dituen neurriak, batez ere ez-erretzaileentzako guneetara kea igarotzen uzten ez duten eta ongi aireztatuta dauden gune independenteak sortzeari dagokienez.

Langileak bere zirkunstantziengatik arreta bereziren bat behar badu, adibidez emakume haurdun baten kasuan, enpresaburuak beharrezko neurriak hartu beharko ditu pertsona horrek tabakoaren keak kutsatutako airea arnas ez dezan, langilea ez-erretzaileen gunera bidaliz, erretzaileentzako eta ez-erretzaileentzako gune bereziak badaude eta aldaketa hori egin badaiteke.

Sala eta Pedrajasek honako aukera hau planteatzen dute: erretzea debekatu ta dagoen enpresa batean langile bat lanean hasten bada eta ondoren enpresako politika erretzeko baimenaren alde aldatzen bada. Kasu horretan, egile horiek uste dute langileak bere kabuz kontratua suntsiarazteko aukera edukiko lukeela, Langileen Estatutuaren 50. artikulua araber, enpresaburuak lan-kontratuaren baldintzak funtsean aldatu dituela ulertuz (Sala; Pedrajas, 2006: 100).

Legean hartutako neurrietatik eratorritako beste arazoetako batek langile erretzaileekin eta langile erretzaileek erre ahal izateko egiten dituzten etenaldiekin du zerikusia. Printzipioz, Legeak lantokian eta gaitu gabeko guneetan erretzea debekatzen du, erretzeko guneak gaitzeko aukera duten zentro horien kasuan; horrenbestez, arazoa erretzaileek erre ahal izateko egiten dituzten etenaldiekin eta geldialdiekin planteatzen da.

Horrela, Sala eta Pedrajasek (2006: 100) bi ikuspegi desberdin hartzen dituzte kontuan. Alde batetik ez-erretzaileek egoera daitekeen tratu-desberdintasun bat planteatzen dute. Ez-erretzaileek ikusten dute beren lankideek erretzeko gel-

dialdiak egiten dituztela beraiek lanean jarraitzen duten bitartean eta egile horiek uste dute ezin dela adierazi ez-erretzaileenganako diskriminazioa dagoenik, Langileen Estatutuak espresuki ezarrita dauden diskriminazioak debekatzen baititu bakarrik, eta horien artean ez dago tabakoaren kontsumoari buruzko debekurik. Edonola ere, nahiz eta legearen ikuspegitik diskriminaziorik ez egon, jokabide horiek langile ez-erretzaileen artean ezinegona sor dezaketela adierazten dute.

Beste aldetik, eta enpresaburuaren ikuspegitik, erretzeko etenaldiak langileen errendimenduaren kalterako izan daitezke eta, horren ondorioz, baita sortutako etekinen kalterako ere. Baina edonola ere, enpresaburuak ezin dio pertsona bati kontratua ukatu erretzailea delako bakarrik. García-Perrotek zehazten du «enpresaburuak eskatu behar duena enpresan ez erretzea dela, baina printzipioz ezin dio pertsona bati eskatu ez-erretzailea izatea» (García-Perrote; 2006: 9).

Horren aurrean, Sala eta Pedrajasek (2006: 100) uste dute langileen ordezkariekin, hitzarmen kolektiboaren edo enpresa-akordioaren bitartez, edota «tolerantziaren bidearen» bitartez, erretzaileek erre ahal izateko beharrezkotzat har daitezkeen etenaldiak ituntzeko aukera egongo litzatekeela.

Horri dagokionez, García-Perrotek (2006: 9) enpresen eta sektoreen artean dauden desberdintasun «oso esanguratsuak» adierazten ditu, ez baitira berdinak zerbitzu-enpresen kasua eta «lanpostua momentu baterako uztea hain erraza ez den» industria-enpresen kasua. Egile horren ustez, 28/2005 Legeak «hori dela-eta, negoziatorako eremuak irekitzen ditu» baita «jokabide-kodeetarako eta *soft-law*-erako» eremuak ere (García-Perrote, 2006: 9).

Erretzeko debekua urratzea, Administrazioak 28/2005 Legearen arabera jokabide horiek zigortzeko duen eskumena edozein izanik ere, era berean, lan-betebeharrak ez betetzea esan nahi du, eta enpresak ez betetze hori zigor dezake. Kasu honetan, Sala eta Pedrajasek adierazten duten moduan (2006: 102) ez-betetze horiek, kasuen arabera, Langileen Estatutuaren eta dagokien hitzarmen kolektiboen aurreikuspenetara bideratuko dira, hainbat kausen arabera, adibidez lanean diziplinarik ez izatea edo esandakoa ez betetzea, debekua argi eta garbi betetzen ez bada, errendimendua murriztea edo justifikatu gabeko absentiak, langileak lan egiteko bere lanpostua uzten badu, etab. (Sala; Pedrajas, 2006:102).

Estatuko legea indarrean jartzerakoan, hainbat sektorek, adibidez hotelen sektoreak, Lege honek eskatzen dituen obligazioak bete ahal izateko aurre egin behar zaien arazoak adierazi zituzten. Horrela eta adibide gisa, Legea indarrean jarri baino pixka bat lehenago, Euskal Herriko Ostalaritza Federazioaren zuzendaritza-batzordeak baieztatu zuen euskal ostalariek «Legearen aplika-

zioari eragozpenak jartzeko legezkozat hartzen zutela» beren burua, tabakoari buruzko araudi berriari dagokionez; azpimarratzen zuen Euskadiko ostalaritza-sektoreak «Legearen edozein aukera bilatuko zuela ondoren saihesteko», nahiz eta «ezin dugun enpresa-desobedientzia gomendatu, delitua izango baitzen» azpimarratuz. (HostelTur.com, 2005).

II. Tabakoaren produktuen salmentari eta hornidurari dagokionez, 28/2005 Legeak, 3. artikuluan ezartzen du bakarrik tabako- eta tinbre-saltokien sarean edota saltzeko makinaren bitartez egin ahal izango dela, betiere makina horiek tabakoa saltzeko makinaren bidezko salmentarako administrazio-baimen ego-kiak dituzten establezimenduetan kokatuta badaude. Artikulu horretan bertan, esanbidez debekatzen da tabakoa «beste edozein tokitan edo beste edozein baliabideren bitartez» saltzea.

Edonola ere, Legeak esanbidez debekatzen du tabakoa 18 urtez azpikoei saldu edo ematea. Era berean, horrek tabakoa imitatzen duen beste edozein produktu saltzea eta ematea hartzen du barnean, errearaztea saiheste aldera. Ohar horrekin batera, tabakoa imitatu dezaketen produktuei eta, horrenbestez, erretzen has-tea eragin dezaketen produktuei dagokienez, debekatuta dauden hainbat produktu zerrendatzen dira jarraian, besteak beste tabakoaren produktuen forma duten go-zokiak, mokaduak eta jostailuak, adibidez, zigarroak eta puruak, eta adingabeen-tzako erakargarria izan daitekeen horien antzeko beste edozein objektu.

Eta tabakoaren produktuak 18 urtetik azpikoei saldu eta eman ezin zaizkien be-zalaxe, era berean adingabeek produktu horiek saltzea debekatzen du Legeak.

Era berean, gazteenei dagokionez, eskatzen da tabakoaren produktuen paketeetan esanbidez adierazi behar dela 18 urtez azpikoei saltzea debekatuta dagoela. Eta tabakoaren salmenta eta hornidura baimenduta dagoen establezi-mendu horietan autonomia-erkidegoko araudiaren arabera, gaztelaniaz nahiz ofi-zialak diren beste hizkuntzetan adingabeei tabakoa saltzeko debekuari buruzko eta tabakoaren erabileratik eratorritako osasunerako kalteen berri ematen duten kartelak jarri beharko dira ondo ikusteko moduan. Era berean, establezimendu horietan, tabakoa erosi nahi duenak 18 urte baino gutxiago dituela uste bada, le-geak dio pertsona horri 18 urte baino gehiago dituela frogatzen duen dokumentu bat eskatu behar zaiola.

18 urtez azpikoek ezin dituzte tabakoa saltzeko makinak erabili. Makina horiek bide publikoan kokatutako prentsa-kioskoen barruan egon behar dute (otsailaren 19ko 2/2006 Errege Dekretuan-Legean jasotako aldaketak gehitutako tokia), edota erretzea debekatuta ez dagoen lokalen, zentroen edo establezimen-duen barruan, baita hoteletan, tabernetan, jatetxeetan eta dantzalekuetan ere,

hau da, 8.1.b, c eta d artikuluan bildutako tokietan. Tabakoa saltzeko makinak lokaleko titularrak edo lokaleko langileek modu zuzenean eta etengabe zaintzeko tokian jarri beharko dira.

Era berean, adierazitako makinak jarri ezin diren gunehorietan zehazten dituzten Legeak, gunehorien artean lokalei atxikitako eremuak edo lokalerako sarrera-eremuak barnean hartuz, adibidez, haize-babesen eremuak, karrerapeak, atariak, portikoak, merkataritzaguneetako korridoreak, atondoak, banaguneak, eskailerak, arkupeak edota higiezin baten zati izan daitezkeen baina higiezinaren barrua eratzen duten antzeko tokiak.

Horrela, erretzeko erabateko debekua dagoen baina aire zabaleko eremuetan erretzea baimentzen den lantoki horietan tabakoaren produktuen salmenta eta hornidura debekatuta egongo da. Horrek esan nahi du, Sala eta Pedrajasek (2006: 103) adierazten duten moduan, salmentaren eta horniduraren debekua erretzeko debekua baino zabalagoa dela.

Tabakoa saltzeko makinaren aurrealdeko azalera tabakoaren erabileratik eratorritako osasunerako kalteei buruzko ohar sanitarioa jarri beharko da, batez ere adingabeentzat, autonomia-erkidegoko arauak dagokien lurralde-eremurako adierazten dituzten ezaugarrien arabera. Ohar horrek ikusgarria eta argia izan behar du, eta gaztelaniaz eta dagokion Autonomian ofiziala den beste hizkuntzan jarri beharko da Horrelako makinetan ezin izango da tabakoaz aparte beste-lako produkturik eskaini.

Tabakoaren produktuen kontsumoari, salmentari eta hornidurari buruzko 28/2005 Legearen eta 18/1998 Legearen xedapenak batera aztertzen baditugu, Estatuko Legeak Droga-mendetasunei buruzko euskal Legean barne hartuta ez dauden debeku berriak aurreikusten dituela ikus dezakegu. Adierazi dugun moduan, eta Estatuko Legearen oinarritzeko izaera kontuan hartuta, bi legeek bat egiten ez badute Estatuko Legean barne hartutako xedapenak aplikatu beharko dira.

LABURPEN-TAULA

I. Tabakoaren kontsumoa

- *Erabat debekatua dago honako toki hauetan erretzea:*
 - Lantoki publiko eta pribatuetan, aire zabaleko gunetan izan ezik.
 - Herri-administrazioetan eta Zuzenbide publikoko erakundeetan.
 - Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetan.

.../...

.../...

- Ikastetxeetan eta prestakuntza-eskoletan.
 - Kirol-instalazioetan eta ikuskizun publikoetarako tokietan, aire zabalekoak ez badira.
 - Jendearen zuzeneko arretarako guneetan.
 - Zentro komertzialetan, azalera handietan eta galerietan, aire zabaleko guneetan izan ezik.
 - 18 urtez azpikoentzako gizarte-arretako zentroetan.
 - 18 urtez azpikoei sartzeari baimentzen zaien aisia-zentroetan, aire zabalekoak ez badira.
 - Kultura-zentroetan, irakurtzeko eta erakusketa eta hitzaldietarako gela eta aretoetan, liburutegietan eta museoetan.
 - Dantzalekuetan, 18 urtez azpikoei sartzeari baimentzen zaien ordutegian.
 - Garraiobide kolektiboetan, hirikoetan eta hiriartekoetan.
 - Treneko eta itsasoko garraiobideetan, aire zabaleko guneetan izan ezik.
 - Hiripeko garraiogune guztietan, aire zabaleko guneetan izan ezik.
 - Lurralde nazionalako aireontzietan eta Espainiako konpainietako hegaldi guztietan.
 - Igogailu eta jasogailuetan.
 - Telefono-kabinetan, kutxazain automatikoen esparruetan.
 - Janariak landu, eraldatu, prestatu, dastatu edo saltzen diren tokietan.
 - Gasolina-zerbitzuguneetan eta antzekoetan.
 - Beste edozein tokitan, baldin eta, erre daitekeen arren, titularrak debekua ezartzea erabakitzen badu.
- *Honako toki hauetan erretzaileentzako guneak gaitu daitezke:*
 - Gizarte-arretako zentroetan.
 - Hoteletan, ostatuetan eta antzeko establezimenduetan.
 - 100 m²-tik gorako taberna eta jatetxeetan.
 - Dantzalekuetan eta jokoko edo erabilera publikoko establezimenduetan, 18 urtez azpikoei sartzeari galarazten zaien ordutegian, aire zabaleko guneetan izan ezik.
 - Antzokietan, zineetan eta ikuskizun publikoetarako gune itxietan.
 - Aireportuetan.
 - Autobus-geltokietan eta itsas garraioa nahiz tren-garraioa geltokietan.

Erretzeko gaitutako guneek honako betekizun hauek bete behar dituzte:

- Ikusteko moduko seinaleak; bereizketa fisikoa; aireztapena.
- Erretzeko gunearen azalera osoaren % 10 baino txikiagoa behar du. Hotel, taberna, jatetxe eta dantzalekuetan, % 30 gehienez. Inoiz ez 300 m² baino gehiago bi jarduera badaude: azalera bakoitzarentzat zenbatuko da modu bereizian.

Erretzaileentzako guneak ezartzea ezinezkoa bada: ezin izango da erre gune osoan.

16 urtez azpikoak ezin izango dira gaitutako guneetan egon.

100 m² baino gutxiago duten ostalaritza-establezimenduek eta jatetxeek erregimen berezia dute: establezimenduko titularrak erabakiko du barruan erre daitekeen edo ez.

II. Tabakoaren salmenta eta hornidura

- Tabako- eta tinbre-saltokien sarean egin daiteke bakarrik, edo saltzeko makinaren bitartez. Esanbidez debekatzen da tabakoa beste edozein tokitan edo bete edozein baliabideren bitartez saltzea.
- Legeak esanbidez debekatzen du tabakoa 18 urtez azpikoei saldu edo ematea:
 - Tabakoa imitatzen duen beste edozein produktu saltzea eta ematea barne.
- Debeekatuta dago 18 urtez azpikoek tabakoa saltzea.
- Tabako-paketeetan esanbidez adierazi behar da 18 urtez azpikoei saltzea debeekatuta dagoela.
- Salmenta baimenduta dagoen tokietan seinaleak jarri behar dira, 18 urtez azpikoei saltzea debeekatuta dagoela ohartarazteko eta osasunerako kalteen berri emateko.
- 18 urtez azpikoek ezin dituzte tabakoa saltzeko makinak erabili.
- Tabako-makinak honako toki hauetan kokatu behar dira:
 - bide publikoan kokatutako prentsa-kioskoen barruan,
 - erretzea debekatua ez dagoen lokal, zentro edo establezimenduen barruan, baita hotel, taberna, jatetxe eta dantzalekuetan ere,
 - lokalaren titularraren edo langileen zaintza baimenduta dagoen tokietan.
- Tabako-makinak ezin izango dira honako toki hauetan ezarri:
 - lokalei atxikitako eremuetan edo lokaletarako sarrera-eremuetan.
- Tabako-makinetan argi eta garbi adierazi behar da tabakoaren erabilerak osasunari eragiten dizkion kalteen inguruko oharra.
- Horrelako makinetan ezin izango da tabakoaz aparteko bestelako produkturik eskaini.

3.2.2.2. Tabakoaren produktuen publizitatea, sustapena eta babesia

28/2005 Legearen III. kapituluak tabakoaren produktuen publizitatearen, sustapenaren eta babesaren erregulazioari eskainita dago. Erregulazio hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/33/EE Zuzentaraua, 2003ko maiatzaren 26koa, gure antolamendura bildu izanaren ondorioz sortu da. Tabakoaren produktuen publizitatearen eta babesaren arloetan Estatu kideen legezko, arauzko eta administrazioko xedapenak hurbiltzeari buruzkoa da zuzentarau hori.

III. Kapituluak bi artikulua bakarrik ditu. 9. artikuluan tabakoaren produktuen publizitatearen, sustapenaren eta babesaren mugak ezartzen dira. Hala ere, Zioen Azalpenean adierazten den moduan, Legeak erkidegoaren arau honen transkripzioa egiteaz gain, eremu honetan funtsezko aldaketak ere gehitzen ditu. Horrela, zuzenean edo zeharka tabakoa sustatzera bideratuta dauden produktuen, ondasunen edo zerbitzuen doako edo sustapeneko banaketaren edo bestelako ekintzen debekua arautzen du (9.2 artikulua). Era berean, tabakoaren produktuen publizitatea, sustapena eta babesia hedabide guztietan arautzen du, baita tabakoa saltzeko makinak eta informazio-gizartearen zerbitzuak ere, nahiz eta, jarraian ikusiko dugun moduan, salbuespen batzuk eduki:

- Tabakoaren merkataritzan esku hartzen duten profesionaleri bakarrik bideratutako argitalpenak.
- Tabakoaren produktuak sektoreko profesionaleri aurkeztea, tabakoaren merkatuaren antolamenduari eta zerga-araudiari buruzko maiatzaren 4ko Legearen esparruan.
- Produktu horien sustapena tabakoa eta estatuaren tinbrea saltzeko dendetan, baldin eta produktu horiek adingabeei zuzenduta ez badaude eta horrek tabakoaren produktuekin edo erretzeko ohiturekin erlazionatuta dauden ondasun edo zerbitzuak edo tabakoa doan banatzea eragiten ez badu, baita tabakoaren produktuetarako erabilitako izen, marka, ikur edo bestelako bereizgarriak daramatzatenak banatzea eragiten badu ere.

Legeak jarraian adierazten du jarduera horiek ezin izango direla erakuslehoetan gauzatu, ezta establezimendu horietatik kanpora hedatu edo kanpoaldera bideratu ere.

Era berean, tabakoaren produktuen publizitatea duten eta Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetan argitaratu edo inprimatu diren argitalpen horiek salbuesten dira, betiere argitalpen horiek batez ere erkidegoko merkatura bidera-

tuta ez badaude. Argitalpen horiek bereziki adingabeentzat badira ez dira inondik inora onartuko.

2005. urteko martxoaren 16ko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren Irizpenaren ustez 9. artikulua hori aplikatzeko zaila izango zen «komunikazioen nazioartekotzearen munduko testuinguruan». Adibide gisa, erakunde horrek baieztatzen zuen ez dela arrazoizkoa «publizitatearen harrera debekatzea, horretarako baimena eman duten helduen kasuan».

10. artikuluan izendapen komunei buruzko arauak daude, tabakoaren produktuetarako eta aldi berean, bestelako ondasun edo zerbitzuetarako erabiltzen diren eta Legea indarrean jarri baino lehenago enpresa batek edo enpresa-talde batek merkaturatu edo eskaini dituen izenak, markak, ikurrak edo beste zeinu bereizle batzuk erabiltzea debekatuta geratuz.

Horri dagokionez, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren ustez gehiegizkoa izan zen debeku hori gehitzea, munduko merkatuaren testuinguruan produktu mota horien trafikoa murrizteko planteamendua oso errealista ez zelako. Lehenago aipatutako 2005. urteko martxoko Irizpenean, erakunde honek artikulua hori kentzea gomendatu zuen, arrakastarik gabe, izendapen mota horiek 2003/33 Zuzentarauaren xede ez direla kontuan hartzeagatik.

Beste aldetik, Legeak bosgarren xedapen gehigarrian legea indarrean jarri ondorengo hiru urteetan tabakoaren produktuen publizitatearekin eta babesarekin jarraitzeko aukera aurreikusten zuen, mugaz gaindiko efektuak dituen motorraren lehiaketetako eta ekitaldietako talde parte-hartzaileen kasuan, kirolarien arropa barnean hartuz, baita osagarriak, tresnak, ekipamenduak, prototipoak edota ibilgailuak ere. Xedapen hori urtarrilaren 12ko 1/2007 Errege Dekretu Legeak indargabetu zuen, eta arauzko aurreikuspen horiek, Errege Dekretu Legearen Zioen Azalpenean adierazten den moduan, Europako Batzordeko zerbitzuek arau-haustearen prozedura bati hasiera eman zioten, 2003/33 Zuzentarauaren transposizio okerragatik; horrez gain, Legearen 5. artikulua aipatutako mugaz gaindiko kirol-ekitaldien babesa debekatzea ezartzen du, epe iragankorrik gabe.

Berriz ere, gai honi buruzko erregulazio zorrotzago bat ikusten dugu Estatuko Legean 18/1998 Legean baino. 28/2005 Legearen kasuan debeku zorrotzagoak ezarri direnez, arau honetan adierazitako artikuluek Droga-mendetasunei buruzko euskal Legearen 13. artikuluan eta hurrengoetan (II. Kapituluak, III. Atala, Lehenengo Azpisekzioa) bildutako tabakoaren publizitateari eta sustapenari buruzko artikuluek aldatuko dituzte.

Eremu honetan Legea aplikatzearen ondorioz Tabakismoaren Prebentziorako Batzordeak balorazio positibo bat egin du; izan ere, Batzordeko kideen ustez, zuzeneko publizitatearen desagertze publikoak, halaber, haurrak eta nerabeak tabakoa kontsumitzen ez hasteko aukera ematen du.

Testuinguru honetako alderdi negatiboa publizitate modu berriak azaltzea da, baita salmentako establezimenduetarako irizpiderik eza ere.

LABURPEN-TAULA

Tabakoaren produktuen publizitatea, sustapena eta babes

2003. urteko maiatzaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/33/EB Zuzentaraua gure ordenamendura gehitzea. Tabakoaren produktuen publizitatearen eta babesaren arloetan Estatu kideen legezko, arauzko eta administrazioko xedapenak hurbiltzeari buruzkoa da zuzentarau hori.

- *Tabakoaren produktuen publizitatearen, sustapenaren eta babesaren mugak*
 - Debehatuta daude produktu, ondasun edo zerbitzuen doako edo sustapeneko banaketa edo bestelako ekintzak, zuzenean edo zeharka tabakoa sustatzera bideratzen badira (9.2 artikulua).
 - Tabakoaren publizitatea, sustapena eta babesaren debehatuta daude hedabide, saltzeko makina eta informazio-gizartearen zerbitzu guztietan.
 - Debekuaren salbuespenak:
 - Tabakoaren merkataritzako profesionalentzako argitalpenak.
 - Tabakoaren produktuen aurkezpenak sektoreko profesionalentzat.
 - Tabakoa eta Estatuaren tinbrea saltzeko dendetan sustatzea, betiere adingabeentzat ez bada, eta tabakoa doan banatzea ez badakar berekin.
 - Jarduera horiek ezin izango dira erakusleihenetan gauzatu, ezta establezimendu horietatik kanpora hedatu edo kanpoaldera bideratu ere.
 - Europar Batasunetik kanpo argitaratutako edo inprimatutako argitalpenak. Berreziki adingabeentzat badira ez dira inondik inora onartuko.
- *Izendapen komunei buruzko arauak*
 - Debehatuta dago tabakoaren produktuetarako eta aldi berean beste ondasun edo zerbitzuetarako erabiltzen diren izen, marka, ikur edo bestelako bereizgarriak erabiltzea.

3.2.2.3. Tabakismoa prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta tabakoa erretzeari uztea errazteko neurriak

Biztanleriaren osasunarengan tabakoak duen eragina murrizteko gai den tabakismoaren kontrolerako estrategia batean funtsezkoa eta lehentasunezkoa da oro har biztanle erretzaileetan eta bereziki arrisku handiko taldeetan tabakoa uztea sustatzeko neurriei laguntza ematea.

Estatuan nahiz autonomia-erkidegoan tabakoari, tabakoaren kontrolari eta tabakoaren erabileraren prebentzioari buruzko hainbat araudi egin dira. Horietako batzuk ez zeuden bakarrik tabakoari zuzenduta, baizik eta legezko nahiz legez kanpoko droga guztientzat ezarri ziren.

Tabakismoaren prebentzioari dagokionez, hurrengo taulan Estatuan eremu honetan egin diren prebentzioko programa nagusiak biltzen dira:

ESPAINIAKO TABAKISMOAREN PREBENTZIOKO PROGRAMA ETA POLITIKA NAGUSIEN KRONOLOGIA ETA EGOERA

Programak eta jarduerak	Eremua eta kronologia	Egoera
Publizitatearen erregulazioa	1985. urtetik Autonomia Erkidego batzuetan bide publikoko paneletan eta komunikabide instrukzionaletan. Telebistan publizitatea debekatzea, Europako Zuzentarau bat lekuz aldatzen duen 1988. urteko Publizitatearen Lege Orokorriari esker.	Irratiaren, prentsaren, bide publikoko panelen, zeharkako publizitatearen eta babesaren erregulazio eraginkorrik gabe. Irratia eta prentsa 2002. urteko Europako Zuzentarau berri baten transposizioaren bitartez estaliko dira.
Toki publikoetako kontsumoaren erregulazioa	Autonomia Erkidego batzuetan 1985. urtetik garatuta, 192/1988 Legeak indartuta.	Dokumentatuta dagoenez betetzea alderraia izan da, baina handiagoa izango da laguntzazko ekimen jakin batzuk badaude, eta segur aski geroz eta handiagoa izango da betetze hori.
Prebentzioko hezkuntza-programak ikaste-txeetan	Izenez laurogeiko hamarkadatik ezarrita	Sistematikoki praktikan garatuta kasu gutxietan eta udal-edo autonomia-ekimenegatik.

.../...

.../...

Programak eta jarduerak	Eremua eta kronologia	Egoera
Esku hartzeak lehen mailako arretatik eta osasun-sistematik	1987. urtetik tokiko administrazioek (programa pilotu gisa) edo elkarte profesionalek bultzatuta (SEMFYC elkartearen PAPPS).	Prebalentzia murrizteko Autonomia Erkidegoko Zerbitzu batzuek modu zabalago batean hedatuta eta osasunaren lehen mailako arretaren erreformaren hedatzea.
Tratamendu-unitate espezializatuak	Ospitaletako eta unibertsitatetako ekimenei lotuta. Prestakuntzaren eta ekimen berrien bultzada-iturri dira, adibidez eteterako telefono-lineak (erretzeari uzteko).	Biztanleria osoa hartzen ez badute ere, kopuruan eta lurralde-ezarpenean handitzen joan dira.
Eteterako programa komunitarioak	1988. urtean toki mailan hasi ziren, OMEren ekimenei lotuta (Tabakorik gabeko Munduko Eguna).	Eskala handiagoan jarraitzen dugu aldian-aldian eta biztanleria-estaldura handiagoarekin (Tabakorik gabeko Munduko Eguna, Quit & Win...).
Tabakoaren gaineko fiskalitatearen gehikuntza	1992. urteko Europako Zuzentaraua, 2001. urtean eguneratua.	Prezioen igoera handiago bat ekarri zuen, 1992-97 aldian batez ere.

Iturria: UGT (2006): *Lor dezakezu...*, 34. or.

I. Nazioarteko erakundeek ezarritako norabidean tabakismoaren tratamenduaren eremuan aurrera egitea bermatzen duen 28/2005 Legearen onarpenak aurrerapen handia ekarri du. Legearen eskakizunek posizio egoki batean kokatzen gaituzte oinarri teknikoak aztertu eta zehazteko. Egokia izango litzateke, eskuragarri dauden baliabideen arabera, oinarri tekniko horiek erretzailleentzako laguntza-jardunak orientatzeko aukera edukiko balute. Tabakismoaren Prebentziorako Batzorde Nazionalak uste du Lege horren onarpenarekin «egokia dela alor honetan noraino iritsi garen aztertzea, jakintza zientifikoaren ikuspegitik nahiz erakunde-garapenaren ikuspegitik, eta gutxieneko komun batzuek planteatzea aurrerantzean horietatik aurrera egiteko, Legeak adierazten duen moduan» (Tabakismoaren Kontrolerako Batzorde Nazionala, 2008).

Izan ere, 28/2005 Legearen helburu gisa, eta legea egiteko dauden justifikazioen artean hezkuntzaren, prebentzioaren eta asistentziaren arloetako eskuhartzea dago, gazteenei arreta berezia eskainiz.

Beste aldetik, Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu komun en kartera eta Osasun Sistema Nazionala eguneratzeko prozedura ezartzen duen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuak tabakismoaren arloko laguntza antolatzeke oinarriak zehazten ditu.

Horrela, 28/2005 Legearen eta 1030/2006 Errege Dekretuaren arabera, Osasun Sistema Nazionalak tabakismoari heldu behar dio. Tabakismoaren Prebentziorako Batzorde Nazionalaren iritziz (2008), tabakismoari modu eraginkorrean heltzeko, badirudi egokia dela honako hauek egiteko irizpideak argitzea:

- egokitzapena eta berdintasuna zerbitzuak ematerakoan;
- giza baliabideak esleitzea;
- baliabide ekonomikoak ematea;
- tresna eta tratamendu egokiak erabiltzea;
- prestakuntza profesional egokien, espezializaziokoaren eta prestakuntza jarraituaren eskuragarritasuna ziurtatzeko gai diren neurriak aurreikustea.

II. 28/2005 Legeak, adierazi dugun moduan izaera sanitarioa du, kritika batzuk jaso ditu *tabakismoaren prebentzioari* dagokionez. Izan ere «tabakismoaren prebentzioaren, osasunaren sustapenaren eta tabakoarekiko deshoitzea errazteke neurriak» izenburua edukitzeaz gain, ez die gai horiei heltzen IV. Kapitulura arte, aldez aurretik –II. Kapituluan– erretzeko debekuari buruzko neurriak, eta debeku horren kontrola zabalago bat ezarriz –V. Kapitulua, arau-hausteen eta zigorren araubidea–.

IV. Kapituluan, zehazki 13. artikuluan, genero-ikuspegia esanbidez sartzen da tabakismoaren prebentziorako neurriak hartzean, baita adingabeen osasunaren eta hezkuntzaren babes berezia ere.

Legearen Zioen Azalpenetik behin baino gehiagotan adierazten da gazteen osasunarekiko kezka, neurriak batez ere gazteei zuzendu behar zaizkiela adieraziz: «proposatutako neurriak hartzea beharrezkoa da, era berean, Estatu osoan garatutako hezkuntzako, prebentzioko eta laguntzako esku-hartzeei arau-euskarria eta -estaldura eskaintzeko. Halaber, ikuspegi horretatik, esku-hartze horien existentzia eta eraginkortasuna erraztuko duen oinarri juridiko bat edukitzeke beharra nabarmentzen da, batez ere haur eta gazteen artean, nagusiki sektore horretara zuzentzen baita tabakoaren produktuen erregulazioa».

Horrela, 13. artikuluan, adingabeen osasunaren babesa eta hezkuntza aipatzen dira, kontsumoa prebenitzeko eta kontsumitzen has daitezzen saihesteko, eta, hala badagokio, adingabeei mendetasuna gairitzen laguntzeko.

Horretarako, Legeak guraso erretzaileentzako informazio espezifikoa, eta kearen eraginpean egoteak adingabeei eragiten dizkien kalteei buruzko kanpainak barnean hartzen dituen jardun-programak haurren pediatria-arretan martxan jartzea sustatzen du.

IV. Kapitulu honetan, Printzipio orokor batzuk ezarri dira, eskumeneko Herri-administrazioek, zuzenean eta elkarte zientifikoekin, gizarte-eragileekin eta gobernuz kanpoko erakundeekin elkarlanean, osasunerako hezkuntzako, informazio sanitarioko eta tabakismoaren prebentzioko ekintza eta programak susta ditzaten.

Era berean, Legean honako hauek biltzen dira: Herri Administrazioetatik tabakoarekiko deshoitzeko programa sanitarioen sustapena eta Gobernuaren eta Autonomia Erkidegoen arteko lankidetzak, Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluaren baitan, Legearen aginduak betetzeko garatu beharreko ekimen, programa eta jarduerak bultzatzeko (12. artikulua). Horretarako, Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseilu horren baitan tabakoa erretzeari uzteko unitateak sortzea aurreikusten du Legeak.

Laguntza-sarean burutuko diren tabakotik deshoitzeko programekin batera, batez ere lehen mailako arretan, Legeak ikastetxeetan, osasun-zentroetan, lantokietan eta kirol- eta aisia-inguruetan tabakoaren kontsumoa uztera jotzen duten programen sustapena eskatzen du.

Osasun eta Kontsumo Ministerioak ezarriko ditu tabakismoa prebenitzeko eta kontrolatzeko unitateen irizpide eta protokoloak, Autonomia Erkidegoekin eta elkarte zientifikoekin koordinatuta.

Era berean, ezartzen da eskumeneko Administrazioek aukera izango dutela ezarritako zigorren zenbatekoak, guztiz edo partzialki, ikerketako, hezkuntzako, prebentzioko, eta tabakismoa kontrolatzeko eta tabakoa erretzeari uztea errazteko programen garapenera bideratzeko.

28/2005 Legeak Tabakismoa Prebenitzeko Behatokia sortzea aurreikusten du, Osasun eta Kontsumo Ministerioaren baitan eta Autonomia Erkidegoekin, elkarte zientifikoekin, kontsumitzaile-elkarteekin eta gobernuz kanpoko erakundeekin elkarlanean. Adierazitako behatokiaren zereginak honako hauek izango dira:

- ekimenak, programak eta jarduerak proposatzea,
- tabakismoaren prebalentzia murrizteko helburuak ezartzea, eta
- Legearen egoerari, aplikazioari, emaitzei eta betetzeari buruzko urteko txostena egitea.

Behatoki hori 2006. urteko urrian eratu zen, eta Behatokiaren Zuzendaritza Batzordea honako erakunde hauetako ordezkariak osatzen dute:

- Autonomia Erkidegoen eta Autonomia Estatutua duten Hirien Osasun Sailak.
- Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioa (FEMP).
- Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak.
- Carlos III Osasun Institutua.
- Tabakismoaren prebentzioan eta kontrolean inplikaturako elkarte zientifikoak: Medikuntza Familiarreko eta Komunitarioko Espainiako Elkarte (SEMFYC), Osasun Publikoko eta Administrazio Sanitarioko Espainiako Elkarte (SESPAS) eta Tabakismoaren arloko Espezialisten Espainiako Elkarte (SEDET).
- Beren helburuen artean tabakismoaren prebentzioa eta kontrola duten nazio eremuko gobernu kanpoko erakundeak: Tabakismoaren Prebentziorako Batzorde Nazionala (CNPT) eta Minbiziaren aurkako Espainiako Elkarte.
- Nazio eremuko erakunde sindikal adierazgarrienak: UGT eta CCOO eta Espainiako Enpresaburuen Elkarten Konfederazioa (CEOE).

2007. eta 2008. urteetarako Behatokiak planteatu dituen lan-ildoek honako proiektu hauek zehazten dituzte:

- 28/2005 Legearen eta erlazionaturako araudiaren jarraipenari, kontrolari eta balorazioari buruzko jarduerak. Horretarako, Autonomia Erkidegoek, Tabako Merkatuaren Ordezkaritzak (udalak eta elkarte zientifikoak, Tabakismoaren Prebentziorako Batzorde Nazionala) eta beste erakunde batzuek igorritako informazioa sistematikoki biltzea aurreikusita dago. Aldian aldiko txostenak egingo dira eta Legearen betetze-mailaren pertzepzioei eta iritziei buruzko nazio eremuko populazio-inkesta bat burutuko da.
- Gako-adierazleen definizioa –oinarrizko hiru eremuetan: ohituraren hasieraren prebentzioa, erretzaileari laguntzea eta kerik gabeko guneak sustatzea– tabakismoaren prebentziorako eta kontrolerako jardueren eta neurrien eragina monitorizatzeke.
- Epidemiologia- eta ikerkuntza-azterketak honako hauei buruz:
 - Tabakoa kontsumitzen hasteko agertoki berriak eta faktore baldintzagarriak 28/2005 Legearen ondoren.

- Osasun-arloko profesionalen kontsumoa, jarrerak, iritziak eta eskuhartzea.
 - Erretzeari uzteko terapien eraginkortasuna eta irisgarritasuna, genero-ikuspegia kontuan hartuta.
 - Tabakismo pasiboa.
- Gizarte zibilaren, administrazioaren eta elkarte zientifikoaren artean sinergiak sortzea.

III. 28/2005 Legea aplikatu ondoren, eremu publiko gehienetan nikotina-mailak nabarmen murriztu dira, tabakoaren kearen eragina gehien nabarmendu izan den tokietan izan ezik, aisia- eta ostalaritza-tokietan, esaterako.

Legea indarrean jarri ondoren, tabakismoaren prebentzioaren arazoaren dimentsioen gaur egungo egoeraren balorazioa positiboa da zuzeneko publizitatearen desagertze praktikoa bezalako alderdietan, aurreko idatz-zatian adierazi dugun moduan, gazteenak tabakoa kontsumitzen has ez daitezkeen aukera gisa azaltzerakoan.

Baina balorazio hori ez da hain positiboa erretzen dutenentzako laguntza-egiturak kontuan hartzen baditugu, mendetasun-maila handienak dauzkatenen kasuetarako bereiziki. Tabakismoaren Prebentzioaren eta Tratamenduaren VII. Kongresuan (2007) egitura horren ahultasuna eta behar bezala finantzatuta ez dagoela adierazten zen; horrenbestez, Gobernu zentralari eta Autonomia Erkidegoei eremu horretan modu egonkor batean fondo nahikoak inbertitzeko eskatu zitzairen.

Egoera hori kontuan hartuta, Batzorde Nazionaletik Tabakismoaren Prebentziorako Batzorde Nazionalak (2007) herri-administrazioei, besteak beste prebentzioaren inguruan, zera galdegin die:

- 28/2005 Legearen garapena, gune publiko guztiak erabat tabakoaren kerik gabekoak izango direla bermatzeko,
- behar bezain beste baliabide inbertitu herritarrentzako informazio-maila hobezina lortzeko, politika horren arrazoia azaltzeko,
- beste administrazioen inplikazioa –Nekazaritza Ministerioa eta Ekonomia Ministerioa aipatzen dira– legeriaren betetze-maila hobetzeko erantzukizunak har ditzaten,
- osasun-agintariak, Autonomia Erkidegoekin batera, erretzeari uzteko nahia eta premia duten pertsonen kalitatezko osasun-laguntza eskaintzeko beharrezkoak diren baliabideen aurrekontua egitea,

- tabakismoaren tratamenduaren eremuan lan egiten duten osasun-arloko profesionalen prestakuntza jarraitua,
- aurrekoari dagokionez, zerbitzu espezifikoaren zuzkidura osasunaren eremu guztietan, baita terapia eraginkorrenen finantzaketa ere,
- genero-ikuspegiaren beharra tabakismoari modu integralean heltzerakoan.

Begi-bistakoa dirudi 28/2005 Legearen interpretazioa, tabakismoaren prebentzioari dagokionez, ez dela baketsua. Horrela, Lege horren aplikazioan isla argi bat eduki duten desadostasunak sortu dira Legearen interpretazioan. Prebentzioari eta laguntzari dagokionez, interpretazio-arazoek eragin negatiboa izan dute herritarrentzako prestazioetan.

LABURPEN-TAULA

I. Tabakismoa prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta tabakoa erretzeari uztea errazteko neurriak

- 28/2005 Legea aintzat hartzeko hainbat justifikazio daude, besteak beste: hezkuntzaren, prebentzioaren eta asistentziaren arloetan esku hartzea, gazteenei arreta berezia eskainiz.
- Genero-ikuspegia esanbidez sartzen da, baita adingabeen osasunaren eta hezkuntzaren babes berezia ere.
- Adingabeen osasunaren babesa eta hezkuntza aipatzen dira, kontsumoa prebenitzeko eta kontsumitzen has daitezten saihesteko, eta, hala badagokio, adingabeei mendetasuna gainditzeko laguntzeko (13. artikulua).
- Printzipio orokor batzuk ezarri dira, eskumenero Herri-administrazioek, zuzenean eta elkarrekin zientifikoekin, gizarte-eragileekin eta GKEekin elkarlanean, osasunerako hezkuntzako, informazio sanitarioko eta prebentzioko ekintza eta programak susta ditzaten (11. artikulua).
- Herri Administrazioetatik, tabakoa erretzeari uzteko programa sanitarioak sustatzea. Gobernuaren eta Autonomia Erkidegoen arteko lankidetzak, Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluaren baitan, Legearen aginduak betetzeko garatu beharreko ekimen, programa eta jarduerak bultzatzeko (12. artikulua). Horretarako, Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseilu horren baitan tabakoa erretzeari uzteko unitateak sortzea aurreikusten du Legeak.
- Osasun eta Kontsumo Ministerioak ezarriko ditu tabakismoa prebenitzeko eta kontrolatzeko unitateen irizpide eta protokoloak, Autonomia Erkidegoekin eta elkarrekin zientifikoekin koordinatuta.

.../...

.../...

- Tabakismoa Prebenitzeko Behatokia sortzea aurreikusi da, Osasun eta Kontsumo Ministerioaren baitan eta autonomia-erkidegoekin, elkarte zientifikoekin, kontsumitzaile-elkartekin eta GKEekin elkarlanean.
- Eskumeneko Administrazioek aukera izango dute ezarritako zigorren zenbatekoak, guztiz edo partzialki, ikerketako, hezkuntzako, prebentzioko, eta tabakismoa kontrolatzeko eta tabakoa erretzeari uztea errazteko programak garatzera bideratzeko.

28/2005 Legearen balorazioa, tabakismoaren prebentzioari dagokionez

- Legeak aurrerapen handia ekarri du, tabakismoaren tratamenduaren eremuan aurrera egitea bermatzen duena, nazioarteko erakundeek ezarritako norabidean.
- Eremu publiko gehienetan nikotina-mailak nabarmen murriztu dira, tabakoaren kearen eragina gehien nabarmentzen den tokietan izan ezik, aisia- eta ostalaritza-tokietan, esaterako.
- Zenbait alderditan balorazioa positiboa da. Esaterako, zuzeneko publizitatea ia guztiz desagertu da, eta adingabeak tabakoa kontsumitzen hastea saihesteko mesedegarria da hori.
- Prebentzioari dagokionez ere Legeak zenbait kritika jaso ditu.
- Erretzen dutenentzako asistentzia-egiturak hainbat kritika jaso ditu, ahula delako eta finantziazio urria duelako, mendetasun-maila handienak dauzkatenen kasuetarako bereziki.
- Legearen interpretazioan sortu diren desadostasunek eragina izan dute Legea aplikatzerakoan, eta horrek eragin negatiboa izan du herritarrentzako prestazioetan.

3.2.3. ARAU-HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN ERREGIMENA

I. 5. Kapituluak Legean bildutako xedapenen inguruko jokabideekiko arau-hausteen eta zehapenen erregimenari buruzkoa da. 18. artikulua xedapen orokorren ondoren, 19. eta 20. artikuluetan aplikatu daitezkeen hainbat arau-hauste eta zehapen biltzen dira, jarraian arduradunak nortzuk diren eta ekintzak nola egin behar diren ezarritik, banan-banan nahiz modu kolektiboan, Legean xedatutakoa betetzea eskatzeko.

Legearen aplikazioa da puntu eztabaidagarrienetako bat. Toki jakin batzuetan Legea ez da aplikatzen, alde batetik, xedapenetako batzuk interpretatzeko arazoak daudelako, eta bestetik, zehapenak aplikatzeko eskumenak ez direlako behar bezala zehaztu.

Erantzukizun zibilak, penalak edo izan daitezkeen beste mota batekoak alde batera utzi gabe, zehapen-ahalmena Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen eta Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorraren arabera bete beharko da.

Arau-hauste larriak edo oso larriak izatean, 30/1992 Legearen eta hura garatzeko arauen arabera, eta Autonomia Erkidegoetako arauak ezar ditzaketenak alde batera utzi gabe, bertan aurreikusitako behin-behineko neurriak hartu ahal izango dira behin betiko ematen den ebazpenaren eraginkortasuna eta prozeduraren amaiera ona bermatzeari begira, eta arau-haustearen ondorioak eta interes orokorren eskaerak mantentzea saihesteari begira.

Nolanahi ere, neurri horiek ordenamendu juridikoan aurreikusitako bermeak, arauak eta prozedurak errespetatu beharko dituzte honako eskubide hauek babesteko: intimitate pertsonalerako eta familia-intimitaterako eskubidea, datu pertsonalak babesteko eskubidea, eta adierazpen-askatasunerako edo informazio-askatasunerako eskubidea, eskubide horiek betetzen ez badira.

Legeak hartu ahal izango diren neurriak zerrendatzen ditu:

- arau-hauste oso larriak izatean, arau-hauslearen jarduera aldi baterako etetea eta haren establezimenduak behin-behinekoz ixtea,
- tabakoaren produktuak prezintatzea, gordailatzea edo bahitzea,
- erregistro, euskarri eta fitxategi informatikoak eta dokumentuak oro har eta mota guztietako tresna eta ekipo informatikoak prezintatzea, gordailatzea edo bahitzea,
- jendeari honako hau jakinaraztea: jokabide arau-hausleak egon daitezkeela eta dagokion zehapen-espeditatearen hasiera, eta baita jokabide horiei uzteko hartutako neurriak ere.

Adostutako neurriak betetzen ez badira, zehapen-prozedura ebazten duen administrazio eskudunak 6.000 € bitarteko isun hertsatzaileak ezarri ahal izango ditu neurri horiek betetzen ez diren egun bakoitzeko. Tolosak adierazi du neurri horiek «ez direla ordainduko» eta helburu bakarra «agindutakoa betearaztea» dela (Tolosa, 2006: 121).

Hala ere, behin-behineko neurriak baliorik gabe geratuko dira neurriak hartu eta 15 egunetan zehapen-prozedura hasten ez bada, edo hasierako akordioak neurri horien inguruko esanbidezko erabakirik ez badu. Prozedura hasteko erabakian neurriak berretsi, aldatu edo kendu egin beharko dira.

Tolosak neurri horiei dagokienez azaltzen duenez, «larritasuna eta garrantzia» azpimarratu behar dira «azken batean, zehapen-prozedura amaitu ondoren ezar daitezkeen zehapenak baino larriagoak» baitira, diru-zehapenak soilik ezartzean, behin-behineko neurriek, adibidez, jarduerak aldi baterako eteteko edo establezimendua behin-behineko ixteko baimena eman dezakete. (Tolosa, 2006: 119).

Legeak 19. artikuluan xedapenak ez betetzeagatiko balizko arau-hausteak zerrendatzen ditu eta honela sailkatzen ditu: arinak, larriak eta oso larriak.

II. Honako hauek dira *arau-hauste arinak* (19.2 artikulua):

- Guztiz debekatuta dagoen tokietan erretzea edo *ad hoc* guneak prestatuta erre badaiteke, prestatutako gune horietatik kanpo erretzea.
- Tabakoa sal daitekeen establezimenduetan 18 urtetik beherakoei tabakoa saltzeko debekuari buruzko eta tabakoaren erabileratik eratorritako osasunerako kalteen berri ematen duen kartelik ez izatea edo ez erakustea ikusteko moduko tokian.
- Saltzeko makinek behar bezalako osasun-oharrik ez izatea edo Legeak eskatutako ezaugarriak ez betetzea.
- Establezimenduen sarreretan argi eta ikusteko moduan ez adieraztea erre daitekeen ala ez, baita erretzaileentzako eta ez-erretzaileentzako guneak daudela adieraztea ere edo gainerako formaltasunak ez betetzea.
- Erretzeko prestatutako guneak behar bezala ez seinaleztatzea.
- Adingabeei tabakoa saldu edo merkaturatzea.

Lehen kasuan, guztiz debekatuta dagoen tokietan edo horretarako prestatutako guneetatik kanpo errez gero, jokabidea bakana bada, 30 € bitarteko isuna aurreikusten du Legeak. Legeak arau-hauste larritzat hartzen dituen gainerako kasuetan, isuna 30-600 € bitartekoa izango da.

III. Legeak *arau-hauste larritzat* hartzen dituen jokabideak erretzaileentzako guneak prestatu behar diren tokiei eta gune horien ezaugarriei nahiz kontsumoari, saldu eta hornitzeari, eta tabakoaren produktuen publizitate eta sustapenari dagozkionak dira. Kasu horietan, eta 20.1 artikuluaaren arabera, aplika daitekeen zehapena 601-10.000 € bitarteko isuna izango da.

Erre ezin daitekeen tokiekin lotutako arau-hausteei dagokienez, arau-haustek honako hauek dira (19.3.a artikulua):

- Erre ezin daitekeen establezimendu eta tokietan erretzeko guneak prestatzea.
- Prestatutako guneek Legeak eskatzen duen beste guneak bereizteko, aireztatzeko eta azalerako betebeharrak ez betetzea.

Honako hauek dira tabakoaren erabilerarekin lotutako eta 19.3.b eta c artikuluetan bilduta dauden arau-hauste larriak:

- Guztiz debekatuta dagoen tokietan erretzeko aukera ematea.
- Horretarako prestatutako guneetatik kanpo erretzeko aukera ematea.
- Hiru arau-hauste metatzea guztiz debekatuta dagoen tokietan edo horretarako prestatutako guneetatik kanpo erretzeagatik, hau da, 19. artikulua 2.a) idatz-zatian aurreikusitako arau-hauste arinak.

Legeak, era berean, arau-hauste larrietan, tabakoaren produktuak merkaturatzeari, saltzeari, hornitzeari eta banatzeari buruzko arau-haustea barne hartzen ditu. Arau-hauste horien artean, 18 urtetik beherakoei dagokienez jokabide horiek izateagatik arau-hauste larriak bereizten dira. Tabakoaren produktu jakin batzuk saltzeagatik, hornitzeagatik eta banatzeagatik arau-hauste larriei dagokienez, 19.3 artikuluan honako hauek biltzen dira:

- Geruza naturalik ez duten zigarreta eta zigarro txikiak 20 unitate baino gutxiagoko paketeetan eta banakako unitateetan merkaturatzea, saltzea eta hornitzea.
- Geruza naturala duten zigarro eta zigarro txikiak unitateka saltzea eta hornitzea horretarako baimenik ez dagoen tokietan.
- Tabakoaren edozein produkturen laginak ematea edo banatzea, doakoak izan edo ez.
- Espresuki debekatuta dagoen tokietan tabakoa saltzeko makinak instalatzea edo kokatzea.
- Tabakoaz bestelako produktuak tabakoa saltzeko makinaren bidez hornitzea edo banatzea.
- Tabakoaren produktuak urrutiko salmenta edo antzeko prozeduren bidez saltzea eta hornitzea, tabakoa saltzeko makinaren bidezko salmenta izan ezik.
- Tabakoa eta Estatuaren tinbrea saltzeko dendetatik kanpo tabakoaren produktu bat sustatzeko (zuzenean edo zeharka) produktu, ondasun edo zerbitzuen doako edo sustapeneko banaketa.
- Tabakoaren produktuak beherapena aplikatuta saltzea.

- Tabakoaren produktu baterako dagoeneko erabilitako izenak, markak, ikurak edo beste zeinu bereizgarri batzuk erabiliz ondasunak edo zerbitzuak merkaturatzea, Legeak horretarako aukera ematen duen bestelako baldintzetan.
- Tabakoaren produktuak beste edozein ondasun edo zerbitzuren izena, marka, ikurra edo beste edozein zeinu bereizgarri erabiliz merkaturatzea, Legeak horretarako aukera ematen duen bestelako baldintzetan.
- Tabakoaren produktuak saltzea, uztea edo hornitzea Lege horretan ezarritako gainerako debeku edo mugak bete gabe.
- Tabakoa eta Estatuaren tinbrea saltzeko dendetan, soilik tabakoaren produktuekin edo erretzeko ohiturarekin lotuta dauden edo tabakoaren produktuetarako erabilitako izen, marka, ikur edo bestelako zeinu bereizgarriak daramatzaten ondasun edo zerbitzuak doan banatzea.

18 urtetik beherakoei tabakoaren produktuak saltzeagatiko, hornitzeagatiko eta banatzeagatiko arau-hauste larriei dagokienez, Legeak 19.3 artikuluan ere honako hauek hartzen ditu barnean:

- Hemezortzi urtetik beherakoei tabakoaren produktuak edo tabakoaren produktuak imitatzen dituzten eta errearazteko produktuak, hala nola, gozokiak, mokaduak, jostailuak eta tabakoaren produktuen forma duten eta adingabeentzat erakargarriak izan daitezkeen beste objektu batzuk saltzea edo ematea.
- Hemezortzi urtetik beherakoei tabakoaren produktuak saltzeko makinak erabiltzeko aukera ematea.
- Saltzeko makinek (establezimenduaren titularrak) aktibatzeko edo martxan jartzeko mekanismo egokia ez izatea.
- Produktuen, ondasunen edo zerbitzuen doako edo sustapeneko banaketa hemezortzi urtetik beherakoei tabakoaren produktu bat sustatzeko (zuzenean edo zeharka).

IV. Arau-hauste oso larriei dagokienez, Legeak tabakoaren produktuen publizitatea, sustapena eta babesba hartzen ditu halakotzat ingurune guztietan, baita informazio-gizartearen zerbitzuetan ere. Hor Legeak onartzen dituen eta 9.1 artikuluan aurreikusita dauden kasuak salbuesten dira, hau da:

- tabakoaren merkataritzan esku hartzen duten profesionaleri soilik bideratutako argitalpenak,
- sektoreko profesionaleri tabakoaren produktuak aurkeztea 13/1998 Legearen esparruan, betiere produktu horiek adingabeei zuzenduta ez badaude

eta horrek tabakoa edo tabakoaren produktuekin soilik edo erretzeko ohiturarekin lotutako edo tabakoaren produktuetarako erabilitako izen, marka, ikur edo bestelako zeinu bereizgarriak daramatzaten ondasun edo zerbitzuak doan banatzea eragiten ez badu,

- tabakoaren produktuen publizitatea duten eta Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetan argitaratu edo inprimatu diren argitalpenak, betiere argitalpen horiek batez ere komunitateko merkatura bideratuta ez badaude, salbu eta batez ere adingabeei bideratuta badaude.

Legeak zehapen gisa jokabide oso larrietarako 10.001-600.000 € bitarteko isuna aurreikusten du.

V. Isunaren zenbatekoak Gobernuak aldian-aldian berrikusi eta eguneratuko ditu errege dekretuaren bidez. Arau-hauste arinen kasuan nahiz arau-hauste larri eta oso larrietarako, dagozkion zehapenak, kategoria bakoitzean, hiru mailatan banatuko dira: goxienekoa, erdikoa eta gehienekoa.

Ezartzea erabakiko den zehapen zehatzaren zenbatekoa hainbat gorabehera kontuan hartuta mailakatuko da:

- osasunarentzat sortutako arriskua,
- arau-hauslearen ahalmen ekonomikoa,
- arau-hausteak gizartean duen eragina,
- zehatutako jokabideak arau-hausleari eragin dion onura, eta
- aldez aurretik Legearen arau-hauste bat edo gehiago egin izana.

Hala ere, kaltetua adingabea bada, edo arau-haustea behin eta berriz egiten bada, zehapen handiena ezarriko da.

Bestalde, jokabideak adingabe batek egiten baditu, dagozkion zehapen txikiak ezarriko dira. Legeak, 21.8 artikuluan ezartzen du arau-haustea adingabe batek egiten duenean, erantzule solidarioak gurasoak, tutoreak, hartzailleak eta legezko edo izatezko zaintzaileak izango direla, hurrenkera horretan, eta isunaren ordezkari erkidegoko araudiak zehatutako berriz hezteko neurriak hartzeko aukera izatea barne hartuz.

Arau-hausteak adingabeek egiten dituztenean isun txikiak ezartzeko oinarria, badirudi erantzukizun solidario hori izatean dagoela. Gure iritziz, egokiagoa izango litzateke Legeak esanbidez erantzun hezitzailea barne hartzea, adingabearen jokabidean benetako eragina izango lukeena, aukera hori erkidegoko araudiari

utzi beharrean, araudi hori ez baita beti izango, edo baldin badago, ez ditu beti adingabea berriz hezteko zehapenak barne hartzen.

Horrela, adingabeek Legea betetzen ez dutenerako hainbat neurri har daitezke, argi eta garbi hezitzaileak eta zehapen ekonomiko soiletik haratagoko erantzukizuna hartzeko, azken batean, lehen aipatutako pertsonak aseko dituztenak.

Arau-haustea egitearen ondorioz, isunaren kostua baino onura handiagoa lortzen bada, arau-hausleak lortu duen zenbatekoaren bikoitza izango da zehapena.

Egintza berak bi arau-hauste edo gehiago eragiten baditu, zehapen handiena besterik ez da kontuan hartuko. Eta arau-haustea delitua edo hutsegitea eragiten badu, administrazio-organoak Ministerio Fiskalari jakinaraziko dio eta agintaritza judizialak bere erabakia eman arte ez du zehapen-prozedura jarraituko. Erantzukizun penala badela zehazterakoan, jarriko den zehapen penalak alde batera utziko du administrazio-zehapena ezartzea. Era berean, administrazio-erantzukizunak eskatzea zibilekin edo bestelako batekin bateragarria izango da.

Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioari dagokionez, Legeak honako epe hauek ezartzen ditu horien larritasunaren arabera:

- Arau-hauste arinak: urtebetera preskribatuko dute.
- Arau-hauste larriak: bi urtera preskribatuko dute.
- Arau-hauste oso larriak: hiru urtera preskribatuko dute.

VI. Legea betetzeko kontrola eta kasua iristen bada, erantzukizunak eskatzea, Estatuko Administrazioari edo Autonomia Erkidegoetakoari dagokio, 22. artikulua dionez (1 eta 2). Ikuskatzeko eta zehatzeko eskumenei dagokienez, Legeak esleipen bikoitza ezartzen du:

- Autonomia Erkidegoetako organo eskudunek eta Autonomia Estatutua duten Hiriek, hala badagokie, beteko dituzte kontrolatzeko eta ikuskatzeko eginkizunak, ofizioz edo alderdiren batek eskatuta, baita zehapen-espedienteak izapidetzea eta zehapenak ezartzea ere (22.2 artikulua).
- Estatuko Administrazio Orokorrek ikuskatzeko edo kontrolatzeko eskumena izango du, ofizioz edo alderdiren batek eskatuta, baita zehapen-espedienteak izapidetzeko ere:
 - aireko, itsasoko edo lurreko garraioaren eremuan, autonomiaz gaindiko edo nazioarteko esparruan,
 - haien ezaugarriak direla-eta, Autonomia Erkidegoen eta Autonomia Estatutua duten Hirien eskumenen eremua gainditzen duten esparru, bulego edo baliabide guztietan.

Organo horiek ofizioz edo alderdiren batek eskatuta jardun ahal izango dute eta eraginpeko eskubide baten edo legezko interes baten edozein titularrek administrazio-organoetan eta jurisdikzio-arloko organoetan Lege horretan xedatutakoa gauzaraztea eta betetzea eskatu ahal izango du.

Droga-mendetasunen euskal Legeari dagokionez, arau-hausteen eta zehapenen erregimena aztertzen badugu, ikusten dugu bi araudien zehapenak ez datozela bat. Berriz ere kontuan hartu behar dugu estatuko Legea oinarrizkoa dela Estatu osoan aplikatuko den heinean, 18/1998 Legean araututakoaren aldean.

Hala ere, dagoeneko aipatutako estatuko Legearen 22.2 artikulua ezartzen du Autonomia Erkidegoetako organo eskudunek egingo dutela ikuskapena, kontrola eta zehapen-espeditteen izapidetzea; beraz, kontuan hartu beharko da droga-mendetasunen 18/1998 Legearen 54. artikuluan ezarritakoa; bertan, arlo horretako organo eskudunak zerrendatzen dira.

Bestalde, bi legedietako arau-hauste mota desberdinei dagokienez, gure us-tez estatuko legean eta euskal legean bildutako zehapenen arteko lotura, balio-kidetasuna aurkitu beharko da, hartara zehatzeko organoak esleitzeko antzeko arau-hauste moten arabera.

LABURPEN-TAULA

I. Arau-hausteen eta zigorren erregimena

- *Zehapen-ahalmena*: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen eta Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorren arabera gauzatu beharko da.
- *Behin-behineko neurriak*: arau-hauste larriak edo oso larriak direnean hartu ahal izango dira, 30/1992 Legearen eta hura garatzeko arauen arabera, eta Autonomia Erkidegoetako arauak ezar ditzaketenak bazter utzi gabe:
 - ordenamendu juridikoan aurreikusitako bermeak, arauak eta prozedurak errespetatu beharko dituzte.

Hartu ahal izango diren neurriak :

- arau-hauste oso larrien kasuan: arau-haustearen jarduera aldi baterako etetea eta establezimenduak behin-behineko ixtea,
- tabakoaren produktuak prezintatzea, gordailatzea edo bahitzea,
- erregistroak, euskarriak eta fitxategi informatiboak eta dokumentuak oro har eta tresnak eta ekipo informatikoak prezintatzea, gordailatzea edo bahitzea,

.../...

.../...

- jendeari honako hau jakinaraztea: jokabide arau-hausleak egon daitezkeela eta zehapen-espeditentaren hasiera, eta baita hartutako neurriak ere.

Neurriak betetzen ez badira: zehapen-prozedura ebazten duen administrazioak 6.000 € bitarteko isun hertsatzaileak jarri ahal izango ditu neurri horiek betetzen ez diren egun bakoitzeko.

II. Arau-hauste arinak

- Guztiz debekatua dagoen tokietan edo prestatutako guneetatik kanpo erretzea.
- 18 urtetik beherakoei tabakoa saltzeko debekuaren berri eta osasunerako kalteen berri ematen duten kartelak saltokietan ez erakustea, ikusteko moduko tokian.
- Saltzeko makinek behar bezalako osasun-oharra ez izatea edo Legeak eskatutako ezaugarriak ez betetzea.
- Sarreran, ez erretzeko debekuaren, edo erretzaileentzako eta ez erretzaileentzako guneen berri ez ematea, argi eta ikusteko moduan, edo gainerako formalitateak ez betetzea.
- Erretzeko prestatutako guneak behar bezala ez seinaleztatzea.
- Adingabeei tabakoa saldu edo merkaturatzea.

Lehen kasuan, jokabidea bakana bada, 30 € bitarteko isuna aurreikusten da. Gainerako kasuetan, isuna 30-600 € bitartekoa izango da.

III. Arau-hauste larriak (601-10.000 € bitarteko isuna):

- Baimenduta ez dagoen tokietan erretzeko guneak prestatzea.
- Prestatutako guneek bereizteko, aireztatzeko eta azalerako betebeharrak ez betetzea.
- Guztiz debekatuta dagoen tokietan erretzeko aukera ematea.
- Horretarako prestatutako guneetatik kanpo erretzeko aukera ematea.
- Guztiz debekatuta dagoen guneetan edo prestatutako guneetatik kanpo erretzeagatik 3 arau-hauste metatzea.
- 18 urtetik beherakoei merkaturatu, saldu, hornitu eta banatzea.
- 20 zigarro baino gutxiagoko paketeak merkaturatu, saldu eta hornitzea.
- Baimenduta ez dagoen tokietan saldu eta hornitzea.
- Tabako-laginak eman edo banatzea.
- Saltzeko makinak esanbidez debekatuta dauden tokietan instalatzea.
- Tabakoaz bestelako produktuak tabako-makinen bidez hornitzea.

- Urruneko salmenta edo antzeko prozedurak.
- Tabakoa sustatzeko doako banaketa.
- Tabakoaren produktuak beherapena aplikatuta saltzea.
- Ondasunak edo zerbitzuak dagoeneko tabakoaren produktu baterako erabili diren izen, marka, ikur edo bestelako zeinu bereizgarriekin merkaturatzea.
- Tabakoa beste edozein ondasun edo zerbitzuren izenarekin, markarekin, ikurra-ekin edo beste edozein zeinu bereizgarriekin merkaturatzea, Legeak baimendu gabeko baldintzetan.
- Gainerako debeku edo mugak bete gabe tabakoa saldu, utzi edo hornitzea.
- Tabakoa eta tinbrea saltzeko dendetan, tabakoarekin zerikusia duten ondasun edo zerbitzuak doan banatzea, baita tabakoaren produktuetarako erabilitako izen, marka, ikur edo bestelako zeinu bereizgarriak daramatzatenak ere.
- 18 urtetik beherakoei tabakoa edo errearazteko imitazioak saldu edo ematea.
- 18 urtetik beherakoei tabako-makinak erabiltzeko aukera ematea.
- Makinek aktibatzeko edo martxan jartzeko mekanismo egokia ez izatea.
- Produktu, ondasun edo zerbitzuen doako edo sustapeneko banaketa, 18 urtetik beherakoei tabakoaren produktu bat sustatzeko.

IV. Arau-hauste oso larriak (10.001-600.000 € bitarteko isuna):

- Tabakoaren produktuen publizitatea, sustapena eta babesa hedabide guztietan, informazio-gizartearen zerbitzuak barne.
- Salbuespenak:
 - Tabakoaren merkataritzako profesionalentzako argitalpenak.
 - Tabakoaren produktuen aurkezpenak sektoreko profesionalentzat.
 - Europar Batasunetik kanpo argitaratutako edo inprimatutako argitalpenak. Be-reziki adingabeentzat badira ez dira inondik inora onartuko.

V. Zigorren erregimena

- Arau-hauste arinei, larriei eta oso larriei dagozkien zigorrak, kategoria bakoitzean, 3 mailatan banatuko dira: gutxienekoa, erdikoa eta gehienekoa.
- Ezartzea erabakiko den zigor zehatzaren zenbatekoa hainbat gorabehera kontuan hartuta mailakatuko da:
 - osasunarentzat sortutako arriskua,
 - arau-hauslearen ahalmen ekonomikoa,

.../...

- arau-haustea gizartean duen eragina,
- zigortutako jokabideak arau-hausleari eragin dion onura,
- aldez aurretik Legearen arau-hauste bat edo gehiago egin izana.
- Kaltetua adingabea bada, edo arau-haustea behin eta berriz egiten bada, zigor handiena jarriko da.
- Jokabideak adingabe batek egiten baditu:
 - Dagozkion zigorretatik txikienak jarriko dira.
 - Erantzule solidarioak: gurasoak, tutoreak, hartzaileak eta legezko edo izatezko zaintzaileak, hurrenkera horretan.
 - Isunaren ordean, hala badagokio, erkidegoko araudiak zehaztutako berriz hezteko neurriak hartzeko aukera.
- Arau-haustearekin isunaren kostua baino handiagoa lortzen bada, arau-hausleak lortu duen zenbatekoaren bikoitza izango da zigorra.
- Egintza berak bi arau-hauste edo gehiago eragiten baditu, zigor handiena besterik ez da kontuan hartuko.
- Erantzukizun penala izatea zehaztean, jarriko den zigor penalak alde batera utziko du administrazio-zehapena ezartzea. Era berean, administrazio-erantzukizunak eskatzea zibilekin edo bestelako batekin bateragarria izango da.

Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa:

- Arau-hauste arinak: urte 1.
- Arau-hauste larriak: 2 urte.
- Arau-hauste oso larriak: 3 urte;

VI. Ikuskatzeko eta zehatzeko eskumenak

Legeak esleipen bikoitza ezartzen du:

- Autonomia Erkidegoetako eta Autonomia Estatutua duten hirietako organo eskudunek kontrolatzeko eta ikuskatzeko eginkizunak beteko dituzte, ofizios edo alderdiren batek eskatuta; gainera, zehapen-espeditenteak izapidetuko dituzte eta zehapenak ezarri.
- Estatuko Administrazio Orokorrek ikuskatzeko eta kontrolatzeko eskumena izango du, ofizios edo alderdiren batek eskatuta, baita zehapen-espeditenteak izapidetzeko ere:
 - aireko, itsasoko edo lurreko garraioaren eremuan, autonomiaz gaindiko edo nazioarteko esparruan,
 - haien ezaugarriak direla-eta, Autonomia Erkidegoen eta Autonomia Estatutua duten Hirien eskumenen eremua gainditzen duten esparru, bulego edo baliabide guztietan.

3.3. AUTONOMIAKO ETA ESTATUKO TABAKO-ARLOARI BURUZKO LEGEDIAREN KONPARAZIO-AZTERKETA

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, bi Legek arautzen dute tabakoaren kontsumoa: batetik, 18/1998 Legeak, ekainaren 25ekoak, droga-mendetasunen arloko prebentzio, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoak, eta, bestetik, 28/2005 Legeak, tabakismoaren aurkako osasun-neurriei buruzkoak eta tabakoaren produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituenak. Estatuko Legearen aurreikuspenetako asko dagoeneko jasota zeuden Euskal Autonomia Erkidegoko droga-mendetasunen prebentzio, laguntza eta gizarteratzeari buruzko Legean. Hala ere, 28/2005 Legea tabakora mugatzen da, eta droga-mendetasunen euskal Legeak, aldiz, eremu zabalagoa dauka, tabakoari heldu ez ezik, legezko eta legez aurkako beste hainbat substantzia ere arautzen dituelako.

28/2005 Legeak zenbait debeku eta muga zabaltzen ditu, eta, gainera, Lege horretan bildutako aurreikuspen jakin batzuk ez datoz bat 18/1998 Legearekin. Hortaz, estatuko araua oinarritzat hartu beharko da. Espainiako Konstituzioaren 149. 3 artikulua oinarritzat hartuta, estatuko Legeak droga-mendetasunen euskal Legea ordeztzen du; beraz, 28/2005 Legea aplikatu beharko da hemendik aurrera.

Estatuko Legean ez baina autonomiako arauan aurreikusi ez diren alderdiak autonomia-araudian integratu beharko liriateke, eta autonomiako arau hori aldatu beharko litzateke, estatuko Legeak ezarritako oinarritzko xedapenak aplikatzeko. Droga-mendetasunen euskal Legea aldatzen badugu estatuko legearekin bat ez datozen alderdietan, Lege hori zailtasun gutxiagorekin betearazteko aukera izango da.

Ondorengo tauletan, bi legedietatik bat ez datozen edukiak aurkezten dira, tabakoaren publizitateari, sustapenari, babesari, salmentari, hornidurari eta kontsumoari dagozkionak, baita tabakoarekin lotura duten arau-hauste eta zehapenen erregimenari dagozkionak ere. Estatuko legetik, halaber, tabakismoa prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta tabakoa erretzeari uztea errazteko neurriekin lotura duen edukia hartu da kontuan. Taularen ezkerrean droga-mendetasunen euskal legearen xedapenak erakutsi dira, eta eskuinaldean, berriz, estatuko legeari dagozkionak. Estatuko legedian zabalago arautu diren eta ondorioz autonomiako legean bildu ez diren alderdiak **gorriz** nabarmendu dira; bi legedien arteko bat-etortze guztiak, aldiz, **grisez** nabarmendu dira. Gainera, atal bakoitzean –publizitatea, sustapena eta babesa; salmenta eta hornidura; kontsumoa; arau-hauste eta zehapenen erregimena; tabakismoa prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta tabakoa

erretzeari uztea errazteko neurriak–, eta dagokion taularen ondoren, iruzkin txiki bat egin da autonomiako legea aldatu beharraren inguruan, estatuko legera egokitzeari begira, eta, horrela, legedia betearaztea errazteko.

3.3.1. TABAKOAREN KONTSUMOAREN PUBLIZITATEA ETA SUSTAPENA

Estatuan 28/2005 Legea onartu izanak debeku eta mugak handitzea ekarri du berekin tabakoaren publizitatearen, sustapenaren eta babesaren arloan, droga-mendetasunen euskal Legeak arlo horretan araututakoaren aldean.

18/1998 Legea	28/2005 Legea
<ul style="list-style-type: none"> • Tabakoaren publizitatearen betebeharrak (13. artikulua). <i>Mugak</i>: <ul style="list-style-type: none"> – adingabeen babesa: publizitatea ezin zaie adingabeei zuzendu, eta adingabeen irudia edo ahotsa ezin da erabili, – tabakoaren kontsumoa ezin zaie errendimendu fisiko hobearrekin, arrakastarekin, lotura izan dezaketen jardueri lotu, – debekatuta dago tabakoak propietate terapeutikoak dauzkala iradokitzea, – neurritz kanpoko kontsumoa sustatzen saihestu behar da. • Tabakoaren kontsumoa azoka, erakusketa eta antzekoetan sustatzea: aparteko gune bereizietan egin behar da (14. artikulua). • Tabakoaren kanpo-publizitatea debekatuta dago (15. artikulua). <i>Salbuespena</i>: <ul style="list-style-type: none"> – baimendutako produkzio- eta salmenta-puntuak non dauden ohartarazteko seinaleak. • Barne-publizitatea (16. artikulua). <i>Debekatuta</i>: <ul style="list-style-type: none"> – toki publiko jakin batzuetan (16.1 artikulua), – buzoiratuz, postaz, telefonoz edo etxerako mezuez egindakoa, 18 urtetik gorakoentzako izan ezik. 	<p>Tabakoaren produktuen publizitatearen, sustapenaren eta babesaren mugak.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tabakoaren produktuen publizitatea, sustapena eta babesa debekatuta daude hedabide, saltzeko makina eta informazio-gizartearen zerbitzu guztietan. (9. artikulua). • Debekuaren <i>salbuespenak</i>: <ul style="list-style-type: none"> – Tabakoaren merkataritza profesionalentzako argitalpenak. – Tabakoaren produktuen aurkezpenak sektoreko profesionalentzat. – Tabakoa eta Estatuaren tinbrea saltzeko dendetan sustatzea, <i>betiere</i> adingabeentzat ez bada, eta tabakoa doan banatzea ez badakar berekin. – Jarduera horiek ezin izango dira sekula erakusleihoetan gauzatu, ezta establezimendu horietatik kanpora hedatu edo kanpoaldera bideratu ere. – Europar Batasunetik kanpo argitaratutako edo inprimatutako argitalpenak. Bereziki adingabeentzat badira ez dira inondik inora onartuko. • Debekatuta daude produktu, ondasun edo zerbitzuen doako edo sustapeneko banaketa edo bestelako ekintzak, zuzenean edo zeharka tabakoa sustatzera bideratzen badira (9.2 artikulua).

18/1998 Legea	28/2005 Legea
<ul style="list-style-type: none"> • Publizitatea hedabideetan (17. artikulua). <i>Mugak</i>: <ul style="list-style-type: none"> – debekatuta dago 18 urtetik beherakoentzat bada, – debekatuta dago lehen orrialdean, kirol-orrietan, 18 urtetik beherakoentzako orrietan eta denbora-pasetakoetan, – Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako irrati eta telebistetan debekatuta dago 08:00etatik 22:00etara. • Beste publizitate mota batzuk (18. artikulua). Debekatuta dago: <ul style="list-style-type: none"> – zeharka edo ezkutuan tabakoaren publizitatea ekar dezaketen marka, objektu edo produktuen publizitatea, – Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako telebistetan, bertan egindako programetan ezin izango dira agertu aurkezleak edo elkarrizketatuak tabakoa erretzen edo alboan tabakoa dutela, ezta produktu horien markak, izen komertzialak, logotipoak zein bestelako zeinu bereizgarriak, produktu horiek identifikatzeko edo gogoratzeko balio dutenak, bistan direla (18.2), – kiroleko, hezkuntzako, kulturako edo gizarteko jarduerak babesteko ezin izango da publizitaterik egin, ezta lehiaketa, zozketa eta kontsumoa eragiteko antzeko beste aukeretan ere. 	<p>Izendapen komunei buruzko arauak (10. artikulua).</p> <ul style="list-style-type: none"> • Debekatuta dago tabakoaren produktuetarako eta aldi berean beste ondasun edo zerbitzu batzuetarako erabiltzen diren izen, marka, ikur edo bestelako zeinu bereizgarriak erabiltzea.

Nazioartean eta European tabakismoari aurre egiteko burutu diren jardun jakin batzuek estatuko legedia araudi horretara egokitzea ekarri dute berekin. Egungo estatuko erregulazioa Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/33/EB Zuzentaraua, 2003ko maiatzaren 26koa, gure antolamendura bildu izanaren ondorioz sortu da. Tabakoaren produktuen publizitatearen eta babesaren arloetan Estatu kideen legezko, arauzko eta administrazioko xedapenak hurbiltzeari buruzkoa da zuzentzarau hori.

Droga-mendetasunen euskal legean tabakoaren publizitatearen eta sustapenaren arloan araututakoa⁴ Estatuko legearekin kontraesanean ez badago ere, azken horrek zabaldu egiten du, formula orokor bat erabiliz, tabakoaren publizitatearen, sustapenaren eta babesaren inguruko debekua⁵. 18/1998 Legearen aurreikuspenetako batzuk baliatuz (18/1998 Legearen 18. artikulua baliatuz, esaterako, zeharkako publizitatearen debekuari buruzkoa, 28/2005 Legearen debekuetako batzuk betetzea ere ahalbidetuko lukeena), 28/2005 Legearen alderdietako batzuk betetzeko aukera izango litzateke. Nolanahi ere, argitasunaren eta segurtasun juridikoaren arrazoiak direla medio, arlo horretan hobe litzateke droga-mendetasunen euskal Legea aldatzea, egungo estatuko legedira egokitzeko helburuarekin.

Gainera, kontuan hartzekoa da, droga-mendetasunen euskal Legean, tabakoaren publizitateari eta sustapenari buruzko erregulazioa alkoholdun edariei buruzko erregulazioarekin batera egiten dela. Arlo horri dagokionez Legea aldatu beharraren inguruan alde zuretik adierazitakoa ikusita, komeni da tabakoa alkoholetik aparte erregulatzea, tabakoarekin egiten den bezala (batetik, salmenta eta hornidura arautzen dira, eta, bestetik kontsumoa).

Estatuko Legeak debekuaren zenbait salbuespen ere hartzen ditu kontuan, eta salbuespen horiek ere autonomiako legera bil litezke, egokitzen joko balitz.

3.3.2. TABAKOIA SALTZEA ETA HORNITZEA

Tabakoaren salmentak muga eta debeku gehiago ditu 2005ean estatuko Legea onartu zenez geroztik.

⁴ 18/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, droga-mendetasunen arloko prebentzio, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoa. II. kapitulua: *Droga-mendetasunak prebenitzea*. III. atala: *alkoholdun edarien eta tabakoaren sustapenari, publizitateari, salmentari eta kontsumitzeari kontrol-neurriak jartzea*; I. azpiatala: *alkoholdun edarien eta tabakoaren publizitateari eta horien kontsumoa sustatzeko neurriei mugak jartzea*; 13.-19. artikulua.

⁵ 28/2005 Legea, abenduaren 26koa, tabakismoaren aurkako osasun-neurriei buruzkoa, eta tabakoaren produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituena: III. kapitulua: *Tabakoaren produktuen publizitatea, sustapena eta babesa arautzea*; 9.-10. artikulua.

18/1998 Legea	28/2005 Legea
<ul style="list-style-type: none"> • Salmenta honako toki hauetan debekatzen da (21. artikulua): <ul style="list-style-type: none"> – Osasun-zentroetan eta 18 urtetik behera-koentzako ikastetxeetan. – Kirol-instalazioetan. – Bereziki 18 urtetik beherakoak joaten diren zentro eta lokaletan. • Salmenta debekatuta dago baldin eta ontziratzeke eta etiketatzeke arauak betetzen ez badira. 	<ul style="list-style-type: none"> • Tabakoa eta tinbrea saltzeko denden sarean baino ezin da egin, edo saltzeko makinan bidez. Esanbidez debekatzen da tabakoa beste edozein tokitan edo beste edozein baliabideren bidez saltzea (3. artikulua).
<ul style="list-style-type: none"> • Debekatuta dago tabakoa 18 urtetik beherakoei saltzea (21. artikulua). 	<ul style="list-style-type: none"> • Legeak esanbidez debekatzen du tabakoa 18 urtetik beherakoei saldu edo ematea: <ul style="list-style-type: none"> – Tabakoa imitatzen duen beste edozein produktu saltzea eta ematea barne. • Debekatuta dago 18 urtetik beherakoek tabakoa saltzea. • Tabako-paketeetan esanbidez adierazi behar da 18 urtetik beherakoei saltzea debekatuta dagoela. • Salmenta baimenduta dagoen tokietan seinaleak jarri behar dira, 18 urtetik beherakoei saltzea debekatuta dagoela ohartarazteko eta osasunerako kalteen berri emateko. • 18 urtetik beherakoek ezin dituzte saltzeko makinak erabili (4. artikulua).
<ul style="list-style-type: none"> • Saltzeko makinan bidez saltzeko baldintzak (21. artikulua): <ul style="list-style-type: none"> – Establezimendu itxietan kokatu behar dira. – Arduradunaren aurrean kokatuko dira, 18 urtetik beherakoek ez erabiltzea kontrola dezan. – Testuinguru horretatik kanpo, debekatuta dago makina horien bidez saltzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Tabako-makinak honako toki hauetan kokatu beharko dira (4. artikulua): <ul style="list-style-type: none"> – bide publikoan kokatutako prentsa-kioskoen barruan, – erretzea debekatua ez dagoen lokal, zentro edo establezimenduen barruan, baita hotel, taberna, jatetxe eta dantzalekuetan ere, – lokalaren titularraren edo langileen zaintza baimenduta dagoen tokietan. • Tabako-makinak ezin izango dira honako toki hauetan ezarri: <ul style="list-style-type: none"> – lokalei atxikitako eremuetan edo lokaletarako sarrera-eremuetan. • Tabako-makinetan argi eta garbi adierazi beharko da tabakoaren erabilerak osasunari eragiten dizkion kalteen inguruko oharra. • Horrelako makinetan ezin izango da tabakoaz aparteko bestelako produkturik eskaini.

Publizitatearen kasuan bezalaxe, tabakoaren salmentak eta hornidurak muga gehiago dituzte estatuko legea indarrean jarri zenez geroztik. Euskal Legeak zehazten du tabakoa zer tokitan ezin daitekeen saldu. Estatuko Legeak, berriaz, tabakoa baimendutako tokiez (tabakoa eta tinbrea saltzeko denden sarea) edo baimendutako baliabideez (saltzeko makinak) aparte saltzea eta hornitzea debekatzen du, eta horrek debekua zabaltzea dakar berekin.

Bi legedietan garrantzi handia ematen zaie 18 urtetik beherakoei, baina estatuko legean muga gehiago zehazten dira gazteenei dagokienez.

Saltzeko makinaren bidezko salmentari dagokionez, autonomiako legeak zein estatuko legeak baliabide horren bidezko salmentaren mugak aipatzen badituzte ere, esan beharra dago estatuko legea zehatzagoa dela atal horretan, makina horien bidezko salmentaren erregulazioa zabaltzen baitu.

Tabakoa saldu eta hornitzearen muga eta debekuak zabaldu direla ikusita, autonomiako legedia 28/2005 legera egokitu beharko da, legediaren aplikazioan segurtasun juridikoa bermatzeko behar bezalako argitasuna lortze aldera.

3.3.3. TABAKOAREN KONTSUMOA

28/2005 Legeak zabaldu egin du tabakoaren kontsumoaren debekua, euskal Legeak erretzeko debekatutako tokien kopurua handituz. Horrenbestez, estatuko arauan ezarritakoa bete beharko da oinarrizko legea den aldetik, autonomiako araudiak ezin izango duelako erretzea baimendu 28/2005 Legeak debekatzen dituen toki eta baldintzetan.

Tabakoaren kontsumoa arautzeak hainbat aldaketa eragin ditu gizartean eta lan-arloan, eta horixe da estatuko legearen alderdi eztabaidagarri eta polemikoenetako bat.

28/2005 Legeak erretzeko debekua zabaldu du droga-mendetasunen euskal Legean araututakoaren aldean. Lege berriaren arabera, orain erretzea debekatuta dago lehen erre zitekeen hainbat tokitan. Gainera, euskal Legearen arabera erretzaileentzako guneak presta zitezkeen gune jakin batzuetan, gaur egun, estatuko Lege berriaren arabera, erretzeko debekua erabatekoa da.

Erretzeko guneak prestatzeari dagokionez, arlo horretan ere estatuko Legea espezifikagoa da, eta eskaera gehiago biltzen ditu gune horiek bete beharreko baldintzetan.

18/1998 Legea	28/2005 Legea
<ul style="list-style-type: none"> • <i>Erabateko debekua</i>: garraio publikoko eta pribatu osagarriko ibilgailu edo garraibideetan (23. artikulua): <ul style="list-style-type: none"> – kolektiboetan, hirikoetan eta hiriartekoetan, – eskola-garraioan eta 18 urtetik beherakoen eta gaixoen garraioan. Arduradunak: garraibideen enpresa titularrak. Honako hauek seinalez tatu behar dira nahitaez: <ul style="list-style-type: none"> – erretzeko debekua, txarteletan ere adierazi beharko dena, – ez betetzeak ekar ditzakeen zehapenak. • <i>Erretzea debekatuta dago</i> (23. artikulua): <ul style="list-style-type: none"> – tabakoaren kutsagarritasuna eta kutsatzaila industrialak baturik, langileen osasunerako arriskua handiagoa den tokietan, eta – emakume haurdunek lan egiten duten edozein lan-eremutan. 	<p><i>Guztiz debekatuta dago honako toki hauetan erretzea</i> (7. artikulua):</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lantoki publiko eta pribatuetan, aire zabaleko guneetan izan ezik. • Herri-administrazioetan eta Zuzenbide publikoko erakundeetan. • Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetan. • Ikastetxeetan eta prestakuntza-eskoletan. • Kirol-instalazioetan eta ikuskizun publikoetarako tokietan, aire zabalekoak ez badira. • Jendearen zuzeneko arretarako guneetan. • Merkataritzaguneetan, azalera handietan eta galerietan, aire zabaleko guneetan izan ezik. • 18 urtetik beherakoentzako gizarte-arretako zentroetan. • 18 urtetik beherakoei sartzeari baimentzen zaien aisialdi-zentroetan, aire zabalekoak ez badira. • Kultura-zentroetan, irakurtzeko eta erakusketa eta hitzaldietarako gela eta aretoetan, liburutegietan eta museoetan. • Dantzalekuetan, 18 urtetik beherakoei sartzeari baimentzen zaien ordutegian. • Garraibide kolektiboetan, hirikoetan eta hiriartekoetan. • Treneko eta itsasoko garraibideetan, aire zabaleko guneetan izan ezik. • Hiripeko garraio-guztietan, aire zabaleko guneetan izan ezik. • Lurralde nazionalako aireontzietan eta Espainiako konpainietako hegaldi guztietan. • Igogailu eta jasogailuetan. • Telefono-kabinetan, kutxazain automatikoen esparruetan. • Janariak landu, eraldatu, prestatu, dastatu edo saltzen diren tokietan. • Gasolina-zerbitzuguneetan eta antzekoetan. • Beste edozein tokitan, baldin eta, erre daitekeen arren, titularrak debekua ezartzea erabakitzen badu.

.../...

.../...

18/1998 Legea	28/2005 Legea
<ul style="list-style-type: none">• <i>Debekatuta dago honako toki hauetan erretzea (salbuespen batzuk badaude, betiere erretzaileentzako guneak prestatzen badira), (23. artikulua):</i><ul style="list-style-type: none">– haurtzaindegietan eta 18 urtetik behera-koentzako gizarte-arretako zentroetan,– osasun- zentro, -zerbitzu eta –establezimenduetan,– gizarte-zerbitzuen zentroetan,– ikastetxeetan,– Herri-administrazioetako bulegoetan, aire zabalekoetan izan ezik,– janariak landu, eraldatu, prestatu, dastatu edo saltzen diren tokietan,– erabilera publiko orokorreko aretoetan,– sarritan jende ugari biltzen den merkataritza-lokal itxietan,– antzokietan, zineetan eta bestelako ikuskizunak (publikoak edo kirol-arlokoak) egiten diren lokal itxietan,– igogailu eta jasogailuetan. <p>Honako toki hauetan erretzaileentzako guneak ezar daitezke, behar bezala seinaleztatuta:</p> <ul style="list-style-type: none">– antzerkirako eta bestelako ikuskizunetarako (publikoak edo kirol-arlokoak) lokal itxietan,– garraio kolektiboko itxarongeletan,– Herri-administrazioetako bulegoetan,– erretzea baimenduta ez dagoen edo debekatuta dagoen edozein lokaletan,– jende ugari biltzen den merkataritza-lokal itxietan,– osasun-zentro eta establezimenduetan eta gizarte-zerbitzuen arlokoetan,– ikastetxeetan.	<p><i>Honako toki hauetan erretzaileentzako guneak presta daitezke (8. artikulua):</i></p> <ul style="list-style-type: none">• Gizarte-arretako zentroetan.• Hoteletan, ostatueta eta antzeko establezimenduetan.• 100 m²-tik gorako taberna eta jatetxeetan.• Dantzalekuetan eta jokoko edo erabilera publikoko establezimenduetan, 18 urtetik beherakoei sartzea debekatzen zaien ordutegian, aire zabaleko guneetan izan ezik.• Antzokietan, zineetan eta ikuskizun publikoetarako gune itxietan.• Aireportuetan.• Autobus-geltokietan eta itsas garraioko nahiz tren-garraioko geltokietan. <p>Erretzeko prestatutako guneek honako betekizun hauek bete behar dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none">• Ikusteko moduko seinaleak; bereizketa fisikoa; aireztapena.• Erretzeko gunearen azalera osoaren % 10 baino txikiagoa behar du. Hotel, taberna, jatetxe eta dantzalekuetan, % 30 gehienez. Inoiz ez 300 m² baino gehiago. Bi jarduera badaude: azalera bakoitzarentzat zenbatuko da modu bereizian. <p>16 urtetik beherakoak ezin izango dira prestatutako guneetan egon. 100 m² baino gutxiago duten ostalaritza-establezimenduek eta jatetxeek erregimen berezia dute: establezimenduko titularrak erabakiko du barruan erre daitekeen ala ez.</p>
Erretzaileentzako guneak prestatzea ezinezkoa bada: ezin izango da gune osoan erre	

Hortaz, bi legedien artean ageri diren aldeak nabarmenagoak dira kontsumoari dagokionez, eta horrek droga-mendetasunen euskal Legea aldatzea eskatzen du, tabakoaren kontsumoaren debeku eta muga berrietara egokitzeko. Legedia egokitzuz legedia eraginkortasun handiagoz aplika daitekeelako.

3.3.4. TABAKOAREKIN LOTURA DUTEN ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPENEN ERREGIMENA

Alde handiak daude droga-mendetasunen euskal Legearen eta estatuko Legearen arau-hauste eta zehapenen erregimenen artean. Berriz ere kontuan hartu behar dugu estatuko Legea oinarrizkoa dela Estatu osoan aplikatuko den heinean, 18/1998 Legean araututakoaren aldean.

18/1998 Legea	28/2005 Legea
<p><i>Arau-hauste arinak</i> (47. artikulua):</p> <ul style="list-style-type: none"> • azoketan, erakusketetan eta antzekoetan sustatzea, guneak bereizi gabe, • barne-publizitatea, buzoiratuz, postaz, telefonoz eta etxerako mezuez egindakoa, 18 urtetik gorakoentzako izan ezik. • ibilgailu publikoetan edo pribatu osagarrietan debekua ez seinalizatzea, edo txarteletan ez adieraztea; lokal, zentro eta establezimenduetan debekua ez seinalizatzea; baita erretzea debekatua dagoen Herri-administrazioetako zentro edo bulegoetan ere. <p>(ohartarazpena edota 500.000 pezetarainoko isuna) (52. artikulua).</p>	<p><i>Arau-hauste arinak</i> (19. artikulua):</p> <ul style="list-style-type: none"> • Guztiz debekatua dagoen tokietan edo prestatutako guneetatik kanpo erretzea. • 18 urtetik beherakoei tabakoa saltzeko debekuaren berri eta osasunerako kalteen berri ematen duten kartelak saltokietan ez erakustea, ikusteko moduko tokian. • Saltzeko makinek behar bezalako ohar sanitarioa ez izatea edo Legeak eskatutako ezaugarriak ez betetzea. • Sarreran, ez erretzeko debekuaren, edo erretzaileentzako eta ez erretzaileentzako guneen berri ez ematea, argi eta ikusteko moduan, edo gainerako formalitateak ez betetzea. • Erretzeko prestatutako guneak behar bezala ez seinalizatzea. • Adingabeei tabakoa saldu edo merkaturatzea. <p>(Lehen kasuan, jokabidea bakana bada, 30 € bitarteko isuna aurreikusten da. Gainerako kasuetan, isuna 30-600 € bitartekoa izango da) (20. artikulua).</p>
<p><i>Arau-hauste larriak</i>, honako ekintza edo ez-egite hauek, «baldin eta jokabide horiek osasunerako arrisku edo kalte larriak eragiten badituzte» (47. artikulua):</p> <ul style="list-style-type: none"> • azoketan, erakusketetan eta antzekoetan sustatzea, guneak bereizi gabe, • barne-publizitatea, buzoiratuz, postaz, telefonoz eta etxerako mezuez egindakoa, 18 urtetik gorakoentzako izan ezik. 	<p><i>Arau-hauste larriak</i> (19. artikulua):</p> <ul style="list-style-type: none"> • Baimenduta ez dagoen tokietan erretzeko guneak prestatzea. • Prestatutako guneek bereizteko, aireztatzeko eta azalera betekizunak ez betetzea. • Guztiz debekatuta dagoen tokietan erretzeko aukera ematea. • Horretarako prestatutako guneetatik kanpo erretzeko aukera ematea.

.../...

.../...

18/1998 Legea	28/2005 Legea
<ul style="list-style-type: none">• 13. artikuluko publizitatearen baldintza orokorrak ez betetzea,• 15. artikuluko kanpo-publizitateko baldintzak ez betetzea,• toki publiko jakin batzuetan publizitatea egitea (18 urtetik beherakoentzako tokiak; kirol-zentroak, osasun-zentroak eta ikastetxeak eta horietako sarbideak; zineak eta ikuskizun-aretoak, gaueko azken saioan izan ezik; garraio publiko, geltoki, portu eta aireportuetan).• komunikabideei dagokien 17. artikuluan adierazitako publizitate-mugak ez betetzea,• 18. artikuluko bestelako publizitate moten baldintzak ez betetzea,• 18 urtetik beherakoei tabakoa saltzea osasun-zentro eta ikastetxeetan; kirol-instalazioetan eta 18 urtetik beherakoentzako lokaletan tabakoa saltzea; saltzeko makinetan tabakoa saltzea 21. artikuluko betekizunak bete gabe; eta ontziratze eta etiketatze arauak ez betetzea.• honako toki hauetan erretzeko guneak ez prestatzea: antzokietan eta ikuskizun- edo kirol-areto publiko edo itxietan; garraio kolektiboko itxarongeletan; Herri Administrazioetan; osasun-zentro eta establezimenduetan eta gizarte-zerbitzuen arlokoetan; ikastetxeetan; erretzea baimenduta ez dagoen edo debekatuta dagoen beste edozein tokitan, baldin eta erretzeko gune bat prestatzen ez bada edo prestatutako guneak baldintzak betetzen ez baditu. (500.001-2.500.000 pezetako isunak edota, hala badagokio, jarduera aldi baterako etetea edota, establezimendua aldi baterako ixtea, guztiz edo partzialki, gehienez 2 urtez. Zehapen osagarri gisa, EAEko edozein laguntza mota eskuratzeko debekua erabaki ahal izango da, gehienez 2 urtez (52. artikulua).	<ul style="list-style-type: none">• Guztiz debekatuta dagoen guneetan edo prestatutako guneetatik kanpo erretzeagatiko 3 arau-hauste metatzea.• 18 urtetik beherakoei merkaturatu, saldu, hornitu eta banatzea.• 20 zigarro baino gutxiagoko paketeak merkaturatu, saldu eta hornitzea.• Baimenduta ez dagoen tokietan saldu eta hornitzea.• Tabako-laginak eman edo banatzea.• Saltzeko makinak esanbidez debekatuta dauden tokietan jartzea.• Tabakoaz bestelako produktuak tabako-makinen bidez hornitzea.• Urruneko salmenta edo antzeko prozedurak.• Tabakoa sustatzeko doako banaketa.• Tabakoaren produktuak beherapena aplikatuta saltzea.• Ondasunak edo zerbitzuak dagoeneko tabakoaren produktu baterako erabili diren izen, marka, ikur edo bestelako zeinu bereizgarriekin merkaturatzea.• Tabakoa beste edozein ondasun edo zerbitzuren izenarekin, markarekin, ikurrarekin edo beste edozein zeinu bereizgarriekin merkaturatzea, Legeak baimendu gabeko baldintzetan.• Gainerako debeku edo mugak bete gabe tabakoa saldu, utzi edo hornitzea.• Tabakoa eta tinbrea saltzeko dendetan, tabakoarekin lotura duten ondasun edo zerbitzuak doan banatzea, baita tabakoaren produktuatarako erabilitako izen, marka, ikur edo bestelako zeinu bereizgarriak daramatzatenak ere.• 18 urtetik beherakoei tabakoa edo errearazteko imitazioak saldu edo ematea.• 18 urtetik beherakoei tabako-makinak erabiltzeko aukera ematea.• Makinek aktibatze edo martxan jartzeko mekanismo egokia ez izatea.• Produktu, ondasun edo zerbitzuen doako edo sustapeneko banaketa, 18 urtetik beherakoei tabakoaren produktu bat sustatzeko. (601-10.000 € bitarteko isuna) (20. artikulua).

18/1998 Legea	28/2005 Legea
<p><i>Arau-hauste oso larriak</i>, honako ekintza edo ez-egite hauek, «baldin eta jokabide horiek osasunerako arrisku edo kalte oso larriak eragiten badituzte» (47. artikulua):</p> <ul style="list-style-type: none"> • azoka, erakusketa eta antzekoetan tabakoa sustatzea, horretarako guneak behar bezala bereizi gabe (14. artikulua), • barne-publizitatea, buzoiratuz, postaz, telefonoz eta etxerako mezuez egindakoa, 18 urtetik gorakoentzakoia izan ezik, • 13. artikuluko publizitatearen baldintza orokorrak ez betetzea, • 15. artikuluko kanpo-publizitateko baldintzak ez betetzea, • toki publiko jakin batzuetan publizitatea egitea (18 urtetik beherakoentzako tokiak; kirol-zentroak, osasun-zentroak eta ikastetxeak eta horietako sarbideak; zineak eta ikuskizun-aretoak, gaueko azken saioan izan ezik; garraio publiko, geltoki, portu eta aireportuetan), • komunikabideei dagokienez 17. artikuluan adierazitako publizitate-mugak ez betetzea, • 18. artikuluko bestelako publizitate moten baldintzak ez betetzea, • 18 urtetik beherakoei tabakoa saltzea osasun-zentro eta ikastetxeetan; kirol-instalazioetan eta 18 urtetik beherakoentzako lokaletan tabakoa saltzea; saltzeko makinetan tabakoa saltzea 21. artikuluko betekizunak bete gabe; eta ontziratzeko eta etiketatzeko arauak ez betetzea. <p>(2.500.001-100.000.000 pezetako isuna, edota establezimenduaren jarduera aldi baterako ixtea, guztiz edo partzialki, gehienez 5 urtez. Zehapen osagarri gisa, EAEko edozein laguntza mota eskuratzeko debekua erabaki ahal izango da, gehienez 5 urtez (52. artikulua).</p>	<p><i>Arau-hauste oso larriak</i> (19. artikulua):</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tabakoaren produktuen publizitatea, sustapena eta babesa hedabide guztietan, informazio-gizartearen zerbitzuak barne. • Salbuespenak: <ul style="list-style-type: none"> – Tabakoaren merkataritza profesionalentzako argitalpenak. – Tabakoaren produktuen aurkezpenak sektoreko profesionalentzat. – Europar Batasunetik kanpo argitaratutako edo inprimatutako argitalpenak. Bereziki adingabeentzat badira ez dira inondik inora onartuko. <p>(10.001-600.000 € bitarteko isuna) (20. artikulua).</p>

.../...

.../...

18/1998 Legea	28/2005 Legea
Tabakoaren <i>publizitate-arauak ez betetzeagatiko</i> arau-hausteen kasuan, isuna handitzeko aukera izango da, legez aurkako publizitatea landu eta hedatzeko kostuaren % 10 gehienez, eta bildutakoa EAeko hedabideetan droga-mendetasunak prebenitzeko estrategiak lantzerantz bideratuko da.	

Arau-hauste arinak, larriak eta oso larriak sailkatu dira bi legedietan. Nolanahi ere, alde handiak nabari dira legedia batetik bestera. Izan ere, lege bakoitzak debekatutako edo mugatutako jokabideen arabera sailkatzen dira arau-hausteak, eta, legeriaren nondik norakoak aztertzean adierazi dugun bezala, bi legeak ez datoz bat horretan.

Arau-hauste bakoitzari aplikatu beharreko zehapenetan ere ez da antzekotasunik nabari. Horrela, bi legedietan zehapenak arau-haustearen larritasunaren arabera mailakatuta ageri badira ere, izaera desberdineko zehapenak aurkitzen ditugu, oso zenbateko desberdinak isunen kasuan, eta behin-behineko neurriak, estatuko legean oso gogorrek direnak.

Behar-beharrezkoa da droga-mendetasunen euskal legean bildutako arau-hauste eta zehapenak estatuko legean bildutakoetara egokitzea, Lege hori modu baketsuan betearazteko.

3.3.4.1. Zehatzeko eskumena

18/1998 Legea	28/2005 Legea
<i>Zehatzeko eskumena</i> (54. artikulua): Egindako arau-haustearen izaeraren eta eremuaren arabera izango da. <i>Alkateek</i> eskumena dute honako ez-betetze arin edo larriengatiko zehapena ezartzeko: <ul style="list-style-type: none">• azoketan, erakusketetan eta antzekoetan sustatzea, guneak bereizi gabe,• 15. artikuluko kanpo-publizitateko baldintzak ez betetzea,	<i>Ikuskatzeko eta zehatzeko eskumenak</i> (22. artikulua): Legeak esleipen bikoitza ezartzen du: <ul style="list-style-type: none">• Autonomia Erkidegoetako eta Autonomia Estatutua duten hirietako organo eskudunek kontrolatzeko eta ikuskatzeko eginkizunak beteko dituzte, ofizioz edo alderdiren batek eskatuta; gainera, zehapen-espedienteak izapidetuko dituzte eta zehapenak ezarri.

18/1998 Legea	28/2005 Legea
<ul style="list-style-type: none"> • toki publiko jakin batzuetan publizitatea egitea (18 urtetik beherakoentzako tokiak; kirol-zentroak, osasun-zentroak eta ikastetxeak eta horietako sarbideak; zineak eta ikuskizun-aretoak, gaueko azken saioan izan ezik; garraio publiko, geltoki, portu eta aireportuetan), • tabakoa saltzea eta hornitzea 21. artikuluko araua hautsiz, • tabakoa kontsumitzea 23. artikuluan xedatutakoa hautsiz, • 16.2 eta 18.3 artikuluen arau-hausteak, baldin eta arau-hausteak udal-eremua gainditzen ez badu: <ul style="list-style-type: none"> – barne-publizitatea, buzoiratuz, postaz, telefonoz eta etxerako mezuez egindakoa, 18 urtetik gorakoentzako izan ezik. – publizitatea egitea, kiroleko, hezkuntzako, kulturako edo gizarteko jarduerak babesteko, edo lehiaketa, zozketa eta kontsumoa eragiteko antzeko beste aukeren bidez. • beste edozein ez-betetze, baldin eta arau-hausteak larriak edo oso larriak ez badira. <p><i>Droga-mendetasunen arloko eskumeneko departamentuko</i> organoak honako kasu hauetan izango du eskumena:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 14., 15., 16.1 eta 21. artikuluen oso arau-hauste larriak: <ul style="list-style-type: none"> – azoka, erakusketa eta antzekoetan tabakoa sustatzea, guneak behar bezala bereizi gabe (14. artikulua), – 15. artikuluko kanpo-publizitateko baldintzak ez betetzea, – toki publiko jakin batzuetan publizitatea egitea (18 urtetik beherakoentzako tokiak; kirol-zentroak, osasun-zentroak eta ikastetxeak eta horietako sarbideak; zineak eta ikuskizun-aretoak, gaueko azken saioan izan ezik; garraio publiko, geltoki, portu eta aireportuetan), 	<ul style="list-style-type: none"> • Estatuko Administrazio Orokorrek ikuskatzeko eta kontrolatzeko eskumena izango du, ofizioz edo alderdiren batek eskatuta, baita zehapen-espeditenteak izapidetzeko ere: <ul style="list-style-type: none"> – aireko, itsasoko edo lurreko garraioaren eremuan, autonomiaz gaindiko edo nazioarteko esparruan, – haien ezaugarriak direla-eta, Autonomia Erkidegoen eta Autonomia Estatutua duten Hirien eskumenen eremua gainditzen duten esparru, bulego edo baliabide guztietan.

.../...

.../...

18/1998 Legea	28/2005 Legea
<ul style="list-style-type: none">– tabakoa saltzea eta hornitzea 21. artikuluko araua hautsiz.• 13., 17. eta 18.1, 2 eta 3 artikuluen arau-hauste larriak edo oso larriak:<ul style="list-style-type: none">– 13. artikuluko publizitate-baldintza orokorrak ez betetzea,– hedabideei dagokienez 17. artikuluan adierazitako publizitate-mugak ez betetzea,– zeharka edo ezkutuan tabako-publizitatea ekar dezaketen marka, objektu edo produktuen publizitatea (18.1 artikulua),– Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako telebistetan, bertan egindako programetan ezin izango dira agertu aurkezleak edo elkarrizketatuak tabakoa erretzen edo alboan tabakoa dutela, ezta produktu horien markak, izen komertzialak, logotipoak zein bestelako zeinu bereizgarriak, produktu horiek identifikatzeko edo gogoratzeko balio dutenak, bistan direla (18.2),– publizitatea egitea, kiroleko, hezkuntzako, kulturako edo gizarteko jarduerak babesteko, edo lehiaketa, zozketa eta kontsumoa eragiteko antzeko beste aukeretan.• 16.2 eta 18.3 artikuluen arau-hausteak, baldin eta arau-hausteak udal-eremua gainditzen badu:<ul style="list-style-type: none">– barne-publizitatea, buzoiratuz, postaz, telefonoz eta etxerako mezuez egindakoa, 18 urtetik gorakoentzako izan ezik.– publizitatea egitea, kiroleko, hezkuntzako, kulturako edo gizarteko jarduerak babesteko, edo lehiaketa, zozketa eta kontsumoa eragiteko antzeko beste aukeren bidez. <p><i>Gobernu Kontseiluak</i> 15.000.000 pezetatik gorako isunak ezartzeko eskumena izango du, baita jarduera, guztiz edo partzialki, aldi baterako ixteko ere.</p>	

Droga-mendetasunen euskal Legeak zehazten du arau-hausteen berri izateko eta bere xedapenen aurkako jokabideak zehatzeko organo eskudunak zein diren. Gainera, estatuko Legeak esleipen bikoitza ezartzen du ikuskatzeko eta zehatzeko eskumenetan. Lege horrek ezartzen duenez, Autonomia Erkidegoetako eta Autonomia Estatutua duten hirietako organoek izango dute kontrolatzeko eta ikuskatzeko eginkizunak betetzeko eskumena, ofizioz edo alderdiren batek eskatuta, baita zehatzeko espedienteak izapidetzeko eta zehapenak ezartzeko ere.

Bi legedietako arau-hausteak eta zehapenak bat ez datozenez, legea be-tearazteak zailtasun handiak dakartza berekin. Legea ez da aplikatzen, batetik, xedapenetako batzuk interpretatzeko arazoak daudelako, eta, bestetik, zehape-nak aplikatzeko eskumenak ez direlako behar bezala zehaztu.

Estatuko legean eta euskal legean bildutako zehapenen arteko lotura aurkitu beharko da, hartara zehatzeko organoak esleitzeko antzeko arau-hauste moten arabera. Horrela, legedia behar bezala aplikatzea lortuko da.

3.3.5. TABAKISMOA PREBENITZEKO, OSASUNA SUSTATZEKO ETA TABAKOIA ERRETZEARI UZTEA ERRAZTEKO NEURRIAK

28/2005 Legea

Tabakismoa prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta tabakoa erretzeari uztea errazteko neurriak (IV. Kapitulua, 11.-17. artikulua):

- 28/2005 Legea kontuan hartzeko hainbat justifikazio daude, besteak beste: hezkuntzaren, prebentzioaren eta asistentziaren arloetan esku hartzea, gazteenei arreta berezia eskainiz.
- Genero-ikuspegia esanbidez sartzen da, baita adingabeen osasunaren eta hezkuntzaren babes berezia ere (13. artikulua).
- Adingabeen osasunaren babesa eta hezkuntza aipatzen dira, kontsumoa prebenitzeko eta kontsumitzen has daitezen saihesteko, eta, hala badagokio, adingabeei mendetasuna gainditzen laguntzeko (13. artikulua).
- Printzipio orokor batzuk ezarri dira, eskumeneko Herri Administrazioek, zuzenean eta elkarte zientifikoekin, gizarte-eragileekin eta GKEekin elkarlanean, osasunerako hezkuntzako, osasun-informazioko eta prebentzioko ekintza eta programak susta ditzaten (11. artikulua).
- Herri Administrazioetatik, tabakoa erretzeari uzteko osasun-programak sustatzea (13. artikulua). Gobernuaren eta Autonomia Erkidegoen arteko lankidetzak, Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluaren baitan, Legearen aginduak betetzeko garatu beharreko ekimen, programa eta jarduerak bultzatzeko (15. artikulua). Horretarako, Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseilu horren baitan tabakoa erretzeari uzteko unitateak sortzea aurreikusten du Legeak (12. artikulua).

.../...

.../...

28/2005 Legea

- Osasun eta Kontsumo Ministerioak ezarriko ditu tabakismoa prebenitzeko eta kontrolatzeko unitateen irizpide eta protokoloak, Autonomia Erkidegoekin eta elkarte zientifikoekin koordinatuta (14. artikulua).
- Tabakismoa Prebenitzeko Behatokia sortzea aurreikusi da, Osasun eta Kontsumo Ministerioaren baitan eta Autonomia Erkidegoekin, elkarte zientifikoekin, kontsumitzaile-elkarteekin eta GKEekin elkarlanean (16. artikulua).
- Eskumeneko Administrazioek aukera izango dute ezarritako zehapenen zenbatekoak, guztiz edo partzialki, ikerketako, hezkuntzako, prebentzioko, eta tabakismoa kontrolatzeko eta tabakoa erretzeari uztea errazteko programak garatzera bideratzeko (17. artikulua).

28/2005 Legeak aurrerapen handia ekarri du, tabakismoaren tratamenduaren eremuan aurrera egitea bermatzen duena, nazioarteko erakundeek ezarritako norabidean:

- Eremu publiko gehienetan nikotina-mailak nabarmen murriztu dira, tabakoaren kearen eragina gehien nabarmentzen den tokietan izan ezik, aisialdi- eta ostalaritza-tokietan, esaterako.
- Zenbait alderditan balorazioa positiboa da. Esaterako, zuzeneko publizitatea ia guztiz desagertu da, eta adingabeak tabakoa kontsumitzen hastea saihesteko mesedegarria da hori.

Prebentzioari dagokionez ere Legeak zenbait kritika jaso ditu:

- Erretzen dutenentzako asistentzia-egiturak hainbat kritika jaso ditu, ahula delako eta finantziazio urria duelako, mendetasun-maila handienak dauzkatenen kasuetarako bereziki.
- Legearen interpretazioan sortu diren desadostasunek eragina izan dute Legea aplikatzean, eta horrek eragin negatiboa izan du herritarrentzako prestazioetan.

Tabakismoaren prebentzioaren eta tratamenduaren eremuan, estatuko legeak programa eta jarduera jakin batzuk bultzatu beharra aipatzen du, legearen xedapenak betetzeko garatu beharrekoak, tabakoa erretzeari uzteko osasun-programak, besteak beste. Jardun horiek garatzeko, Legeak Autonomia Erkidegoen lankidetzaren hartzen du kontuan.

Osasun eta Kontsumo Ministerioak ezarriko ditu tabakismoa prebenitzeko eta kontrolatzeko unitateen jarduneko irizpide eta protokoloak, Autonomia Erkidegoekin eta elkarte zientifikoekin koordinatuta.

Komenigarria litzateke jardun berri horiek guztiak euskal legedira biltzea eta eremu guztietan aplikatzea, lan-arloa barne. Gainera, estatuko legean aurreikusitakoaren arabera, ezarritako zehapenen zenbatekoak, guztiz edo partzialki, ikerketako, hezkuntzako, prebentzioko eta tabakismoa kontrolatzeko eta tabakoa erretzeari uztea errazteko programak garatzera bideratzeko aukera dago.

tx
i

o
n

s
f

t
o

e
r

n
m

a
e

Ondorioak

ISABEL GERMÁN, XABIER ARANA

- Eremu zientifikoan erabateko adostasuna dago tabakoaren kontsumoaren ondorioen eta substantzia horren kearen inguruan. Era berean, praktikan jarri beharreko neurriei buruzko adostasun handia dago tabakismoaren prebentzioari begira: fenomeno horren aurreko sentsibilizazio handiago bategi informatzeko, prestatzeko, hezteko, kontzientziatzeko eta prebenitzeko neurriak jartzea eskatzen du, baita tabakismoaren tratamendu-eskaerei heltzeko ere.
- Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmena abian jarri izana aurrerapen adierazgarria izan da tabakoa prebenitzeko borrokan. Hitzarmen horren zati garrantzitsu bat kalteak murrizteko politikak barnean hartzen da.
- Kalteak murrizteko politikak eta programak beharrezko baliabidea izan daitezke ahalik eta tabako-kontsumitzaile kopuru handienera iristeko, oraingoz substantzia hori kontsumitzeari utzi ezin diezaioketela edo utzi nahi ez dutela kontuan hartuta, haien osasun-egoera eta haien gizarte-egoeraren beste zenbait alderdi hobetzeko asmoarekin. Helburu hori lortzeko esku-hartzeek tabako-kontsumitzaileen premietara egokitzeko gaitasuna erakutsi behar dute (asistentzia-eskaintzaren irisgarritasuna handituz), baita informazioa eskaintzeko eta arrisku gutxiagoko kontsumo batera bideratutako osasun-hezkuntza sustatzeko gaitasuna ere.
- Zenbait Herri Administrazioek nahiz erakunde pribatuk hainbat plan eta estrategia dituzte tabakismoaren prebentzioarekin lotutako gaiak ikuspegi koordinatuan eta koherentean aurrera egiteko. Plan eta estrategia horien ezaugarrietako bat berariazko eta proposatutako helburuen arloko zehaztapena da. Hartutako konpromiso horiek oinarri ona dira dagozkion planen ebaluazioa egiteko.
- Azken bi hamarkadetan tabakismoaren inguruan hartutako neurriak fiskalitate handitzean, adingabeei egindako salmentaren murrizketan, eremu publiko batzuetako kontsumoa arautzean, eta tabakoaren publizitatearen zenbait mugatan oinarritu dira, tabakoaren merkaturatzeari, sustapenari eta kontsumoari buruzko hainbat alderdiren legezko arau-esparrua garatuz.

- 28/2005 Legea onartu zen arte ordura arte zegoen legediaren sakabana-tzea azpimarratu behar da, estatuan nahiz autonomian, baita haren izaera asistematikoa ere, tabakoaren arloan hainbat arau aplikatuz.
- Tabakismoaren aurkako osasun-neurriei eta tabakoaren produktuen sal-menta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzeari buruzko abendua-ren 26ko 28/2005 Legeak hainbat aldaketa erabakigarri eragin ditu, bereziki lan-eremuan ondorioak sortuz, baita aisialdian ere. Lege horrek osasuna babesteko eskubidea onartzen duen Espainiako Konstituzioaren 43. artiku-lua garatzen du, baita tabakoaren produktuen publizitatearen eta babes-a-ren arloetan Estatu kideen legezko, arauzko eta administrazioko xedapenak hurbiltzeari buruzko 2003ko maiatzaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/33/EB Zuzentaraua ere.
- Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko droga-mendetasunen arloko prebentzio, laguntza eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legeak, eremu zabalagoarekin, tabakoari heldu ez ezik, legezko eta legez kanpoko beste hainbat substantzia ere arautzen ditu.
- Estatuko Legea indarrean jarri izanak ondorio garrantzitsuak izan ditu gi-zarte- eta lan-bizitzan. Lan-harremanetan duen eragina oso nabarmena da; beraz, legedi bat baino gehiago hartu behar da kontuan legea interpreta-tzeko eta aplikatzeko garaian. Eta osasunari buruzko Legea bada ere, erre-tzeko debekuari eta debeku horren kontrolari buruzko neurriak prebentzioari eta ez ohitzeari bideratutakoak baino askoz gehiago eta zehatzagoak dira.
- Legeak tabakoari dagokionez adingabeen osasuna eta hezkuntzarekiko kezka berezia adierazten du, bereziki babestu nahi ditu kontsumoa prebeni-tzeko eta kontsumitzen has daitezen saihesteko, eta hala badagokio, adin-gabeei mendetasuna gainditzen laguntzeko.
- Erretzaileen eta ez-erretzaileen arteko eskubideen balizko talka Legean ez-erretzaileek ingurunean tabakoaren kea ez irensteko duten eskubidearen alde eginez ebazten da, ez-erretzaileen osasuna babeste aldera, eskubide hori erretzeko eskubidearen aurrean nagusitzen delarik.
- Era berean, Legeak interpretazio-arazoak planteatzen ditu hainbat alderdiri dagokionez, hala nola, debekuaren eremua, legearen salbuespenak edo zehapen-prozedura.
- Eztabaida gehien sortu duen alderdietako bat gune jakin batzuetan erre-tzeko debekuari buruzkoa da, bereziki erretzeko erabateko debekua dagoen tokietan. Era berean, erretzaileentzako guneak prestatzearekin lotutako eskaerek sektore jakin batzuetan arazoak planteatu dituzte, hala

nola, ostalaritzan, Legean eskatutako betebeharrak betetzeko zailtasunak dituztela adierazi baitute.

- Tabakoaren publizitatea eta sustapenari dagokionez Legea aplikatzearen ondorioz, balorazioa positiboa izan da; zuzeneko publizitatea ia guztiz desagertzeak adingabeak tabakoa kontsumitzen ez hasteko aukera ematen du. Testuinguru honetako alderdi negatiboa publizitate modu berriak azaltzea da, baita salmentako establezimenduetako publizitaterako irizpiderik eza ere.
- 28/2005 Legeak aurrerapen handia ekarri du, tabakismoaren tratamenduaren eremuan aurrera egitea bermatzen duena, nazioarteko erakundeek ezarritako norabidean. Legea egiteko dauden justifikazioen artean hezkuntzaren, prebentzioaren eta asistentziaren arloetako esku-hartzea dago, gazteenei arreta berezia eskainiz. Baina prebentzioari eta laguntzari dagokionez, interpretazio-arazok herritarrentzako prestazioetan eragin negatiboa izan dute.
- Arau-hausteen eta zehapenen erregimena puntu eztabaidagarrienetako bat da. Toki jakin batzuetan Legea ez da aplikatzen, batetik, xedapenetako batzuk interpretatzeko arazoak daudelako, eta bestetik, zehapenak aplikatzeko eskumenak ez direlako behar bezala zehaztu.
- Behin-behineko neurriei dagokienez, doktrinak haien larritasuna nabarmentzen du, zehapenena gainditzen baitu; horiek diru-zehapenak dira.
- Estatuko legearen arau-hausteen eta zehapenen erregimena aztertzen badugu Droga-mendetasunen Euskal Legeari dagokionez, ikus dezakegu bi araudien zehapenak ez datozela bat; beraz, 28/2005 Legearen oinarria gogorarazi beharko da. Baina, estatuko legeak, horri dagokionez, ezartzen du Autonomia Erkidegoetako organo eskudunek gauzatuko dituztela ikuskapena, kontrola eta zehapen-espeditteen izapidetzea; beraz, 18/1998 Legearen arabera emandakoa hartu beharko da kontuan.
- Bi legedietako arau-hauste mota desberdinei dagokienez, gure ustez estatuko legean eta euskal legean bildutako zehapenen arteko lotura aurkitu beharko da, hartara zehatzeko organoak esleitzeko antzeko arau-hauste moten arabera.
- Hainbat debeku eta muga handituko direla ikusita, eta tabakismoaren aurkako osasun-neurriei eta tabakoaren produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzeari buruzko abenduaren 26ko 28/2005 Legean bildutako aurreikuspen jakin batzuk bat ez datozenez, Euskal Autonomia Erkidegoko droga-mendetasunen arloko prebentzio, laguntza

eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legeari dagokionez, estatuko araua oinarritzat hartu beharko da. Espainiako Konstituzioaren 149. 3 artikulua oinarritzat hartuta, estatuko Legeak droga-mendetasunen euskal Legea ordeztzen du; beraz, 28/2005 Legea aplikatu beharko da he-mendik aurrera.

- Estatuko legean ez baina autonomiako arauan aurreikusi ez diren alderdiak autonomia-araudian integratu beharko lirateke, eta autonomiako arau hori aldatu beharko litzateke, estatuko Legeak ezarritako oinarritzko xedapenak aplikatzeko. Droga-mendetasunen euskal Legea aldatzen badugu estatuko legearekin bat ez datozen alderdietan, –tabakoaren publizitateari, babesari, sustapenari, salmentari eta hornidurari eta toki jakin batzuetan tabakoaren kontsumoaren debekuari eta zehapenei dagokienez–, Lege hori zailtasun gutxiagorekin betearazteko aukera izango da.

tx
i

o
n

s
f

t
o

e
r

n
m

a
e

Bibliografia

- ABAD, F.; MARTINEZ, E. (1999): «Cómo evaluar la eficacia y la eficiencia en drogodependencias: el caso del tabaquismo». En *Nicotina y tabaquismo. Nuevas perspectivas. Avances en farmacología de drogodependencias*. Meana, J.J., Markez, I., Pantoja, L. (Eds.). Bilbao: Universidad de Deusto. 219-240.
- ADAN, A.; SÁNCHEZ-TURET, M. (1995): «Contenidos de nicotina y alquitrán en los cigarrillos. ¿Buenos indicadores para investigación?». En *Adicciones* 7, 4, 465-477.
- ALFONSO SANJUÁN, M.; IBÁÑEZ LÓPEZ, P. (1992): *Todo sobre las drogas legales e ilegales: (incluido alcohol y tabaco)*. Madrid: Dykinson.
- ÁLVAREZ-SALA, J.L.; RODRÍGUEZ, J.L.; REINARES, L. (2003): «Tabaco y EPOC. Tabaco y aterosclerosis». En *Drogodependencias. Farmacología. Patología. Psicología. Legislación*. Lorenzo, P. et al. Madrid: Médica Panamericana, 467-483.
- AÑAÑOS, F. (Coord.) (2005): *Representaciones sociales de los jóvenes sobre las drogas (alcohol, tabaco y cannabis) y su influencia en el consumo*. Madrid: Dykinson.
- ARANA, X.; VEGA, A. (1998): «La esquizofrenia de las drogas legales o la cuadratura del círculo: entre la promoción y la prevención». En *Los agentes sociales ante las drogas*. Arana, X.; Markez, I. (Comp.). Madrid: Dykinson, 151-211.
- ARIZA, C.; NEBOT, M. (2004): «La prevención del tabaquismo en los jóvenes: realidades y retos para el futuro». En *Adicciones* 16, 2, 359-378.
- BECOÑA, E. (1993): «Una droga llamada nicotina». En *Adicciones* 5, 3, 231-235.
- BECOÑA, E. (Coord.) (2005): *Libro blanco sobre el tabaquismo en España*. Barcelona: Glosa Ediciones.
- BECOÑA, E.; VAZQUEZ, F.L. (1999): «Recaídas en tabaquismo: factores y causas». En *Nicotina y tabaquismo. Nuevas perspectivas. Avances en farmacología de drogodependencias*. Meana, J.J., Markez, I., Pantoja, L. (Eds.). Bilbao: Universidad de Deusto. 185-217.

- BENITO, E. De (2007): «La UE afirma que España debe endurecer la ley antitabaco. La Comisión de Sanidad propone subir los impuestos y encarecer los pitillos». *El País*, Sociedad, 31/10/2007.
- BERGASA, O. (2003): *La fiscalidad sobre el tabaco*. Madrid: Fundación Altadis.
- BROTONS B. (2000): «Economía del tabaco». En *Tabaquismo. Una perspectiva desde la Comunidad Valenciana*. F. Carrión (Coord.). Valencia: Conselleria de Sanitat. Generalitat Valenciana, 49-54.
- CALVETE, A. (2005): «Actividad de la Unión Europea en materia de lucha contra el tabaquismo». *Revista Española Salud Pública* 79, 531-529.
- CAMARELLES, F. (2006): «El papel de las redes profesionales para promover el cumplimiento de la Ley de espacios libres de humo, obstáculos y oportunidades». *Espacios laborales libres de humo*. Madrid: CNPT y MSC, 207-222.
- CARRIÓN, F. (2000): «Tabaquismo pasivo». En *Tabaquismo. Una perspectiva desde la Comunidad Valenciana*. F. Carrión (Coord.). Valencia: Conselleria de Sanitat. Generalitat Valenciana, 99-109.
- CARRIÓN, F.; MARÍN, J. (2000): «Tabaquismo. Introducción al problema». En *Tabaquismo. Una perspectiva desde la Comunidad Valenciana*. F. Carrión (Coord.). Valencia: Conselleria de Sanitat. Generalitat Valenciana, 17-21.
- CC.OO. (2003): *Alcohol y drogas en el lugar de trabajo*. Madrid: Secretaría Confederada de Medio Ambiente Salud Laboral de CC.OO.
- CNPT (2003): *Atención, Tabaco y asistencia a fumadores*. Madrid: Comité Nacional para la Prevención del Tabaquismo.
- (2007): *Un año de ley del Tabaco*, [en línea] 2007 [citado diciembre 2008]. Disponible en World Wide Web: <http://www.todocancer.com/NR/rdonlyres/2CAA813B-C9B1-4F24-B9EB-CE420130B92E/0/070212INFORMECNPTANIVERSARIOLEY.pdf>
- (Coord.) (2008): *Documento técnico de consenso sobre la Atención Sanitaria del Tabaquismo en España*. Madrid: CNPT y Ministerio de Sanidad y Consumo.
- COMITÉ ORGANIZADOR DEL VII CONGRESO NACIONAL DE PREVENCIÓN Y TRATAMIENTO DEL TABAQUISMO (2007): *Conclusiones del VII Congreso Nacional de Prevención y Tratamiento del Tabaquismo. Ciencia, Ética y Reconciliación (Castellón, 25-27 de octubre de 2007)*, [en línea] 2007 [citado diciembre 2008]. Disponible en World Wide Web: http://www.cnpt.es/docu_pdf/conclusionesVII.pdf

- COMISIÓN DE LAS COMUNIDADES EUROPEAS (2007): *Libro verde. Hacia una Europa sin humo de tabaco: opciones políticas a escala de la UE*. Bruselas.
- CONFEDERACIÓN SINDICAL DE COMISIONES OBRERAS (2006): *Nota Interna: Ley 28/2005, de 26 de diciembre, de medidas sanitarias frente al tabaquismo y reguladora de la venta el suministro, el consumo y la publicidad de los productos del tabaco*, [en línea] 2006 [citado diciembre 2008]. Disponible en World Wide Web: <http://www3.ccoo.es/pdfs/Circular%20Tabaco%20enero%202006.pdf>
- CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL (2005): *Dictamen sobre el Anteproyecto de Ley reguladora de la venta, el suministro, el consumo y la publicidad de los productos del tabaco, de 16 de marzo de 2005*.
- COURTWRIGHT, D. (2002): *Las drogas y la formación del mundo moderno*. Barcelona: Paidós.
- CUESTA, J.L. de la (1976): «Entre la Ley de Seguridad Ciudadana y la Ley sobre prevención y tratamiento de las drogodependencias del País Vasco», *Eguzkilore. Cuaderno del Instituto Vasco de Criminología*, 6, San Sebastián, 91-95.
- DEPARTAMENTO DE SALUD GOBIERNO VASCO (1994): *Plan de Salud, Osasuna Zainduz*. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- DIRECCIÓN GENERAL PARA LAS DROGODEPENDENCIAS Y ADICCIONES. JUNTA DE ANDALUCÍA (2004): *Manual para la prevención de drogodependencias y adicciones en el ámbito laboral*. Sevilla: Junta de Andalucía.
- ELZO, J. (Dir.) (1992): *Euskadi ante las drogas 92: Informe sociológico sobre la evolución y actitudes ante el consumo de tabaco, alcohol y demás drogas en los últimos diez años*. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- EYBEN, F.E., Von; ZEEMAN, G. (2003): «Riesgos para la salud derivados del consumo voluntario e involuntario de tabaco», *Revista Española de Salud Pública*, nº 1, 11-36.
- FERNÁNDEZ, S.; NEBOT, M.; JANÉ, M. (2002): «Evaluación de la efectividad de los programas escolares de prevención del consumo de tabaco, alcohol y cannabis ¿qué nos dicen los meta-análisis?», *Revista Española de Salud Pública*, nº 3, 175-187.
- FERNÁNDES MARCOS, L. (2006): *Comentarios a la Ley de Prevención de Riesgos Laborales y su Régimen Sancionador*, 4ª edición. Madrid: Dykinson.

- FERNÁNDEZ MUÑOZ, E.; SCHIAFFINO, A.; GARCÍA MARTÍNEZ, M.; TWOSE, J. (2006): «Efectos del Humo Ambiental de Tabaco (HAT) sobre la salud: revisión de la evidencia científica». *Espacios laborales libres de humo*. Madrid: CNPT y MSC, 15-30.
- GARCÍA-PERROTE, I. (Coord.) (2006): *Comentarios de urgencia a la Ley de Medidas frente al tabaquismo*. Valladolid: Lex Nova.
- GARCÍA-PERROTE, I.; MERCADER, J. (2005): «Reflexiones sobre la futura (pero próxima) prohibición total de fumar en el lugar de trabajo». *Justicia Laboral* 24, 7.
- GATELY, I. (2003): *La diva nicotina. Historia del tabaco*. Barcelona: Ediciones BSA.
- GOLDSTEIN, A. (2003): *Adicción. De la Biología a la política de drogas*. Barcelona: Ars Medica.
- GÓMEZ, J.A.; LUENGO, M.A.; ROMERO, E. (1999): «La teoría de la acción razonada y la prevención del consumo de tabaco en adolescentes». En *VI Encuentro nacional sobre drogodependencias y su enfoque comunitario*. Cádiz: Centro provincial de Drogodependencias de Cádiz, 207-218.
- GONZÁLEZ, M.J.; GARCÍA, A.; RODRÍGUEZ, J.L. (Coords.) (2006): *Percepción y actitud de las empresas españolas ante el alcohol y otras drogas*, Madrid: ISTAS.
- GONZALEZ ENCISO, A.; TORRES SANCHEZ, R. (1999). *Tabaco y economía en el S. XVIII*. Navarra: Ed. EUNSA.
- GOOS, C. (2002): «Políticas europeas ante el tabaco y el alcohol». En *Drogas Qué política para qué prevención*, Donostia-San Sebastián: Gakoa, 177-186.
- GRANADO VECINO, C. (2004). *Todo sobre el tabaco: De Cristóbal Colón a Terenci Moix*. Madrid: Ed. Prentice Hall.
- HARO, G.; FERNÁNDEZ-GARCÉS, M.; PÉREZ-GÁLVEZ, B.; CASTELLANO, M.; MATEU, C.; CERVERA, G. (2005): «Política española sobre el tabaquismo». *Anuario de Investigación en Adicciones*, 5, 1.
- HOSTELTUR.COM (2005): «Los hosteleros vascos se consideran legitimados para obstruir la Ley Antitabaco», *HostelTur.com. Diario nº 2322*, [en línea] diciembre 2005 [citado diciembre 2008]. Disponible en World Wide Web: http://www.hosteltur.com/noticias/32018_hosteleros-vascos-se-consideran-legitimados-obstruir-ley-antitabaco.html
- INFANTE, C.; RUBIO-COLAVIDA, J.M. (2004): «La prevalencia del consumo de tabaco en España». *Adicciones* 16, 2, 59-73.

- JANÉ, M. VILLARBI, J.R. (2004): «Mujeres y tabaco: aspectos principales específicos de género». *Adicciones* 16, 2, 115-130.
- LADERO, J.M. (2003): «Otras repercusiones orgánicas del consumo de tabaco. El tabaquismo en la mujer. El 'tabaco sin humo'». En *Drogodependencias. Farmacología. Patología. Psicología. Legislación*. Lorenzo, P. et al. Madrid: Médica Panamericana, 485-492.
- (2003): «Tabaco y cáncer». En *Drogodependencias. Farmacología. Patología. Psicología. Legislación*. Lorenzo, P. et al. Madrid: Médica Panamericana, 459-466.
- LÓPEZ NICOLÁS, A. (2003): «Influencia de los precios sobre la iniciación y el abandono del tabaquismo». *Gestión Clínica y Sanitaria* 5 (1), 40.
- LÓPEZ NICOLÁS, A.; PINILLA DOMÍNGUEZ, J. (2005): «Propuesta de reforma de la fiscalidad de los cigarrillos en España». *Prevención del tabaquismo en España. Hacia políticas de impacto fuerte*. Madrid: CNPT.
- LORENZO, P.; LADERO, J.M. (2003): «Dependencia tabáquica. Tabaco y nicotina» En *Drogodependencias. Farmacología. Patología. Psicología. Legislación*. Lorenzo, P. et al. Madrid: Médica Panamericana, 441-457.
- MARKEZ, I. (1999): «Socioeconomía del tabaco y tabaquismo». En *Nicotina y tabaquismo. Nuevas perspectivas. Avances en farmacología de drogodependencias*. Meana, J.J.; Markez, I.; Pantoja, L. (Eds.). Bilbao: Universidad de Deusto. 79-101.
- MARTÍ, O. (1980): «Economía política de la droga (I)». *Monthly Review (Sección Española)* 12: 40-52.
- MÉNDEZ, R. (2007): «Ingeniería de precisión para promover sus ventas y aumentar la adicción». *El País*, vida&artes, domingo, 21/10/2007, p.42.
- MINISTERIO DE TRABAJO Y ASUNTOS SOCIALES (2003): *Problemas relacionados con el alcohol y las drogas en el trabajo*. Madrid: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.
- MORÁN, C. (2005): «Los expertos piden sufragar la ayuda a las personas dependientes con impuestos de tabaco y alcohol». *El País*, sábado, 22/01/2005, p. 28.
- MATO, J.M. (1997): «La industria del tabaco, a debate». En *Leer* 111, 8-9.

- MAYA, M.; BRIONES, M.L.; CARRIÓN, F. (2000): «Tabaco y mujer». En *Tabaquismo. Una perspectiva desde la Comunidad Valenciana*. F. Carrión (Coord.). Valencia: Conselleria de Sanitat. Generalitat Valenciana, 111-119.
- MINISTERIO DE SANIDAD Y CONSUMO (2005): *La situación del cáncer en España*. Madrid: Ministerio de Sanidad y Consumo.
- MIRAVET, L. (2000): «Estrategias de la industria tabaquera». En *Tabaquismo. Una perspectiva desde la Comunidad Valenciana*. F. Carrión (Coord.). Valencia: Conselleria de Sanitat. Generalitat Valenciana, 55-60.
- NAVARRO, J.; RODRÍGUEZ, E. (2002): *La incidencia de las drogas en el mundo laboral*. Madrid: FAD.
- NERÍN, I.; JIMÉNEZ-NURO, A.; MARQUETA, A. (2006): «Perspectiva de género: tabaco y mujer». *Manual de Prevención y Tratamiento del Tabaquismo*, 3ª Ed., M. Barrueco, M.A. Hernández y M. Torrecilla (Coord.). Madrid: GlaxoSmithKline, 417-442.
- OBSERVATORIO ESPAÑOL SOBRE DROGAS-OED (2007): *Informe 2007. Situación y tendencias de los problemas de drogas en España*. Madrid: Ministerio de Sanidad y Consumo.
- OPPENHEIMER, W. (2003): «Los laboristas quieren condicionar la asistencia médica a fumadores y obesos». *El País*, Sociedad, miércoles, 04/06/2003, p. 32.
- PASCUAL, F.; VICÉNS, S. (2004): «Aspectos históricos, sociales y económicos del tabaco». *Adicciones* 16, 2, 14-24.
- PEDROSA ALQUEZAR, S.I. (2005): *La vigilancia de la salud en el ámbito laboral: regulación legal, límites y cuestiones problemáticas*. Madrid: Consejo Económico y social.
- PELLICER, C. (2000): «Legislación en tabaquismo». En *Tabaquismo. Una perspectiva desde la Comunidad Valenciana*. F. Carrión (Coord.). Valencia: Conselleria de Sanitat. Generalitat Valenciana, 225-234.
- PÉREZ, D. (2007): «Las tabaquerías usan casi 700 sustancias para promover sus ventas y aumentar la adicción». *abc.es*, 25/02/2007.
- RAAUMAKERS, T.; VAN DE BORNE, I. (2003): «Relación coste-beneficio de las políticas sobre consumo de tabaco en el lugar de trabajo». *Revista Española de Salud Pública* 77, 1.

- RICHMOND, R.; NERÍN, I. (2006): *Manual docente sobre tabaquismo para estudiantes de medicina y ciencias de la salud. Programa Smokescreen*. Zaragoza: Departamento de Salud y Consumo del Gobierno de Aragón.
- RODRÍGUEZ, J.L.; ÁLVAREZ-SALA, J.L.; CALLE, M. (2003): «Tabaquismo pasivo». En *Drogodependencias. Farmacología. Patología. Psicología. Legislación*. Lorenzo, P. et al. Madrid: Médica Panamericana, 493-502.
- RODRÍGUEZ GORDILLO, J.M. (2002): *La creación del estanco del tabaco en España*. Madrid: Fundación Altadis.
- RODRÍGUEZ HERMOSA, J.L.; HERNÁNDEZ VÁZQUEZ, J.; CALLE RUBIO, M.; ÁLVAREZ-SALA, J.L. (2006): «Estrategias de prevención del tabaquismo». *Manual de Prevención y Tratamiento del Tabaquismo*, 3ª Ed., M. Barrueco, M.A. Hernández y M. Torrecilla (Coord.). Madrid: GlaxoSmithKline, 443-473.
- ROIG, P. (2001): «Tabaco y reducción del riesgo: Estudio multicéntrico sobre la reducción del consumo de tabaco con sustituto de nicotina». En *Gestionando las drogas. Conferencia de consenso sobre reducción de daños relacionados con las drogas: Cooperación e interdisciplinariedad*. AA.VV. Barcelona: Grup Igia, 179-185.
- SALA, T.; PEDRAJAS, A. (2006): *Aspectos laborales de la ley antitabaco*. Valencia: Tirant lo Blanch.
- SALTÓ, E. (Coord.) (1993): *En 5 minutos ayude a su paciente a dejar de fumar*. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- SALVADOR-LLIVINA, T. (1998): «Condiciones del consumo de tabaco en España. En: E. Becoña (Coord.), *Libro blanco de prevención del tabaquismo*. Barcelona: Glosa, 153-173.
- (2004): «Condiciones del consumo de tabaco en España». *Adicciones* 16, 2, 25-58.
- SALVADOR-LLIVINA, T.; OÑORBE, M.; GONZÁLEZ ALONSO, J. (2006): «Impacto sanitario y económico de la regulación del tabaquismo en el medio laboral: revisión de la evidencia científica». *Espacios laborales libres de humo*. Madrid: CNPT y MSC, 49-86.
- SÁNCHEZ, L. (2001): *Evolución de la publicidad de bebidas alcohólicas y tabacos en España (1995-2000)*. Madrid: Ministerio del Interior. Delegación del Gobierno para el Plan Nacional sobre Drogas.

- (2003): «Políticas reguladoras de la accesibilidad, disponibilidad y promoción de bebidas alcohólicas y tabaco». *Idea-Prevención* 27, 88-101.
- SÁNCHEZ AGUDO, L. (2006): «Obstáculos y retos para el desarrollo de políticas para la protección de la salud y seguridad de los trabajadores. Empresas privadas y Centros hospitalarios». *Espacios laborales libres de humo*. Madrid: CNPT y MSC, 223-232.
- SÁNCHEZ TOMÁS, J.M. (2002): *Derecho de las drogas y las drogodependencias*. Madrid: FAD.
- SIGNES-COSTA, J. (2000): «Perspectiva histórica del tabaquismo». En *Tabaquismo. Una perspectiva desde la Comunidad Valenciana*. F. Carrión (Coord.). Valencia: Conselleria de Sanitat. Generalitat Valenciana, 23-28.
- SIMPSON, D. (2000): *Los Médicos y el Tabaco. El Gran Reto de la Medicina*. Trad. Chanterelle Translations. Reino Unido: Tobacco Control Resource Centre.
- TOLOSA TRIBIÑO, C. (2006): «Principios de la Ley de medidas sanitarias frente al tabaquismo. Especial referencia al régimen de infracciones y sanciones». En García Perrote (Coord.) *Comentario de urgencia a la Ley de medidas frente al tabaquismo*. Valladolid: Lex Nova.
- UGT (2006): *Tú puedes conseguirlo. Trabaja sin humos*. Madrid: Comisión ejecutiva federal de UGT.
- VILLARBI, J.R. (2004): «Políticas para reducir el daño que causa el tabaco». *Adicciones* 16, 2, 379-390.
- (2006): «Evaluación de las políticas de protección frente al Humo Ambiental de Tabaco desarrolladas hasta hoy en nuestro país». *Espacios laborales libres de humo*. Madrid: CNPT y MSC, 195-206.
- VILLARBI, J.R.; ARIZA, C. (2000): *El tabaquismo en España. Situación actual y perspectivas para el movimiento de prevención*. Barcelona: Comité Nacional de Prevención del Tabaquismo.

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN 978-84-457-2991-5



9 788445 729915

Salneurria: 10 €
